LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

LASARTE-ORIAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LASARTE-ORIA

# UDAL AURREKONTUA



# 2019

LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

# ARGIBIDEA


*1. AURREKONTUAK GAUZATZEKO ARAUA* 5
**I. TITULUA.- ARAU OROKORRAK ETA KREDITU-ALDAKUNTZARI BURUZKOAK** 5
I. KAPITULUA.- ARAU OROKORRAK. 5
II. KAPITULUA - KREDITU-ALDAKUNTZAK 9
**II.TITULUA.- GASTUEI BURUZKOA** 14
I. KAPITULUA - ARAU OROKORRAK 14
II. KAPITULUA - AURREKONTU-KUDEAKETA 15
III. KAPITULUA - PROZEDURA ADMINISTRATIBOA 20
IV. KAPITULUA.- FROGATU BEHARREKO ORDAINKETAK ETA KUTXA FINKOKO AURRERAKINAK 27
**III. TITULUA.- SARREREI BURUZKOA** 29
I. KAPITULUA - SARRERAREN EXEKUZIOA 29
II. KAPITULUA - DIRUZAINTZA 30
**IV. TITULUA.- FINANTZA-ERAGIKETEI BURUZKOA** 32
**V. TITULUA.- OKERREKO SARREREN ITZULKETA ETA ORDAINKETEN ITZULERA** 33
**VI. TITULUA.- AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA** 34
**VII. TITULUA.- KONTROLA ETA FISKALIZAZIOA** 35
**XEDAPEN GEHIGARRIAK** 43
**AMAIERAKO XEDAPENAK** 45
*2. AURREKONTUAREN AZALPEN-MEMORIA* 53
2.1 AURREKONTUAREN PROIEKTUAREN EDUKIA 53
2.1.1. AURREKONTUAREN INGURUNEA 54
2.1.2. AURREKONTUAREN JARDUNBIDEAK 54
2.1.3. KONTABILITATEKO ETA AURREKONTUKO EGOERA 55
2.1.4. MARKO FINANTZARIOA 56
2.1.5. ONDAREAREN EGOERA 58
2.1.6. AURREKONTUAREN LANTZEKO IRIZPIDEAK 58
2.1.7. AURREKONTUAREN HELBURUA 58
2.2. SARREREN AURREKONTUAREN MEMORIA 59
2.2.1. SARREREN AURREIKUSPENA 67
2.2.1.1. I. KAPITULUA ZUZENEKO ZERGAK 67
2.2.1.2. 2. KAPITULUA - ZEHARBIDEZKO ZERGAK 68
2.2.1.3. 3. KAPITULUA - TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK 68
2.2.1.3.1. Tasak eta Salmentak 69
2.2.1.3.2. Zerbitzuagatiko Prezio publikoak 73
2.2.1.3.3. Zuzenbide publikoko bestelako sarrerak 74
2.2.1.4. 4. KAPITULUA - TRANSFERENTZIA ARRUNTAK. 75
2.2.1.5. 5. KAPITULUA - ONDAREZKO SARRERAK. 78
2.2.1.6. 6. KAPITULUA - INBERTSIO ERREALEN BESTERENGANATZEA. 79
2.2.1.7. 7 KAPITULUA - KAPITAL-TRANSFERENTZIAK. 80
2.2.1.8. 8 KAPITULUA - FINANTZA-AKTIBOAK. 80
2.2.1.9. 9 KAPITULUA - FINANTZA-PASIBOAK. 80
2.2.2. SARREREN AURREKONTUA KAPITULUKA 82
2.2.2.1. SARREREN AURREKONTUAREN LABURPENA KAPITULUKA 83
2.2.2.2. SARREREN AURREK. EGOERA-ORRI KONPARATIBOA ARTIKULUKA 84
2.2.2.3. SARREREN EGOERA-ORRI KONPARATIBOA 85
2.3.GASTUEN AURREKONTUAREN MEMORIA 87
2.3.1.GASTU AURREIKUSPENA 105
2.3.1.1. 1 KAPITULUA. PERTSONALAREN ORDAINSARIAK 105
2.3.1.2. 2. KAPITULUA. ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUEN EROSKETA 107
2.3.1.3. 3 ETA 9 KAPITULUAK. INTERESAK ETA AMORTIZAZIOAK. 109
2.3.1.4. 4 KAPITULUA. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK 111
2.3.1.5. 5 KAPITULUA. KREDITU GLOBALA 112
2.3.1.6. 6 KAPITULUA. INBERTSIO ERREALAK. 113
2.3.1.7. 7 KAPITULUA. KAPITAL-TRANSFERENTZIAK 113

# ARGIBIDEA

2.3.1.8. 8 KAPITULUA. FINANTZA-AKTIBOAK 114
2.3.2 .GASTUEN AURREKONTUA KAPITULUKA. 115
2.3.2.1. GASTUEN AURREKONTUAREN LABURPENA KAPITULUKA 115
2.3.2.2. GASTUEN AURREKONTUAREN LABURPENA ARTIKULUKA 116
2.3.2.3. GASTUEN AURREKONTUAREN EGOERA-ORRI KONPARATIBOA 117
2.3.3.AURREZKI BILAKAERA 119
2.3.3.1. AURREZKI GORDINAREN BILAKAERA 119
2.3.3.2.AURREZKI GARBIAREN BILAKAERA 119
2.4 DEPARTAMENTUEN MEMORIA 121
2.4.1 DEPARTAMENTUEN GASTUEN AURREIKUSPENA 121
2.4.1.1. 02 DEPARTAMENTUA ADMINISTRAZIO 121
2.4.1.2. 03 DEPARTAMENTUA. EKONOMIA ETA ONDAREA 122
2.4.1.3. 04 DEPARTAMENTUA. KULTURA 122
2.4.1.4. 05 DEPARTAMENTUA. GAZTERIA, JAIAK ETA KIROLAK 123
2.4.1.5. 06 DEPARTAMENTUA. EUSKARA 123
2.4.1.6. 07 DEPARTAMENTUA. GIZARTE ZERBITZUAK 124
2.4.1.7. 08 DEPARTAMENTUA. HIRIGINTZA, INGURUGIROA ETA OSASUNA 124
2.4.1.8. 09 DEPARTAMENTUA. ZERBITZU PUBLIKOAK 125
2.4.2. AURREKONTUA DEPARTAMENTUKA 126
2.4.2.1. AURREKONTU GLOBALAREN LABURPENA DEPARTAMENTUKA. 126
2.4.2.2. AURREKONTU GLOBALAREN LABURPENA SEKZIOA. 127
2.4.2.3. AURREKONTU ARRUNTAREN LABURPENA DEPARTAMENTUKA. 128
2.4.2.4. AURREKONTU ARRUNTAREN LABURPENA SEKZIOA. 129

2.4.3. AURREKONTUA GLOBALAREN EGOERA-ORRI KONPARATIBOA DEPARTAMENTUKA ETA SEKZIOKA 130
2.4.3.1. AURREKONTUA GLOBALAREN EGOERA-ORRI KONPARATIBOA. 130
2.4.3.1.1 GASTU GLOBALAREN AURREKONTUA 130
2.4.3.1.2 SARRERA GLOBALAREN AURREKONTUA 132
2.4.3.2. AURREKONTUA ARRUNTA EGOERA-ORRI KONPARATIBOA 134
2.4.3.2.1 GASTU ARRUNTAREN AURREKONTUA 134
2.4.3.2.2 SARRERA ARRUNTAREN AURREKONTUA 136
2.4.4. GASTUAEN AURREONTUAREN LABURPENA DEPARTAMENTUKA ETA EKONOMIKOA 138
2.4.5. PROGRAMAK DEPARTAMENTUKA ETA SEKZIOKA 139
2.4.5.1. 02 DEPARTAMENTUA.- ZERBITZU OROKORRAK 141
2.4.5.1.1. 0201 SEKZIOA.- GOBERNU ORGANOAK 141
2.4.5.1.2. 0202 SEKZIOA.- IDAZKARITZA OROKORRA 147
2.4.5.1.3. 0203 SEKZIOA.- BARNEKO ERREGIMENA 153
2.4.5.1.4. 0204 SEKZIOA.- UDALTZAINGOA 169
2.4.5.1.5. 0205 SEKZIOA.- INFORMATIKAKO ZERBITZUAK 173
2.4.5.1.6. 0206 SEKZIOA.- HERRITARREN PARTE-HARTZEA 173
2.4.5.2. 03 DEPARTAMENTUA.- KONTUHARTZAILETZA, OGASUNA ETA ONDAREA 179
2.4.5.2.1. 0301 SEKZIOA.- KONTUHARTZAILETZA 179
2.4.5.2.2. 0302 SEKZIOA.- DIRUZAINTZA 189
2.4.5.3. 04 DEPARTAMENTUA.- KULTURA ETA HEZIKETA 195
2.4.5.3.1. 0401 SEKZIOA.- KULTURA 195
2.4.5.3.2. 0402 SEKZIOA.- HEZIKETA 217
2.4.5.4. 05 DEPARTAMENTUA.- JAIAK, GAZERIA ETA KIROLAK 221
2.4.5.4.1. 0501 SEKZIOA.- JAIAK 221
2.4.5.4.2. 0502 SEKZIOA.- GAZTERIA 227
2.4.5.4.3. 0503 SEKZIOA.- KIROLAK 235
2.4.5.5. 06 DEPARTAMENTUA.- EUSKARA 245
2.4.5.6. 07 DEPARTAMENTUA.- GIZARTE ZERBITZUAK 259
2.4.5.6.1. 0701 SEKZIOA.- ZERBITZU SOZIALAK 259
2.4.5.6.2. 0702 SEKZIOA.- ENPLEGU SUSTAPENA, KONTSUMOA ETA MERKATARITZA 275
2.4.5.7. 08 DEPARTAMENTUA.- HIRIGINTZA, INGURUGIROA ETA OSASUNA 287

# ARGIBIDEA

2.4.5.7.1. 0801 SEKZIOA.- INGURUGIROA ETA OSASUNA 287
2.4.5.7.2. 0802 SEKZIOA.- HIRIGINTZA 297
2.4.5.8. 09 DEPARTAMENTUA.- ZERBITZU PUBLIKOAK 303
2.4.5.8.1. 0902 SEKZIOA.- ZERBITZU PUBLIKOAK 303
2.5 GASTUEN FUNTZIO MEMORIA 323
2.5.1. GASTUEN FUNTZIO AURREKONTUA 323
2.5.1.1. GASTUEN TALDE FUNTZIONALAREN ARABEKO LABURPENA 323
2.5.1.2. AURREKONTUAREN EGOERA-ORRI KONPAR. FUNTZIO EGITURAREN ARABERA 327
2.5.1.2.1 GASTU GLOBALAREN AURREKONTUA. TALDEKA ETA FUNTZIOKA 327
2.5.1.2.2 GASTU ARRUNTEN AURREKONTUA. TALDEKA ETA FUNTZIOKA 329
2.5.1.2.3 GASTU GLOBALAREN AURREK.. AZPIPROGRAMA FUNTZIONALAREN ARABERA 331
2.5.1.2.4 GASTU ARRUNTEN AURREKONTUA. AZPIPROGRAMA FUNTZIONALAREN ARABERA 333
*3. AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA* 335
3.1 ARIBIDEKO AURREKONTUAREN EXEKUZIO MAILAREN AURRERAPENA 335
*4. AURREKONTUAREN ERANSKINAK* 341
4.0 KONPROMISOZKO KREDITUEN ERNSKINA 343
4.1 TRANSFERENTZIA ARRUNTEN ERANSKINA 373
4.2 KAPITAL TRANSFERENTZIEN ERANSKINA 376
4.3 INBERTSIOEN ERANSKINA 377
4.4 ERRENTAMENDUAREN ERANSKINA 379
4.5 EMAKIDA ETA PROBETXAMENDU BEREZIEN ERANSKINA 380
4.6 ZORPETZE ERANSKINA 381
4.7 GOBERNUKO ORGANUEN ERANSKINA 382
4.8 UDAL LORZORU-ONDAREAREN ONDASUN ETA BALIABIDEEN XEDEAREN ERANSKINA 383
4.9 PERTSONALAREN ERANSKINA 385
4.9.1 LANPOSTUEN TAULA ORGANIKOA 387
4.9.2 LANPOSTUEN ZERRENDA 391
4.9.3 LANPOSTUEN ZERRENDAREN AZALPENEKO ERANSKINA 399
4.9.4 PERTSONALAREN ORDAINKETAK 405
*5. KONTUHARTZAILEAREN TXOSTENA* 415
5.1 KONTUHARTZAILEAREN TXOSTENA 417
5.2 AURREKONTUEN EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZEN IRAUNKORTASUNAREN LEGEA BETETZEARI BURUZKO TXOSTENA. 423

LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

# ARGIBIDEA

LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

# 1. AURREKONTUAK GAUZATZEKO ARAUA

## *I. TITULUA.- ARAU OROKORRAK ETA KREDITU-ALDAKUNTZARI BURUZKOAK*

### I. KAPITULUA.- ARAU OROKORRAK.

**1. artikulua.- Denbora-eremua.**

1.- Aurrekontuaren onespena, kudeaketa eta likidazioa Aurrekontuak Gauzatzeko Udal-Arau honek eta horretarako indarrean dagoen Entitate Lokalen Aurrekontuetarako Foru-Arauak xedatzen dutenari lotuko zaizkio; eta Udal-Arau hauek Aurrekontuaren indarraldi bera izango dute.
2.- Aipatutako Aurrekontua luzatu behar bada, Udal Arauek, era berean, luzapen-aldian eraenduko dute.

**2. artikulua.- Funtzio-eremua.**

Arau hauek izaera orokorrez aplikatuko dira Udalaren Aurrekontua exekutatzerakoan, xehekatuko diren berezitasunak kontuan harturik.

**3. artikulua.- Aurrekontu Orokorrari buruzkoa.**

1.- Ekitaldirako Aurrekontu Orokorra Udalaren Aurrekontuak osatzen du. Aurrekontu honetan, hark gehienez ere onar ditzaken obligazioen adierazpen zifratu eta sistematikoa eta ekitaldian zehar likidatzea aurreikusten diren eskubideak biltzen dira.

| Entitatea | Gastuen Egoera | Sarreren Egoera | Sarrera Arruntak | Gastu arruntak + Amortizazioa | Aurrezki Garbia |
|---|---|---|---|---|---|
| Udala | 28.155.993,99 | 28.162.013,79 | 23.209.022,22 | 20.442.109,36 | 2.766.912,86 |

2.- Aurrekontu Orokorrak ez du hasierako defizitik azaltzen eta ohiko eragiketak, gutxienez, izaera bereko gastuak eta zorpetzearen amortizazio-gastuak gehitzearen emaitzaren berdinak dira.
3. - Kredituak aurrekontuan biltzeak ez du inongo eskubiderik sortzen.

**4. artikulua.- Aurrekontu prorrogatuari buruz.**

1.- Ekitaldi ekonomikoa hastean dagokion Aurrekontua onetsita ez badago, amaitutako ekitaldiko abenduaren 31ko behin betiko kredituak automatikoki luzatutzat hartuko dira beste tramiterik gabe, hurrengo ekitaldian eraentzeko, Aurrekontu berria onetsiko duen erabakia hartu arte.

Ez dira inolaz ere luzagarriak izango aurreko ekitaldian bukatu beharreko kredituak edo ekitaldi horretan bakarrik jasoko diren ukitutako sarrera edo sarrera espezifikoekin edo kredituekin finantzaturikoak. Era berean, ez dira luzagai izango kapitaleko operazioetarako kredituak.

Konpromiso-kredituak berez sartuko dira luzatutako aurrekontuan. Luzapen-aldian zehar, sortzen diren aurrekontu-aldakuntzak Aurrekontu-Exekuziorako Udal-Arau honetan bildutako arautegiaren bidez erregulatuko dira.

2.- Aurreko atalean ezarritako erregimena alde batera utzirik, eta hirugarrenei ez eragitearren, betiere 3. atalak aipatzen dituen doiketak egin badaitezke, hurrengo kreditu hauek prorrogakizun izango dira, jarraian zehazten diren baldintzetan:

- ✔ Konkurrentzia libreko diru-laguntzak (Kodea: KLDL)
- ✔ Norgehiagoka-erregimeneko diru-laguntzak (NEDL)
- ✔ Informatika (0205), Ondarea (0301), Kulturak (0401), Kirolak (0503), Euskara (0600), Ingurumena (0801), Hirigintza (0802) eta Zerbitzuak mantentzea (0900) kudeatzeko organoei dagozkien 22707 kontzeptuko kredituak.
- ✔ Kreditu Globalak prorrogakizun izango dira, onetsitako hasierako zenbatekoekin, amaitutako ekitaldi ekonomikoko urtarrilaren 1eko ondorioekin.

3.- Luzatu gabeko sarrerengatik, karga finantzario gehiagoko sarrerengatik, luzatzen den ekitaldirako baimendurikoaren berdina den behin-behineko portzentajea berdin eta gehienekoz gehitutako pertsonalari egin beharreko ordainketengatik, konpromisozko kredituak barne, nahiz beren izaera ekonomikoagatik zuzkiduren gehikuntza bat eskatzen duten beste mota bateko gastuengatik, luzatutako aurrekontuan egin beharreko doikuntzak Korporazioko Presidenteak egingo ditu, betiere kontu-ikuskatzailetzaren txostena jaso ondoren eta finantzaketa nahikoa baldin badago.

4.- Aurrekontu orokorrek baimendutako kredituetakoren bat barne hartzen ez badute edo kopuru txikiagoagatik barne hartzen badute, afektaturiko Gastuen Programaren kargura kitatuko da dagokion zenbatekoa, eta hori ezinezkoa bada, Osoko Bilkurak erabakiko du dagokion doikuntza egiteko era.

**5. artikulua.- Aurrekontu-exekuzioari buruzko informazioa.**

Alkatetzak, hiru hilean behin, ondorengo aurrekontu-eragiketen berri emango dio Korporazioaren Osoko Bilkurari:

a) Aurrekontuan bildutako kredituetan transferentzia bidez egindako aldakuntzen egoera-orria.

b) Udal-arau honen 46., 47. eta 48. artikuluetan barne hartutako baimenen babesean burututako kreditu-eragiketak.
c) Aurrekontuaren exekuzioko egoera-orriaren laburpena.
d) 90.151,00 eurotik gorako kopurua duten obra-kontratuen zerrenda xehekatua.
e) Aurrekontuaren kargura ematen diren diru-laguntzen eta edozein motatako laguntzen zerrenda, 12.020,00 eurotik gorako zenbatekoa dutenean eta Aurrekontuan nominatiboki esleituta daudenean.

**6. artikulua.- Aurrekontu-egitura.**

1.- Aurrekontu Orokorraren egitura bat dator Gipuzkoako toki-entitateen kontabilitatearen arau-esparrua ezartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 FORU-DEKRETUAN xedatutakoarekin.

Barne hartutako kredituak ondorengo irizpideei jarraituz sailkatu dira.

a) Organoa.- Departamentu eta atal bakoitzak aipaturiko bi maila hauetan garatutako zein gastu edo dirusarrera kudeatzen duen jasotzen du.
b) Ekonomikoa.- Burutzen ari den gastuaren edo dirusarreraren izaera jasotzen da, 5 mailatan garatua: Kapitulua, Artikulua, Kontzeptua, Azpikontzeptua eta Partida Ekonomikoa.
c) Gastu programa.- Jarraitzen diren xede eta helburuei buruzko informazioa ematen du, eta maila hauek bereizten dira: Gastu-arloa, Gastu-politika, Programa Taldea, Programa eta Azpiprograma.

2.- Sailkapen ekonomiko, organiko eta programatikoa bateratzearen bidez definitutako aurrekontu eta kontabilitateko partida unitate bat da, zeinen gainean egingo baitira kredituen eta haien aldakuntzen kontabilitate-erregistroa eta gastua edo dirusarrera exekutatzeko eragiketak.

3.- Sistemari galdatzen zaizkion informaziozko helburuei erantzuteko, partidaren itxuraketa birdiseinatu da. Eskematikoki, honela errepresentatuko litzateke:




Eskeman ikus daitekeen bezala, KESI-SIGEk sartutako bere itxuraketa berrian, partida 17 digituko multzo batez osatuta dago, eta horiek, aldi berean, 8 taldetan zatitzen dira.

**- A Taldea:**

Eskeman errepresentatutako partidaren A taldeko digitua, partida-motaren adierazlea izango da eta balio hauek hartuko ditu:

1. Jadaneko ekitaldiko eta bere kreditu txertatuetako gastu-eragiketak.
2. Aribideko ekitaldiko sarrera-eragiketak.
3. Gastu-gerakinak (aurreko ataletan definitutako terminoetan).
4. Sarrera-gerakinak.
5. Etorkizuneko ekitaldietako gastu-eragiketak.
6. Partida loteslea.

**- B Taldea:**

Digitu hauek, gastua (edo sarrera) egotzi behar zaioneko Departamentu kudeatzailearen kodea bilduko dute.

**- C Taldea:**

Digitu hauek sailkapen organikoaren garapen handiago baterako erreserbatuta daude.

Garatu beharreko estruktura organikoa, eta organo kudeatzaile bakoitzeko aurrekontuaren arduraduna, aurrekontua gauzatzeko arau honen I. eranskinean ageri direnak dira.

**- D Taldea:**

3 digituko talde hau gastuaren sailkapen ekonomikorako eta sarrera-talderako erreserbatuta dago.

Horrela, lehen digituak kapitulua (sarrera edo gastuena) islatuko du. Lehen eta bigarren digituek, elkarrekin, artikulua (sarrera edo gastuena) adierazten dute. Hiru digituek, elkarrekin, gastuen kontzeptu ekonomikoa edo, hala badagokio, sarrera-taldea errepresentatzen dute.

**- E Taldea:**

Bi digituko talde hau sailkapen ekonomikoaren garapen handiagoa behar den kasuan soilik erabiliko da. Sarrera-kontzeptuaren azken bi digituak ere jasotzen ditu.

**- F Taldea:**

3 digituko talde hau gastu programaren sailkapenerako erreserbatzen da, eta lehenak Gastu-arloa adieraziko luke. Gainerako bi digituak gastu programaren garapen handiago batera destinatzen dira.

**- G Taldea:**

Bi digituko talde hau gastu programaren garapen handiagoa behar den kasuan soilik erabiliko da.

Sarrera-partida bat izanez gero, azken bi talde hauek hutsik utzi beharko lirateke.

Garatu beharreko estruktura programatikoa aurrekontua gauzatzeko arau honen II. eranskinean ageri dena da.

**- H Taldea:**

Azken bi digituek partidaren jatorrizko urtea adierazten dute. "00" balioak hartuko lituzke jadaneko ekitaldiko aurrekontuaren partida bat izanez gero. Gainerako kasu guztietan, hots, gerakin eta etorkizuneko ekitaldietako partidetan, gerakinaren jatorrizko urtea edo gastu-konpromisoa burutzen deneko hurrengo urtea jasoko luke.

Lehen hondartzat hartzen zenak orain lehen digituaren (partida motaren adierazlea) eta 2 azkenen (jatorrizko urtearen adierazleak) ezaugarriak eramango dituela esan behar da.

**7. artikulua.- Lotespen juridikoak.**

1.- Aurrekontu-kredituek, izaera adierazgarria dutelarik eta gastuen egoera-orrian hauek azaltzen duten desagregazio maila kontuan izan gabe, izaera mugatzailea eta loteslea izango dute hurrengo puntuan ezartzen den lotespen juridiko mailaren arabera.

2.- Lotespen juridikoaren mailak honako hauek dira:

Pertsonal-gastuak (I Kapitulua)

Kapitulu mailako lotespena.

Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan (II Kapitulua)

a) Gastu Programari dagokionez, Gastu-arloa.
b) Sailkapen ekonomikoari dagokionez, kapitulua.
c) Sailkapen organikoari dagokionez, departamentu bakoitzeko sekzioa.

Finantza-gastuak (III Kapitulua) eta Finantza-pasiboak (IX Kapitulua)

Gastu-arlo mailako lotespena

Transferentzia arruntak (IV Kapitulua)

a) Gastu Programari dagokionez, Gastu-arloa.
b) Sailkapen ekonomikoari dagokionez, kapitulua.
c) Sailkapen organikoari dagokionez, departamentu bakoitzeko sekzioa.

Inbertsio errealak (VI Kapitulua)

a) Gastu Programari dagokionez, Gastu-arloa.
b) Sailkapen ekonomikoari dagokionez, kapitulua.
c) Sailkapen organikoari dagokionez, departamentu bakoitzeko sekzioa.

Kapital-transferentziak (VII Kapitulua)

a) Gastu Programari dagokionez, Gastu-arloa.
b) Sailkapen ekonomikoari dagokionez, kapitulua.
c) Sailkapen organikoari dagokionez, departamentu bakoitzeko sekzioa.

Aktibo finantzarioak (VIII. Kapitulua)

a) Gastu Programari dagokionez, Gastu-arloa.
b) Sailkapen ekonomikoari dagokionez, kapitulua.
c) Sailkapen organikoari dagokionez, departamentu bakoitzeko sekzioa.

3.- Nolanahi ere, izaera mugatzailea eta loteslea izango dute Gastuen Egoera-orrian agertzen direneko desagregazio mailarekin:

a) 16. artikuluan ezarritakoari jarraiki zabalgarritzat deklaratutako kredituak, 1. kapituluenak izan ezik.

b) Urte anitzeko konpromisoko kredituak.
c) Aurreko ekitaldietatik datozen kreditu txertatuak.
d) Aldi baterako petsonalaren kreditu globala.

4.- Baldin eta, aurrekontuan ezarritako lotura-mailaren barruan kontzeptu bat edo gehiagotarako zuzkidura badelarik, kapitulu bereko beste kontzeptu edo azpikontzeptu batzuei gastuak inputatu nahi bazaizkie eta haien kontuak gastu publikoen kontabilitatean irekiak ageri ez badira zeren aurrekontuan zuzkidurarik ez dutelako, kasu horietan ez da beharrezkoa izango aldez aurretik kreditu-transferentzia egitea, baina kontzeptu horien kargura tramitatzen den lehen dokumentu kontableak (B, BX edo BXA) ikusteko moduko lekuan agerrarazi beharko du zertzelada hori, honako hau dioen diligentzia baten bitartez: «kontzeptuari inputaturiko lehen operazioa».

**8. artikulua.- Lotespen juridikoaren ondorioak.**

Gastuaren kontrol kontu-hartzailea, lotespen mailak definitutako mugarekiko burutuko da. Sarreren kontabilitate eta kontrola azpikontzeptu mailan burutuko da.

## II. KAPITULUA - KREDITU-ALDAKUNTZAK

**9. artikulua.- Kreditu-aldakuntzei buruzkoa.**

1.- Behar adinako aurrekontu-krediturik izan gabe lotespen juridikoaren maila gainditzen duen gastu bat burutu behar denean, kreditu-aldakuntzei buruzko espediente bat tramitatuko da Kapitulu honetan erregulatutako berezitasunei loturik.
2.- Kredituak aldatzeko espedienteak erregularki hiru hilean behin tramitatuko dira, jarraian seinalatzen diren datetan. Hala ere, Alkatetzak, beharrezkotzat jotzen duenean, eskatu ahalko du ohiz kanpoko izaerarekin espediente bat prestatzeko.

> Martxoaren 31(e)an.
> Ekainaren 30(e)an.
> irailaren 30(e)an.
> Abenduaren 14(e)an.

3.- Azaroaren 15ean amaituko da azken kreditu gehigarriak sortzeko muga.
4.- Kredituak aldatzeko proposamen orok, aldakuntzak ukitutako Gastu programa, sekzio eta partida azaldu beharko ditu espresuki. Dagokion proposamenak, aldakuntza frogatzen duten arrazoiez gain, hurrenez hurreneko gastu programen exekuzioan izango duen eragina, bai burutu beharreko ekintzetan, bai lortu beharreko helburuetan, adierazi beharko du, bai eta proposatzen den igoera finantzatu behar duen baliabide edo errekurtsoa ere.
5.- Kontu-hartzailetzak, kreditu-aldakuntzei buruzko espediente ororen berri emango du.
6.- Osoko Bilkurak onetsitako kreditu-aldakuntzak exekutiboak izango dira onespen erabakia hartzen denetik. Osoko Bilkurari, onetsitako aldakuntzen berri eman beharko zaio.
7.- Ez da kreditu-aldaketatzat joko, kontabilitateko doiketatzat baizik, lotura juridikoko poltsa baten barruan kontu-sail bat sortzea, baldin eta, haren zenbatekoa aldatzen ez delarik, egindako gastuari buruz informazio gehiago ematen badu eta/edo zerbitzuen kostuen inputazio hobea ematen badu.

Era berean, 6., 7. eta 8. kapituluetan ere sortu ahalko dira kontu-sailak, jarduketak Aurrekontuan aurreikusitakoaz bestelako era batean egiteko, baina helburu berberarekin, eta aurrekontuko zuzkidura birdefinitutako kredituen bidez jasoko dute.

**10. artikulua.- Kreditu-transferentziak.**

1.- Gastuen aurrekontuaren aldakuntza bat gertatzen denean, eta aldakuntza horrek, aurrekontuko kopurua aldatu gabe, kreditu baten guztizko edo zatizko zenbatekoa lekuz aldatzen duenean lotura juridikoko hainbat mailari dagozkien kontu-sailen artean, edota kreditu orokorretik eginiko transferentzien bitartez, kreditua transferitzeko espediente bat onetsiko da.
2.- Transferentzia guztiak, gastu-programa beraren barruan eginak badira, inbertsio errealetarako aurreikusitako kontsignazioak gutxitzen dituztenak barne, bai eta diru-laguntza izengabeei buruzko kredituak aldatzen dituztenak ere, Korporazioko presidentearen eskumenekoak izango dira.

Gastu-programa ezberdinen arteko transferentziak entitateko presidenteak onetsiko ditu baldin eta jatorriko eta helburuko programetako aldaketen bariazio metatuak haientzat aurreikusitako hasierako kontsignazioen % 25a gainditzen ez badu, aurreko paragrafoan aipatu ditugun inbertsio errealetarako kontsignazioak barne.

Gainerakoetan, erabakia udalbatzak hartuko du.

3.- Kreditu zabalgarrien zuzkidura gehitzeko kreditu globaletik egindako transferentziak, Udal Arau honetako 16. artikuluan xedatutakoaren arabera arautuko da.

4.- Kreditu-transferentziak ondorengo mugei lotuta egongo dira:

a) Transferentzia erregimenaren edo kreditu gehigarrien arabera erantsitako ordainketa krediturik ez dute gutxituko, ez eta udal arau honen 19.4. artikuluan xedatutakoaren arabera dagokien konpromiso-kreditua gehituta ikusi dutenik ere.

b) Bestelako transferentzien ondorioz gutxitu diren kredituen gehikuntzarik ez dute ezarriko.

c) Ezin dituzte zabalgarritzat hartzen diren kredituak gutxitu, kalifikazio hori galduz, beraz, eta geroago ezin gehitu dira.

5.- Ondorengo kreditu-transferentziak, ez dira aurreko atalean aurreikusitako mugei lotuta egongo:

a) Pertsonal-gastuen lehen kapituluko kreditu desberdinei dagozkienak.
b) Gastuen kontabilitate-egozketa egoki bat lortzeko beharrezkoak diren egokitzapen teknikoen ondorio direnak.
c) Korporazioaren Udalbatzarrak onetsitako berrantolaketa administratiboen ondoriozko transferentzien kasuan.

6.- Transferentziek konpromiso-kredituei dagozkien ordainketa-kredituak gutxitzen dituztenean, kontratuen zenbatekoa gehitzeko baimena eman ahal izango da, arau honetako 19.4. artikuluan aurreikusita, gutxitutako zenbatekoa kenduz.

Hala ere, aurreko atalak aipatu dituen transferentziak ordainketa-kredituaren zuzkidurako zenbateko osoari badagozkio, konpromiso-kreditua, ordainketa kreditua beraren zatia dela, baliorik gabe geldituko da berez.

7.- Konpromiso-kredituei dagozkien ordainketa kredituen zuzkidura handitzen duten transferentziek honako ondore hauetako bat sortuko dute:

a) Konpromiso-kreditua transferitutako zenbatekoan gutxitu.
b) Konpromiso-kredituaren zenbatekoak aurreko kopuruari eutsi.

Aurreko a) kasuan, arau honetako 19.4. artikuluan aurreikusitako gehikuntzarako baimena eman ahal izango da, konpromiso-kredituaren zuzkidura berriaren gainean aplikatuta, b) kasuan, eta jasotako gehikuntza manu horrek aipatutako baimenaren mugak zehazteko konputatuko da.

LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

**11. artikulua.- Kreditu Gahikuntza.**

1.- Ekitaldian lortutako sarrerak, Udal Entitatearen Administrazioaren Aurrekontuetako sarreren egoeretan aurreikusi ez zirenek, edota berauetan aurreikusitako zenbatekoa baino handiagoa dutenak, ondorengo eragiketetatik eratorriak, aurrekontu kredituak sortu ahal izango dituzte dagokien Gastuen Egoeran:

a) Pertsona fisiko edo juridikoen ekarpenak edo ekarpenak egiteko konpromiso tinkoa, udalarekin batera beren izaeragatik berauen hurrenez hurrenezko xede edo helburuetan bilduriko gastuak finantzatzera zuzenduak.
   Beharrezkoa izango da sarrera egina izatea edo, halakorik ezean, espedientean ekarpena emateko erabaki formala agertzea.
b) Ondare-ondasunen besterenganaketa, eskubidearen aintzatespenari ekitea beharrezkoa izango delarik.

c) Zerbitzugintza, honen bidez prezio publikoak likidatu direnean, egindako aurrekontuaren sarrerak baino kopuru handiago batez.
   Kasu honetan, kredituak sortzearen arabera beren kreditua igo deneko partidetan aplikatutako gastuen erabilgarritasuna, eskubideen bilketa efektiboaren baldintzapean geratuko da.

d) Maileguen itzulketa, hala badagokio.
e) Beste erakunde publiko batzuen aurrekontu orokorren kargura jaso edo pertsona edo erakunde pribatuek ematen dituzten beste ekarpen batzuk.
f) Aribideko aurrekontuaren zor ez diren ordainketen itzulera, hauen kobrantzak kreditua birjarri ahal izango duelarik dagokion kopuruan.

2.- Udalaren aldeko ekarpen bat egiteko konpromiso tinkoa ezagutzen denean, edota 1. puntuan deskribatutako sarreren bat Aurrekontuan aurreikusitakoa baino kopuru handiago batez biltzen denean, gastuen egoera-orriko hurrenez hurreneko partidetan eskuragarriak diren kredituak sarrera sortzen duten jardueren garapenean beharrezkoa izango den gastu gehikuntza finantzatzeko nahikoak ote diren ebaluatuko da.

Aipatutako kreditu-bolumena nahikoa izanez gero, ez da bidezkoa izango kreditu-sorkuntzari buruzko espedientea tramitatzea.

3.- Pertsona natural edo juridikoen ekarpen edo konpromisoetan dautzan sarrerak (a apartatua) edo beste herri-ente batzuen aurrekontu orokorretatik edo pertsona nahiz entitate pribatuetatik datozenak (e apartatua) hitzartutako gastu edo proiektu jakin batzuk burutu eta finantzatzeko aplikatu beharko dira.

Ondarezko ondasunen salmentatik (b apartatua) eta maileguen itzulketa edo amortizazio aurreratutik (d apartatua) datozen sarrerak, kasu orotan, kapital eragiketak (inbertsioak) finantzatzeko erabili beharko dira.

4.- Habilitazioak Korporazioko lehendakariak baimenduko ditu lortutako diru-sarrerek izaera finalista dutenean; eta ubalbatzarrak gainontzeko kasuetan.

5.- Krediturik gaitu ahal izango da partida zabalgarrietan eta kreditu globalean, likidatutako tributu sarrera berri edota handiagoez baliatuz.

**12. artikulua.- Kreditu-gerakinen txertaketa.**

1.- Urtarrilean zehar, eta aurreko ekitaldiari dagokionez, kontu-hartzailetzak ondorengo hauek barne hartuko dituen egoera-orria landuko du:

a) Baimendutako transferentzia jasan duten kredituak eta emandako kreditu gehigarriak, bi kasuetan eragiketa ekitaldiaren azken hiruhilekoan egin bada.
b) Erabilitako gastuei dagozkien kredituak, hauentzat justifikaturiko arrazoiengatik obligaziorik hartu ezin izan bada.
c) Gaitutako kredituak eta ukitutako sarrerei loturiko bestelako kredituak.
d) Kapital-eragiketengatiko kredituak.

2.- Kreditu gerakinak txertatu ahal izateko, horretarako nahikoa finantza baliabideak egon beharko dira.

3.- Orokorrean, Aurrekontuaren likidazioa gerakinen txertaketaren aurretik emango da. Dena den, ondorengo kasuetan aipatutako aldakuntza Aurrekontuaren likidazioaren aurretik onets daiteke:

a) Ukituriko sarrera zehatzen bidez finantzaturiko kreditu-gastuak direnean.
b) Aurreko ekitaldian esleitutako kontratuei edota premiazko gastuei dagokienean, aurretik Kontu-hartzailetzak txertaketak defizita sortuko ez duela dioen txostena luzatuko duelarik.

4.- Txertatzen diren kredituak txertaketa gertatzen den ekitaldi berean gauzatu beharko dira, hots, ekitaldi horretan bertan iritsi beharko da obligazioa onartzeko fasera. Halaber, debekatu egiten dute elkarren segidako txertaketak egitea, salbu eta sarrera finalistekin finantzatzen diren kapital-eragiketen kasuan.

5.- Korporazioko Presidenteari dagokio gerakinen txertaketaren onespena.

**<u>13. artikulua.- Deuseztapenagatiko bajak.</u>**

1.- Alkateak kreditu baten saldoa zerbitzuari kalterik eragin gabe murriztu edo baliogabe daitekeela baderitzo, deuseztapenagatiko baja-espedientea irekitzea agindu ahal izango du.

2.- Onespena Korporazioko Udalbatzarrari dagokio.

**<u>14. artikulua.- Kreditu Gehigarriak.</u>**

1.- Ekitaldian hurrengo urtera arte atzeratu ezin den gastu bat burutu behar bada eta honentzako krediturik ez bada, edota egonez gero aski eza eta ez zabalgarria bada eta aurretik erregulaturiko aldakuntzen erregimenaren indarrez betetzea ezinezkoa suertatzen bada, aurrekontuaren aldakuntza kreditu gehigarri baten bitartez onetsi ahal izango da.

2.- Kreditu gehigarriari buruzko espedientea, Kontu-hartzailetzak txostena eman ondoren, izapidetuko da, gutxienez, honako agiri hauek eduki behar dituelarik:

a) Gastua beharrezkoa edo presazkoa delako froga, udalburuak emana.
b) Proposatutako gastua finantzatu behar duen baliabidearen eta behar bezala xehekatutako aurrekontu partida gehitu gaiaren zehaztapena.

3.- Kreditu gehigarriak puntu honetan zerrendatzen diren baliabide bat edo zenbaiten bitartez finantzatuko dira:

a) Diruzaintzako Gerakin likidoaren bitartez.
b) Aurrekontuaren kontzepturen batean aurreikusi ez ziren likidatutako sarreren edo aurreikusitakoak baino handiagoen bitartez.
c) Konpromisorik gabeko aurrekontuaren bestelako partiden kreditu-deuseztapenak edo bajen bitartez, euren zuzkidurak zerbitzuari kalterik eragin gabe murriztu edo baliogabe daitezkeela irizten bada.

d) Salbuespen gisa, espresuki beharrezkoak eta presazkoak deklaratutako operazio arrunten ziozko gastu berriak edo handiagoak finantzatzeko erabil daitezkeen baliabidetzat erabaki ahalko dira kredituko operazioetatik datozenak, betiere honako baldintza hauek batera betetzen badituzte:

- ✔ Urteko zenbateko osoa ezin da izan erakundearen aurrekontuko eragiketa arrunten ziozko baliabideen %5 baino gehiago.
- ✔ Erakundearen finantza zama osoa, proiektupeko eragiketetatik datorrena barne, ez da baliabide horien %25 baino handiagoa izango.
- ✔ Eragiketak hitzartu dituen udala eraberritu baino lehen kitatu behar dira.

Erabazpen horrek, Erregimen Lokaleko Oinarriei buruzko apirilaren 2ko 7/85 Legeko 47.3. artikuluan ezarritako quoruma beharko du.

**15. artikulua.- Kreditu Gehigarrien espedienteen tramitazioa.**

1.- Udal-batzarrak onetsiko du espedientea, eta jendaurreko informazio, erreklamazio eta behin-betiko argitarapen tramiteak beharrezkoak dira.
2.- Likidatzen den ekitaldian kreditu faltagatik kontabilizatu ezin izan diren gastuak izateagatik sortzen diren kreditu gehigarriak onestea, baldin eta Altxortegiko Geldikinarekin finantza badaitezke 59 . artikuluan adierazten diren terminoetan, alkatearen eskumena izango da.

Kasu honetan, onespen hori ez da foru-arauko 15., 17. eta 18. artikuluetan ezarritako ondorengo tramitazioari loturik egongo.
3.- Alkatetzaren berehalako jarduketa errekeritzen duten lazeri publikoko kasuetan edota antzeko aparteko izaera duten balizkoetan, Alkatetzak interes orokorra zainduz, aipatutako egoerei aurre egiteko beharrezko kreditu gehigarriak onartu ahal izango ditu, Osoko Bilkurari hartutako premiazko jarduketen berri emanez.

**16. artikulua.- Kreditu zabalgarrien espedientea.**

1.- Zabalgarri kalifikazioa jasoko dute, printzipioz izaera mugatzailea izanik ondorengoen arabera kopuruz gehi daitezkeen ordainketa-kredituak:

a) Honi buruz indarrean dauden xedapenei jarraiki zuzenean dagokion kredituari edo kredituei lotutako sarreren bilketa efektiboa.
b) Definitutako kreditu globalaren xedapenak.

2.- Aurrekontuan barne hartutako ondorengo kredituak, zabalgarritzat hartuko dira:

a) I Kapituluko gastuak Arau honetako 34. artikuluan ezarritako mugapenez.
b) Interesak, zenbateko nagusiaren amortizazioa eta zorduntzezko gastuak ordaintzeko erabilitako kredituak.
c) Berariazko dirulaguntzak espresuki jasotzearen ondoriozkoak.
d) Udaleko zerga, tasa eta kontribuzioen administrazio eta kobrantzak eska ditzakeen agiri eta baliabide guztiak ordaintzera destinatutakoak.
e) Udaleko pertsonalari ordainsarien aurrerakinak ematera

f) Berandutze-interesak eta finantza-kontuen ondorio diren gastuak ordaintzera zuzendutakoak.

g) Babes Ofizialeko Etxebizitzak erostera xedatzen direnak, haiek alokairuko erregimenean adjudikatzeko, Zabaleta-Berrin Udalaren titulartasunekoak diren partzelen lizitazioan lortzen diren diru-sarrerei afektatuak.
h) Zabaleta-Berrin lokal soziala habilitatzera xedatzen direnak, Zabaleta-Berrin Udalaren titulartasunekoak diren partzelen lizitazioan lortzen diren diru-sarrerei afektatuak.
i) Defentsa juridiko-gastuetara zuzentzen direnak (226.04).
j) Zerbitzu Mankomunatuetakoak, Partzuergoetakoak, IZFEkoak edo beste entitate batzuetakoak izatea dagokion udal-akordioaren bitartez erabakia izan bada, kide izatearen ondorioz hartutako konpromisoei erantzuteko behar diren kredituak.
k) Etxean Laguntzeko Zerbitzuaren, etxebizitza tutelatuen eta interbentzio sozioedukatibo eta psikosozialeko programen zerbitzu azpikontratatuei erantzutera xedatutako kontu-sailak, zerbitzuaren eskari handiago baten ondorioz haiek handitu beharra balego.
l) “Gizarteratzea babesteko udalaren diru-laguntzak” kontu-sailaren konpromisoei erantzutera xedatutako kredituak, eskari handiago baten ondorioz haiek handitu beharra balego.

3.- Kreditu zabalgarriak aurreikusitako kreditu-gehigarrien erregimenaren bidez hedatuko dira eta onespena Korporazioko Presidenteari dagokio.

LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

# *II.TITULUA.- GASTUEI BURUZKOA*

## I. KAPITULUA - ARAU OROKORRAK

**17. artikulua.- Aurrekontu-urtekoa.**

1.- Gastuen egoera-orriko kredituen kargura ekitaldian burututako gastuen ondoriozko obligazioak baino ezin izango dira hartu.
2.- Salbuespen gisa, ondorengo obligazioak onartuak izateko unean indarrean dagoen aurrekontuaren kredituei aplikatuko zaizkie:

a) Pertsonalari zuzendutako atzerapenak likidatzearen ondoriozkoak, hauek onestea Alkateari dagokiolarik.

b) Aurreko ekitaldietan behar bezala hartutako gastu-konpromisoen ondoriozkoak, kasu honetan obligazioak onartzea 26. artikuluan aurreikusi bezala gauzatuko delarik.
c) Aurretik onetsi gabeko gastu bat burutzearen ondorioz aurreko ekitaldietatik datozenak, hauek onestea Osoko Bilkurari dagokiolarik.

**18. artikulua.- Kreditu orokorra.**

Aurrekontuko Gastuen Egoeraren barruan ordainketa kreditu global bat barne hartu ahal izango da beste ordainketa kreditu batzuen zuzkiduretako askieztasunei edo zuzkidurarik ez duten premia berriei aurre egiteko, bai eta Arau honetan xedatutakoaren arabera zabalgarritzat kalifikatutako kredituak finantzatzeko ere. Honela eratutako kreditu globalaren zuzkidurak ez du Aurrekontuko ordainketa kredituen guztizko zenbatekoaren %5a gaindituko, kreditu globalaren beraren zuzkidura ere guztizko horren barne egonik.

Kreditu globala honako prozedura honi loturik geratzen da:

a) Ezingo da gasturik baimendu zuzenean aipatutako kreditu globalaren aurka.
b) Kreditu globala ezin da inolaz ere gehitu, gero udalbatzak baimendu eta aldaketa onetsi ezean, beti ere hasierako ordainketa-kredituen %5(e)ko muga errespetatzen dela (1.407.799,70€).

c) Arau honen 10. artikuluko xedapenak ez zaizkie kreditu globaletik burututako transferentziei aplikatzekoak izango.
d) Kreditu globalaren erabilerak Korporazioaren Presidenteak baimendu beharko ditu.

Gainera, kreditu globala ondoko afektazio hauei lotua geratzen da:

a) Pertsonal-kreditu globalak, 692.021,90 euroko kopururaino zuzkituak, 1. kapituluaren edozein gasturi afektatuak geratzen dira.
b) Kreditu globalaren gainerakoa 0,00 eurorekin zuzkitua dago, eta edozein kapitulutako kredituak gehitu ahalko ditu.

**19. artikulua.- Konpromiso-kredituak.**

1.- Konpromiso-kredituen orria ekitaldian zehar konprometitu ahal diren urte anitzeko gastu guztiek osatzen dute eta hura onesten denean beraiek bideratzeko baimena egongo da, ezarritako baldintzetan.

Etorkizuneko ekitaldi bakoitzerako indarreko konpromiso-kredituen zenbateko metatua ezin da izan erakundearen likidatutako azken ekitaldiko eragiketa arrunten ziozko baliabideen %25 baino gehiago, dosier honen 5.1. atalean azaldutako txostenetik muga txikiagoa sortu ezean.

Konpromiso-kredituak bestek finantzatzen baditu, finantzaketaren zenbatekoa ez da konputatuko gastu gisa aurreko paragrafoan aipatutako mugen ondoreetarako.
2.- Konpromiso-kredituen orriaren barruan, ez dira pertsonalari, finantza-zamei eta zorpetzetik sortzen diren amortizazioei dagozkien gastuak, ondasun higiezinen errentamenduari dagozkion konpromisoak, iraunkorrak direnak eta segidako traktukoak sartuko.

3.- Aurrekontuek ezin dute konpromiso-krediturik bildu, baldin eta beraien gauzatzea ekitaldian bertan hasten ez bada; hori dela eta, ordainketa-kreditu egokiak izan behar dituzte.
4.- Barne hartutako konpromiso-kredituak geroztiko adjudikazioari loturiko eragiketei eta, beraz, aurrez zehaztasunez finkatu ezineko kopurukoak badira, hurrenez hurreneko kontratuak hasiera batean aurreikusi eta/edo onetsitako kopuruaren gaineko %20ko gehikuntzarekin eta jatorriz aurreikusitakoa urtebetez gaindi dezan denboraldirako formalizatzeko baimena ematen zaio Alkateari.

Ondorio horietarako, eta gehikuntza zenbateko bereko beste konpromiso-kreditu batzuen gutxipen korrelatiboaren aurka burutzen ez bada bederen, aldez aurretik udalaren finantza-baliabideak konpromiso-kredituen zenbateko berriari aurre egiteko behar adinakoak ote diren eta arestian ezarritako gehienezko muga errespetatzen ote den aztertu beharko da.

5.- Ondasun higiezinen edo ekipoen errentamendu kontratuen kasuan, bai eta hornidura, asistentzia tekniko, zerbitzugintza eta mantentzioko obren exekuzioaren kasuan ere, Kontu-hartzailetzak txostena eman beharko du etorkizuneko ekitaldietako estaldura zenbatespenari buruz.

**20. artikulua.- Kreditu ez-erabilgarriak.**

1.- Baldin eta aurrekontua gauzatzearen ondorioz oreka ekonomiko-finantzarioa arriskuan jar dezaketen egitateak daudela gertatzen bada, kreditu jakin batzuk ez-erabilgarri deklaratu ahalko dira. Dagokion proposamenak, aldakuntza frogatzen duten arrazoiak eta hurrenez hurreneko gastu programen exekuzioan izango duen eragina, bai burutu beharreko ekintzetan, bai lortu beharreko helburuetan, adierazi beharko du.

2.- Kredituen ez-erabilgarritasuna deklaratzea, bai eta haiek berriro erabilgarri jartzea ere, alkateari dagokio.

3.- Ez-erabilgarri deklaratutako saldoaren kargura ezin izango dira gastu-baimenak, ez eta transferentziak erabaki eta bere zenbatekoa ezin izango da hurrengo ekitaldiko aurrekontuan barne hartu.

## II. KAPITULUA - AURREKONTU-KUDEAKETA

**21. artikulua.- Kreditu-atxikipena (KAT).**

1.- Kreditua atxikitzea ekintza bat da, zeinaren bidez egiten baita, aurrekontuko kontu-sail bati buruz, ziurtagiri bat ezen badela saldo nahikorik gastu bat edo kreditu-transferentzia bat baimentzeko, zenbateko jakin batez, eta kopuru bereko erreserba bat egiten da gastu edo transferentzia horretarako.

2.- Arlo kudeatzaileko zinegotzi arduradunak aurrekontu-partida batean kreditu-atxikipena eska dezake, gastuaren zenbatekoak edota espedientearen prestakuntzaren konplexutasunak hala eskatzen badu.

3. - Alkateak, Ekonomia, Ogasun eta Ondare Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, kredituak atxikitzeko agindua emango du edo gastuari eustea bermatzeko beste neurri prebentibo batzuk aginduko ditu, betiere aurrekontua gauzatzeak halakorik aholkatzen badu.

Adierazitako kredituak askatzeko, haiek atxikitzeko aurreikusitako izapide berak egin beharko dira.

**22. artikulua.- Gastuaren kudeaketaren faseak.**

Udalaren gastuen aurrekontuaren kudeaketa ondorengo faseetan burutuko da:

a) Gastu-baimena (B).
b) Gastu-erabilera (E).
c) Obligazio onartuak (O).
d) Ordainketa-agindua (OA).
e) Ordainketa (OR).

LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

**23. rtikulua.- Gastu-baimena (B)**

1.- Baimena ematea zenbateko zehatz edo gutxi gora beherako batez gastu bat burutzea erabakitzen duen egintza da, aurrekontu-kreditu baten osotasuna edo zati bat horretarako gordez.

Gastuak baimentzeak, oro har, eskakizun izango du espediente bat eratzea, eta hari erantsiko zaio gastua baimentzeko kontabilitateko "B" dokumentua.

Kontratazio espediente baten xede izango diren gastuak direnean, espedientearen hasieran "B" agiria tramitatuko da, honen zenbatekoa proiektu edo aurrekontuaren kostuaren adinakoa izango delarik.

3.- Korporazioak hartzeko konpromisoei erantzuten dieten gastuek, kreditu-atxikipena sortuaraziko dute zenbatetsitako zenbatekoaz.

Talde honetakoak dira, besteak beste, zehazten direnak:

- ✔ 22707 kontzeptuko kredituak (Kontratazioak)

**24. rtikulua.- Gastu-erabilera (E).**

1- Erabilera aldez aurretik baimena jaso duten eta zenbatekoa eta baldintzak guztiz finkatuta dituzten gastuak pertsona edo entitate onuradun edo adjudikatario baten alde egitea erabakitzen duen egintza da.

Gastuak erabiltzeak, oro har, eskakizun izango du espediente bat eratzea, eta hari erantsiko zaio gastua baimentzeko kontabilitateko "E" dokumentua, behin adjudikatarioa eta zenbateko zehatza jakindakoan.

2.- Hurrenez hurren, eta obra, zerbitzugintza edo hornikuntza efektiboki gauzatzen den neurrian, dagozkien "O" agiriak tramitatuko dira.

**25. artikulua.- Baimena eta Erabilera (BE).**

1.- Espedientea abiatzean zenbateko zehatza eta jasotzailearen izena jakinak badira, kontabilitateko faseak bateratu egingo dira "BE" dokumentuaren bitartez.

"O" dokumentuen kasuan, kontratatutako obra burutzea, zerbitzua ematea edo ondasuna eskuratzea efektiboki geratutakoan tramitatuko dira, behin faktura aurkeztutakoan eta aldez aurretik zerbitzuburuak adostasuna emanda.

2.- Korporazioak legez hartutako konpromisoei erantzuten dieten gastuek, "BE" agiriaren tramitazioa sortaraziko dute ekitaldiari egotz dakiokeen gastuaren zenbatekoaz.

Talde honetakoak dira, besteak beste, zehazten direnak:

- ✔ 209 kontzeptuko kredituak (Errentamenduak)
- ✔ 211.01 kontzeptuko kredituak (Jabekideen Kuotak)
- ✔ 212 - 215 kontzeptuko kredituak (Mantentzioa)
- ✔ 22201 kontzeptuko kredituak (Telefonozko Komunikazioak)
- ✔ 22202 kontzeptuko kredituak (Harpidetzak)
- ✔ 221 kontzeptuko kredituak (Hornikuntzak: argindarra, gasa, ura...)
- ✔ 224 kontzeptuko kredituak (Aseguruak)
- ✔ 225 kontzeptuko kredituak (Tributuak)
- ✔ 227 kontzeptuko kredituak (Segidako traktuko kontratuak: garbiketa, zabor-bilketa, zerbitzuak eta abar).

- ✔ Itundutako maileguen interesak.
- ✔ Itundutako maileguen amortizazio kuotak.
- ✔ Eskuraketak edo zuzeneko kontratazioaren xede diren zerbitzuak.
- ✔ Konpromiso-gastuak, konpromisopean hartutako urtekoaren zenbatekoaz.

"O" dokumentuak kontratatutako obra burutzea, zerbitzua ematea edo ondasuna eskuratzea efektiboki geratutakoan tramitatuko dira, eta horretarako aski izango da fakturak edo banku-kontuan egindako zordunketa aurkeztea. Zerbitzuburuak gastuari adostasuna ematea a posteriori egin ahalko da; hark, kasua hala bada, eta faktura ezarritako epeetan ordaindu aurretik, Kontu-hartzailetzari ohartarazi beharko dio harekin ados ez dagoela.

**26. artikulua.- Obligazio onartua (O).**

1.- Obligazioa onartzea udalari eska dakiokeen kreditu bat badela aitortzen duen egintza da, kontratuaren xede den prestazioa edota ezarritako baldintzak bete direla behar bezala akreditatu delako; eta onartutako faktura edo dokumentua onestearekin gauzatzen da.
2.- Alkateak obligazioak onartzearen eskuduntza du, beti ere legalki hartutako gastu-konpromisoen ondoriozkoak badira
3.- Obligazioen onarpena aurreko ekitaldietan burutzeko baimenik ez zuen gastu bat efektiboki burutzearen ondoriozkoa bada, euren onespena Osoko Bilkurari dagokio.

**27. artikulua.- Baimena, Erabilera eta Obligazioa (BEO).**

1.- Gastuaren izaeragatik Baimentzea, Erabiltzea eta Obligazioa Onartzea aldi berean gertatzen direnean, kontabilitateko "BEO" dokumentua tramitatuko da.
2.- Ondasun jakin batzuen eskuraketek eta kontratazio prozesurik behar ez duten beste gastu batzuek, zeinetan obligazioaren galdagarritasuna berehalakoa izan baitaiteke, "BEO" agiriaren tramitazioa sortaraziko dute.

Ondokoak dira talde honetakoak:

- ✔ Material txikien eskuraketa.
- ✔ Dietak.
- ✔ Lokomozio gastuak.
- ✔ Berandutza-interesak.
- ✔ Erregaiak
- ✔ Bestelako finantza-gastuak.
- ✔ Funtzionarioentzako aurrerakin itzulgarriak.

**28. artikulua. - Gastuak onesteko eskumenak.**

1 - Indarrean dauden aurrekontu-kredituen mugen barruan, ezingo da inolako gasturik onetsi baldin eta aldez aurretik baimena eman ez badio organo eskumendunetako batek (zenbatekoaren arabera dagokionak).

2.- Gastua onestea honako hauei egokituko zaie:

a) Brigadetako kontramaisu edo langileburuei, funtzionamenduko gastu arruntetarako, 300,00 € gainditzen ez badute.
b) Zerbitzu bakoitzeko buruari:
    - Funtzionamenduko gastu arruntak, 3.000,00 € gainditzen ez badute.

Gastu horien tramitazioa honela izango da:

* Kontramaisuak eta/edo zerbitzuburuak pertsona edo entitate hornitzailearekin kontaktatuko du, zenbatekoa zehazteko.
* Kreditua izateari buruzko kontabilitateko txostenak emango dio amaiera gastua baimentzeko faseari.

Gainerako gastu-baimenak onesteko organo eskumenduna alkatea izango da, edo hala badagokio udalbatzarra, betiere dagokion baimentzeko prozeduraren bidez.

3.- Eduki ekonomikoko obligazioak sor ditzaketen egintza guztiak, 3.000,00 €-tik beherako zenbatekoa dutenak izan ezik, aldez aurretik Kontu-hartzailetzako Departamentuak fiskalizatu beharko ditu, eta, baliozkoa izango bada, nahitaez adierazi beharko du gastua zenbatekoa den, zein zerbitzutarako den, haren deskripzioa eta aurrekontuko zein kontu-saili inputatzekoa den.

3.000,00 €-tik beherako gastuek ez dute aldez aurretik fiskalizatua izan beharrik, alde batera utzirik beharrezkoa duen tramitazio administratiboa (eskaera-bonua, gastu-proposamena, kontabilitatearen aldeko txostena, etab.), baina kasu guztietan agertu beharko du gastua zenbatekoa den, zein zerbitzutarako den eta gastuaren deskripzioa, aurrekontuko kontu-sailen arabera.

4.- Oro har, eta behar bezala funtsatutako salbuespena izan ezik, erosketa edo hornidura arruntak eskari globalen bidez egingo dira (hornidura-kontratua), gutxienez urtebeterako kontsumoa behar bezala aurreikusita, kontrakoa justifikatuta ez badago, kalitatean eta prezioan dagozkien hobekuntzak lortzeko xedearekin.

**<u>29. artikulua.- Obligazioaren onarpenerako aski diren agiriak.</u>**

1.- **I. Kapituluko** gastuetan, erregela hauek hartuko dira kontuan:

a) Nominak "O" agiritzat hartuko dira.
b) Gizarte Segurantzaren kuotak dagozkien likidazioen bitartez frogatzen dira, "O" agiritzat hartuko direlarik.

2.- **II. Kapituluko g**astuetan, ondasun arruntetan eta zerbitzuetan, Gastuen Egoera-orriaren izaera orokorrean, faktura aurkeztu beharko da.

Kontratistek luzatutako fakturak Kontu-hartzailetza erregistroan aurkeztuko dira, bertan gutxienez ondorengo datuak adierazi beharko direlarik:

- ✔ Udalaren identifikazio argia (izena, IFK).
- ✔ Kontratistaren identifikazioa.
- ✔ Faktura zenbakia.
- ✔ Hornikuntzaren edo zerbitzuaren gutxieneko deskripzioa.
- ✔ Enkargua burutu zuen Zentro kudeatzailea.
- ✔ Gastu-espedientearen zenbakia, esleipenaren unean adierazitakoa.
- ✔ Gastu horren aurretik fakturatutako zenbatekoa.
- ✔ Kontratistaren sinadura.

Erregistro fakturak jasotakoan, bulego-kudeatzailera lekualdatuko dira, Zerbitzuburuak, edo bertan ez badago alkateak, adostasuna eman dezan, egintza honek zerbitzua edo hornikuntza kontratuaren baldintzei jarraiki burutu dela adieraziko duelarik.

Faktura hauek, adostasuna jaso ondoren, fiskalizatzeko eta kontabilizatzeko Fondo Kontu-hartzailetzara lekualdatuko dira, bertan organo eskudunen onespenera luza daitezkeen faktura guztien zerrenda burutuz.

Fakturak Kontu-hartzailetzak landutako zerrendan jasoko diren diligentzia eta sinaduraren bitartez baimenduko dira.

Obra ziurtagiriei dagokienez, hauei fakturak gaineratuko zaizkie, bi agirietan Zerbitzu Teknikoen adostasuna jasoko delarik.

Fakturen kobrantza ezingo da helbideratu, salbu eta gaur egun aukera hori lehendik baldin badaukate. Faktura helbideratuak eta energiaren hornidurei buruzkoak zuzenean tramitatu eta onetsiko dira, eta haiekiko adostasuna a posteriori egingo da.

Baldin eta jasotzen direnetik hasi eta hiru hilabeteko epean teknikari eskudunak ez badie espresuki adostasuna eman, hark adostasun tazitua eman diela ulertuko da.

3.- Finantza-gastuetan (**Gastuen Egoera-orriaren III eta IX Kapituluetan**) ondorengo erregelak hartuko dira kontuan:

a) Banku kontu batean kargu zuzena sortzen duten interes eta amortizazio gastuak frogatzeko, Kontu-hartzailetzak hauek finantza-taularekiko duten doikuntzari adostasuna eman beharko dio. Kontu-hartzailetzak "O" agiria tramitatuko du.

b) Frogapena konplexuagoa izango bada ere, bestelako finantza-gastuek ere ildo bera jarraituko dute, eta "O" agiria formalizatutako agirien kopiarekin edota berandutza interesen likidazioarekin jasan beharko delarik.

4.- Udalak ordaindu beharreko **transferentziak,** arruntak edo kapitalarenak izanik ere, erabakitzen direnean ekingo dio zerbitzu kudeatzaileak "O" agiriaren tramitazioari, beti ere ordainketa baldintza jakin batzuk betetzeari baldintzaturik ez badago.

Ordainketaren transferentzia baldintzaturik badago, "O" agiria tramitatzeko finkatutako baldintzak bete beharko dira.

5.- **Inbertsio-gastuetan** kontratistak faktura aurkeztu beharko du, batzuetan obra ziurtagiria gaineratuko zaio, aurreko 2. atalak adierazten duenari jarraiki.

6.- **Akzioen eskuraketak** ordaintzeko Korporazioaren eskutan hauek edota ordezkagiri baliagarriak izan behar dira.

7.- Pertsonalari zuzendutako **mailegu emakidak** direnean, Pertsonal-Zerbitzuak premiatuko du "BEO" agiriaren tramitazioa, interesatuaren eskaera eta pertsonalak emakida indarrean dagoen arautegiari lotzen zaiola kreditatzen duen diligentzia izango dira bere euskarriak.

**30. artikulua.- Ordainketaren agindua (OA).**

1.- Ordaintzeko agindua esaten zaio onartutako eta likidatutako obligazio bat ordaintzeko Diruzaintzari ematen zaion aginduari. Horretarako, dagokion ordainketa-agindua ("OA") jaulkitzen da.

2.- Alkateak udalaren ordainketa-aginduen eskuduntza du, dena den, indarrean dagoen arautegiari jarraiki delega dezake.

3.- Ordainketa-aginduak, orokorrean, Kontu-hartzailetzak landutako ordainketa-aginduen zerrendetan oinarriturik burutuko da. Ordainketaren izaerak edo premiak hala eskatzen badu, ordainketa indibidualki burutu ahal izango da.

**31. artikulua.- Ordainketa mota guztietarako irizpide orokorra.**

1.- Ordainketa (OR). Diruzaintzatik funtsak materialki edo birtualki irtetea gertarazten duen egintza da, eta zorraren kitatzea dakar. Arau orokor gisa, pagamenduak zorren antzinatasunaren arabera egingo dira.

Hala ere, Diru zainak ordainketa zerrendak Fondoen Erabilerarako Planari eta maileguek, pertsonal-gastuek bai eta aurreko ekitaldietan hartutako obligazioek duten beharrezko lehentasunari jarraiki burutuko ditu.

2.- Faktura oro Udal Kontu-hartzailetzaren bulegoetan faktura erregistratu den egunetik hasita 30 egunetako epean ordainduko da.

Aipatutako ordainketak hilabete bakoitzeko 10ean, 20ean eta 30ean batera burutuko dira, Alkatetzak aparteko arrazoiak direla medio, beste egun bat xedatzen duenean izan ezik.

3.- Egindako pagamenduen burutze materiala honako sistema hauen bidez akreditatuko da:

a) **Transferentzia bidezko pagamenduak**. Hori izango da pagamenduak egiteko sistema normala. Transferentziak hirugarrenak izendatutako kontu batean gauzatuko dira, eta gakodunen sinadurarekin autorizatuko dira. Baimentzen dituen zerrendan, gutxienez, datu hauek agertu beharko dira: banketxea, kontu-zenbakia eta noiz egina den.
b) **Txeke bidezko pagamenduak**. Ohiz kanpoko izaerarekin erabiliko dira, izendunak izango dira eta izendatutako gakodunek sinatuak izan beharko dute.
c) **Eskudiru bidezko pagamenduak**. Salbuespenezko izaerarekin erabiliko da, kopuru txikiko pagamenduak eta urgentziazkoak egiteko. Pertsona edo entitate hartzaileak idatziz jasota utzi beharko du bere identitatea, edo kobrantzak egiteko ahalmena pertsona juridikoen kasuan.

Pagamenduak obligazioaren onarpena haien alde onetsi den pertsona fisiko edo juridikoek jasoko dituzte, organo judizial edo administratiboek dekretatutako bahimenduen edo kreditu-zesioen kasuan izan ezik.

Salbuespen moduan, pagamenduaren gauzatze material udalaren kontuan zordunketa bat eginez egin ahalko da, banku bidezko helbideratzea ezarri den kasuetarako: Elkarkidetza, karga finantzarioa, telefonoak...

**32. artikulua.- Ziurtagiriak edo fakturak kobratzeko eskubideak lagatzea.**

1.- Udalaren aurrean kobratzeko eskubide bat dutenek hirugarren bati laga ahalko diote eskubide hori zuzenbidearen arabera.
2.- Baldin eta, lagatako faktura ordaintzeari ekin aurretik, pertsona edo entitate lagatzaileak Udalarekin zorrak egin baditu eta zor horiek pagatzeke eta epea amaituta badaude, hartarako eskubidea duen kopuruaren eta udalarekin duen zorraren arteko aldearen zenbatekoan egingo da lagapena.

3.- Lagapena modu fede-emangarrian jakinarazi beharko zaio Udaleko Kontu-hartzailetzari, lagatzaileak eta lagapen-hartzaileak sinatutako agiri baten bidez, zeinetan adieraziko baita zein den lagatako faktura edo ziurtagiria, bai halaber ordainketa zein kontutan egin beharko den, eta jakinarazpen horretatik aurrera izango ditu ondorioak, aurreko atalean xedatutakoa alde batera utzita.

Lagapena ziurtagiri edo faktura konkretu bakoitzeko egin behar da, haren zenbateko totalarekin. Ez da onartuko kontratu oso baterako lagapen orokorrik edo etorkizuneko lagapenik.
4.- Lagatzeko dokumentuaren “berri hartzeko” organo eskumenduna Kontu-hartzaile Nagusia da. “Berri hartzeko” egintzak barrurako ondorioak ditu soil-soilik, eta lagapenari baiezkoa emateko egintza batean datza soilki, udala lagapen-hartzailearekin obligatzen ez duelarik.

**33. artikulua.- Kredituak organo judizialak edo administratiboak bahitzea.**

Kasu horietan, ordaintzeko agindua organo bahitzailearen alde jaulkiko da, hirugarren bahitua zein den adierazita.

## III. KAPITULUA - PROZEDURA ADMINISTRATIBOA

**34. artikulua.- Pertsonal-kredituak.**

1- Dosier honen 4.9. eranskinean betetzen diren plazek osatzen dute, funtzionario-taldeetan edo lan-kategorietan sailkaturik, Lasarte-Oriako Udaletxeko (e)ko ekitaldirako plantilla organikoa.

2. - Ekitaldian, plantilla aldatzeko espedienteak onartuko badira, beharrezkoa izango da horietatik datorren gastu-gehikuntza konpentsatuta geratzea beste plaza edo lanpostu batzuei dagozkien kredituak murriztuz.

3.- I Kapituluko gastuei dagokienez, honako erregela hauek betetzen dira:

a) Osoko Bilkurak plantilla eta lanpostuen zerrenda onesteak, oinarrizko ordainketek eta osagarriek sortarazten duten gasturako baimena ematea dakar. Efektiboki okupaturik dauden lanpostuei dagozkien ordainketa horien zenbatekoaz, "BE" agiria tramitatuko da.

   * Udalean lanean diharduen Pertsonal Funtzionarioaren, erregimen administratiboan kontratatutako pertsonalaren eta erregimen laboralean kontratatutakoaren urteko ordainketa osoak, Osoko Bilkurak pertsonalaren ekitaldi honetarako enplegu baldintzak erregulatzeko har dezan erabakiaren edukiari jarraiki gehituko dira.

   * Langileek joan den urtealdietan helburuak lortzeko xedez produktibitateko osagarri gisa jaso zituzten zenbatekoak, betiere helburuak bete badira, indarrean dagoen ekitaldirako ordainsarietara inkorporatuko dira, kontsolidazioa egite aldera.

b) Hileko nominek "O" agiriaren funtzioa beteko dute. Agiri hau Alkateari aurkeztuko zaio, honek ordainketa agin dezan.

c) Funtzionarioen izendapenak edo pertsonal laboralaren kontratazioak, segidako "BE" agirien tramitazioa sortaraziko du, aurreikuspenen arabera ekitaldian zehar ordainduko diren nominen zenbateko berdinaz.

d) Bitarteko langileen kontratazioak edo Aldi baterako lan-kontratuko erregimeneko pertsonala kontratatu ahal izango da, horren beharra duten sailek eskaera egin eta Pertsonal Sailak kontratatzeko premiari buruzko txostena eta Ogasun Sailak behar adinako aurrekontu-kreditua izateari buruzko txostena egin ondoren, honako kasu hauetan:

1.- Enplegua sustatzeko lankidetza-hitzarmenak, beste erakunde batzuekin, hala nola Lanbiderekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, izenpetutakoak.

2.- Erakundeen arteko hitzarmenak, Gizarte Zerbitzuko saila laguntza-pertsonalez hornitzea helburu dutenak, erabiltzaileen arreta errazteko eta arintzeko eta dagozkien espedienteak izapidetzeko.

3.- Plantillako langileek egin ezin dituzten lanak edo ezusteko lanak eta iraunkorrak ez direnak egitea

4.- Aldi baterako langileen kontratazioak berehala egitea, hutsik dauden lanpostuak betetzeko eta gaixotasunek, lizentziek/baimenek edo sindikatuetako liberazioek eragindako egoeretan ordezkapenak egiteko. Eta horretarako ahalmena ematen zaio Alkatetzari.

5.- Ezen hautaketako prozesua Euskal Funtzio Publikoaren Legeko 33.1 artikuluaren arabera egin dela, lanpostuak betetzeko deialdi publikoak egin ordez jarraian adierazten den protokoloa jarrai daitekeelarik:

* Bete beharreko funtzio antzekoetan, edo bere ezean beste batzuetan, eta eskatutako titulazio-mailan duten lanpostuetarako Udalak eratutako lan-poltsak; betiere pertsona hautatuak beteko ditu eskainitako plazari buruz lanpostuen zerrendan beharretsitako eskakizunak.

* Aurreko horren ezean, eta baldintza beretan, baliatu ahalko dira beste administrazio publikoetan azken 10 urte honetan eratutako lan-poltsak, berrienetik zaharrenerako ordena kronologikoan, eta honako ordena eta irismen hauekin:

  ● Gipuzkoako Lurralde Historikoko beste udal batzuen poltsak eta/edo Gipuzkoako Foru Aldundiarenak.
  ● Euskal Herriko beste udal eta administrazio publiko batzuen poltsak.
  ● HAEEren poltsak.

* Baldin eta administrazio horietan indarrean dauden lan-poltsetan hautagai egokirik ez badago, eta giza baliabideen buruak aldez aurretik txosten arrazoitua eginda, jo ahalko da, azkenik, enplegu-zerbitzu publikoetara (Lanbide eta SEPE). Kasu horretan, dagokion enplegu-zerbitzu publikoak proposaturiko pertsonek lanpostuan jarduteko eskaturiko oinarrizko baldintzak bete beharko dituzte, eta beharreko prozedura laburtua egin ondoren aukeratuko dira pertsona horiek, betiere lehen aipaturiko berdintasunaren, merezimenduaren eta gaitasunaren printzipio horiekin bat etorririk.

* Deialdia egiteko irizpideak:

  □ Deialdiak betiere dagokien poltsaren lehentasun-ordenaren arabera egingo dira, hurrengo paragrafoetan xedaturikoa alde batera utzita.

- □ Lan-eskaintzen jakinarazpenak telefonoz, posta elektronikoz edo pertsona interesatuarekin berehala eta bizko komunikatzeko aukera emango duen beste edozein bidez egingo dira. Eskaintzaren jakinarazpena egiteko orduan, bereizi egingo dira zerbitzu arrunten edo presazkoen prestazioak.
- □ Zerbitzu arruntak emateko, Giza Baliabideen Zerbitzuak jakinarazteko edo abisua emateko 3 saio egingo ditu 2 eguneko epean. Kontaktaturiko lan-poltsan dagoen pertsonak gehienez ere 24 orduko epean onartu edo errefusatu beharko du eskaintza. Ezin izan bada harekin harremanetan jarri, edo eskaintzari uko egin badio, puntuazio-ordenaren arabera zerrendan hurrena dagoenari egingo zaio eskaintza bera.

- □ Presazko zerbitzuak direnean, jakinarazteko edo abisu emateko saio bakarra egingo da. Kasu horietan, eskaintza jakinarazten den unean bertan onartu edo errefusatu beharko da. Kontaktatzea lortzen ez bada, beste tramiterik gabe, puntuazio-ordenaren arabera zerrendan hurrena dagoenari egingo zaio eskaintza.

Prozesu horren akta egingo da behar bezala jasota gera dadin.

1. eta 2. kasutan alkateak kontratazioak formalizatu ahal izango ditu, kontratatu beharreko pertsonak hautatzeko legez exijitutako izapideak bete ondoren, eta beste erakundeak hitzarmenetan parte hartzeko edo laguntza ekonomikoak eskuratzeko deialdia abian jarri duela egiaztatzen denean. Beharrezkoa izanez gero, kontratazioa haren ebazpenari itxaron gabe formalizatzearen kalterik gabe, Alkatetzak dagokion aurrekontu-aldaketaren izapideak hasi eta sustatu beharko ditu.

3. kasutan, behar-beharrezkoa izango da dagokion gastuari aurre egiteko berariaz ezarritako aurrekontu-kreditu globala izatea, kreditu horrek 25.000,00 euroko zuzkidura du.

Nolanahi ere, akreditatu egin beharko da kasua salbuespenezkoa dela, haren premia eta urgentzia, eta lehentasunezkotzat jotzen diren edo funtsezko zerbitzu publikoen funtzionamenduari eragiten dioten sektore, funtzio eta kategoria profesionaletatik zeintzuk afektatzen dituen, bai halaber lan horiek egin ditzakeen plantillako langilerik ez dagoela. Dagokion departamentua Pertsonaleko Departamentuari zuzenduko zaio, eta kontratazioaren premia justifikatuko duen txostena aurkeztuko dio.

e) Gizarte Segurantza edo Elkarkidetzaren kuotei dagokienez, "BE" agiria tramitatuko da aurreikusitako kotizazioen zenbateko berdinaz. Izan litezkeen aldaketek, agiri osagarriak edo haren alderantzizkoak sortaraziko dituzte.
f) I. Kapituluko gainerako gastuei dagokienez, derrigorrezkoak eta urte hasieran ezagunak badira, dagokien "BE" agiria tramitatuko da.
g) Gastuak aldakorrak izanez gero, Korporazioak buru ditzan jardueren edo hartzaileen zirkunstantzia pertsonalen arabera, hurrengo artikuluetan bildutako arau orokorrei jarraiki kudeatuko dira.

4.- Udalbatzako kide liberatuen urteko ordainsarien zenbatekoak udaleko enplegatuentzat onetsiko den ehuneko global berean aldatuko dira, eta dagokien soldata-mailan seinalatutako zenbateko berak aplikatuko zaizkie oinarri gisa.
5.- Udaleko pertsonalak eta Korporaziokideek trebakuntza ikastaroetan parte hartzeko baimena idatziz eskatuko dute, horretarako landutako inprimakia erabiliz.
6.- Edozein ziorengatik lantokitik kanpora egiten lekualdatzeak ondoko kontsiderazio hauei loturik egongo dira:

a) Garraiobideak: Bidaiak garraiobide publikoak erabiliz egingo dira, ondoko modalitateetan:

* Hegazkina: Turista klasea.

* Trena: Ohe-bagoia gauez egindako bidaietan eta 1. klasea egunez egindakoetan.
* Autobusa.
* Norberaren ibilgailua erabiliz egindako bidaiak ez dira Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroaz kanpora egingo, espresuki horretarako baimenik ematen ez bada behintzat.

b) Mantenua: Ohiko lantokiaz kanpo igaro beharra dakarten bidaiei dagozkien dieten zenbatekoak ondokoak izango dira:

| | |
|---|---|
| ✔ Gosaria (lojamenduan barne hartzen ez bada) | 5,37 |
| ✔ Bazkaria | 23,03 |
| ✔ Afaria | 19,35 |
| ✔ Hainbat Gastu | 4,60 |

Hirigunetik kanpo dauden tren eta autobus geltokietara edo aireportuetara egin beharreko joan-etorrietarako dagokien frogagiria aurkeztu ondoren likidatuko dira.

c) Lojamendua: Hotel erreserba Pertsonalak egingo du lehenespenez.

d) Konpentsatzen ez diren gastuak: Honako gastu hauek ez dute dietarik jasotzeko eskubiderik emango:

* Bazkaria: 15:30ak baino lehen itzultzen denean edo 13:00ak baino beranduago irteten denean.

* Afaria: Bidaia 20:00ak baino beranduago hasi edo 22:00ak baino lehen itzultzen denean.

e) Likidazioa: Bidai gastuen likidazioak, bidaia amaitzen denetik hasi eta, luzeen jota ere, hamabost eguneko epean aurkeztuko dira.

**35. artikulua.- Korporatiboen esleipenak.**

Liberaturik ez dauden korporatiboen esleipenak hiru hilabetez behin gutxienez 12 erakunde-bileretara bertaratzeagatik zenbatekoak barne hartzen dira, honako banaketa honen arabera:

| | |
|---|---|
| ✔ A taula .-Informazio Batzorde, Osoko Bilkura eta Udal izaerako bestelako bileretan parte hartzea, zinegotzi bakoitzeko/hileko | 562,73 |
| ✔ B taula.-Aurreko atala gehi Batzorde lehendakaritzagatiko ardura, zinegotzi-Presidente bakoitzeko/hileko | 899,61 |
| ✔ C taula.- A atala gehi Gobernu Batzordeetan parte hartzeagatiko ardura, zinegotzi-Gobernu Batzordekide bakoitzeko/hileko | 1.124,17 |

Asistentzia horiek hiru hilabetez behin kontrolatuko eta erregularizatuko dira. Horretarako, batzorde bakoitzeko idazkariak, edo legez egindako deialdi instituzional batekoak, bilkurara etorritakoen izenak erregistratu egin beharko ditu horretarako prestaturiko aplikazioan.

Pertsonaleko Departamentuak bilduko ditu erregistro horiek, eta honako artikuluan ezarritakoaren arabera kudeatuko eta aplikatuko ditu.

**36. artikulua.- Diru-laguntzak eta Transferentziak.**

1.- Diru-laguntza edo laguntzatzat hartuko da funts publikoen edozein doako erabilera, Lasarte-Oriako Udalak pertsona edo erakunde publiko zein pribatuen alde emana, erabilera publikoko edo gizarte-intereseko jardueraren bat sustatzera edo helburu publikoren baten lorpena bultzatzera zuzendua.

2.- Diru-laguntza mota hauek bereizten dira:

a) Norgehiagoka-erregimeneko diru-laguntzak (NEDL): Horrelakoetan, hainbat eskabide egon daitezke elkarren lehian, eta diru-laguntza emateak berekin dakar eskabide horiek prozedura bakarrean elkarrekin alderatzea, arau erregulatzailean edo deialdian xedaturiko irizpideen arabera, horren bitartez diru-laguntza zeini eman ebazteko eta, kasua hala bada, zenbatekoa zehazteko.

Diru-laguntza hauek "BE" agiria sorraraziko dute ematen diren unean bertan.

b) Konkurrentza libreko diru-laguntzak (Kodea: KLDL): onuradun izateko beharrezko eskakizunak betetzen dituztela akreditatua dutenei emango zaizkie, eta eskaerak jaso ahala banatuko dira, harik eta aurrekontuetako diru-hornidurak amaitzen diren arte. Kasu zehatzetarako ematen dira, deialdi publikoa egitea eragozten duten interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiak edo behar bezala justifikatutako bestelakoak egiaztatzen direnean. Adierazitako eranskinetan "KLDL" kodearekin agertuko dira.

Atal honetan sartuko dira, halaber, bekak, sariak eta sektore-mailako xedapenean arautze propioa duten laguntzak edo diru-laguntzak.

Gizarte Politikako Departamentuaren diru-laguntzak, familiei dagozkienak, departamentuko programen edukira egokituko dira. Programen inguruabar partikularrek hala aholkatzen dutenean, aurreikusitako baldintzaren bat ez betetzeko salbuespena eman ahal izango da.

Mota honetako diru-laguntzek "B" agiria sorraraziko dute ekitaldiaren hasieran.

c) Zuzeneko diru-laguntza izendunak (Kodea: ZDI): onuradunak zehaztuta eta esplizituki identifikatuta dituzten diru-laguntzak dira, eta halakotzat ageri dira espediente honen 4.1. eta 4.2. eranskinetan.

Mota honetako diru-laguntzek "BE" agiriaren tramitazioa sorraraziko dute ekitaldiaren hasieran.

Beste administrazio batzuei nahitaez egin beharreko ekarpenen kasuan, zenbatekoa ekitaldiaren hasieran ezaguna bada, "BE" agiria tramitatuko da. Nahitaezko ekarpenaren zenbatekoa ezaguna ez bada, kreditu-atxikipena eskatuko da zenbatetsitako zenbatekoaz.

3.- Edozein eratako diru-laguntza emateko, beharrezkoa izango da dosier bat osatzea, ondoko hauek jasoko dituena:

* Funtsen destinazioa.
* Pagamendua egin ahal izateko nahitaez bete beharreko baldintzak.
* Kasua hala bada, jasotako zenbatekoak itzultzea dakarten kausak.

4.- Subentzioa pagatzeko agindua jaulki ahal izateko, ezinbestekoa da Organo Kudeatzaileak akreditatzea ezen bete direla subentzioa emateko erabakian eskatutako baldintzak. Baldin eta baldintza horiek, duten berezko izaeragatik, funtsak eskuratu eta gerora bete behar badira, Organo Kudeatzaileak ezarri beharko du baldintza horiek betiere zer denbora-bitartetan bete behar diren.

Halako kasuan, Kontu-hartzailetzak justifikatu zain dauden funtsak bezala erregistratuko du egoera hori, dagokion segimendua egiteko eta behar diren neurriak proposatzeko.

5.- Sinestamenduak onesteko tramitea diru-laguntza sortu duen organo kudeatzaileak burutuko du; hala ere, sinestamenduak onetsi aurretik, nahitaezkoa izango da Kontu-hartzailetzak txostena ematea.

6.- Jasotako funtsen justifikazioa, oro har, honela egingo da:

a) Diru-laguntzaren destinazioa obra edo instalazioa egitea denean, justifikatzeko dokumentuak teknikari eskumendun baten ziurtagiriak izango dira. Udalak izendatu ahalko du Zerbitzu Munizipaletako teknikari bat bertara ager dadin eta akta egin dezan burututako obraren egoerari buruz.

b) Destinazioa material suntsikorra erostea, zerbitzuak ematea edo antzeko izaera duen bat bada, jatorrizko dokumentuak aurkeztu beharko dira, edo egindako ordainketa egiaztatuko duten fotokopia konpultsatuak.

c) Destinazioa entitate edo erakunde baten urteko jarduera orokorrari dagokionean, justifikazioa urteko kontuak aurkeztuz egingo da, entitate horretako organo eskumendunak behar bezala onetsita eta presidentearen eta diruzainaren sinadurekin.

d) Lankidetzarako hitzarmenetan, entitate onuradunak jasoko funtsen aplikazioa nola justifikatuko duen adieraziko da, hitzarmenaren xedeko jardueraren gastu eta sarreren azterketa xehatu baten bidez, udalak jarduera horretan duen parte-hartzea analizatu ahal izateko xedearekin.

7.- Ez dute justifikazio beharrik izango naturako hondamendiek (uholdeak, lurrikarak, etab.) eragindako salbuespenezko eta urgentziazko premiei erantzuteko ematen diren laguntzek eta sorospenek.

Kasu horietarako, alkateari ahalmena ematen zaio beharrezko kreditua habilita dezan, Ekonomiako eta Ogasuneko Batzordearen aldez aurreko irizpenarekin, sortutako eskari eta premiei ahalik lasterren erantzun ahal izateko.

8.- Oro har, obligazioa «O» dokumentuaren bidez aitortuko da, betiere pagamendua baldintzapetua ez badago. Beste gainontzean, tramitazioa ez da abiatuko harik eta baldintza betetzen ez den arte.

9.- Aurrekontuen espedientean onetsia geratzen den aurrekontu-kreditua abian den deialdi publiko baterako hasiera batean estimatutako zenbatekoa baino handiagoa den kasuetan, zuzenean aplikatuko zaio, beste deialdi bat egin beharrik gabe.

10.- Diru-laguntza baten onuradunak birformulatu ahalko ditu aurkeztutako eskaerak baldin eta azkenean eman zaion diru-laguntzaren zenbatekoa hasierako eskaera horretan ageri dena baino gutxiagokoa bada, hartara bere konpromisoak eta jarduerak benetan eman zaion zenbatekora doitzeko.

Behin diru-laguntzaren xedeak betetakoan eta aplikatu gabeko geldikinak lortu dituenean, organo laguntza-emaileari baimena eskatu ahalko dio geldikin hori proiektuan bertan edo izaera bera edo antzekoa duten eta diruz laguntzekoak diren beste jarduera batzuetan gertatu diren soberako gastuetan erabiltzeko. Neurri honen asmoa da beren kudeaketan efizienteak izan diren entitateei onura egitea, horrela geldikin hori automatikoki itzultzeari irtenbidez aurkituz. Hori efektiboki aplikatzeko, diru-laguntza bakoitzaren oinarri arautzaileetan espresuki jaso behar direla exijitzen da.

11.- Baldin eta aurrekontuen espedientean ageri diren diru-laguntzetarako kontu-sailetako edozeinetan kreditu-liberazio bat gertatzen bada hasierako onuradunetako batek uko egin diolako, eskatzaileak nahikoak ez direlako edo diruz lagundutako proiektuak osorik edo parte batean gauzatu ez direlako, instituzio publikoei, mankomunitateei, partzuergoei, erakunde autonomoei eta sozietate edo entitate publiko enpresarialei destinatuak izan ezik, kreditu liberatu hori erauki ahalko zaie lehenik eta behin, beste deialdi baten beharrik gabe, gastu-programa beraren barruan sortutako “itxaron-listetan” sartuta ageri diren eskatzaileei edo, halakorik ezean, aurrekontuen espediente horretan gastu-programa horretarako esplizituki adierazitako onuradunei.

Horretarako, alkateari ahalmena ematen zaio, aldez aurretik txosten justifikatzailea eginda eta Ekonomiako eta Ogasuneko Batzordeak irizpena emanda, beharrezko kreditua habilita dezan programa beraren barruan lehentasunezkoenak deritzen kontu-sailetan edo, kasua hala bada, beste programa batzuetan ageri direnetan baina betiere lehen ezarritako lehentasun-ordena mantenduz.

12.- Edozein diru-laguntzaren hartzailea ezin izango da Udaleko Ogasunaren zorduna izan. Zertzelada hori kobrantzako teknikariak egindako txostenaren bidez justifikatuko da.

Onuraduna zor mugaeguneratu, likido eta galdagarri baten ondorioz bada zordun, udalak konpentsatzeko erabakia hartu ahal izango du.

**<u>37. artikulua.- Talde Politikoentzako diru-laguntzak.</u>**

Udal-taldeei beren udal-jardueraren ondoriozko funtzionamendurako gastuak asetzeko zuzendutako ekarpen ekonomikoak finkatzen dira, hauek ondoko irizpideei jarraiki finkatzen dira:

| Taldeko | Zinegotziko |
|---|---|
| 552,08 | 169,89 |

2.- Baldin eta udalkide batek udal-taldean baja ematen badu, zinegotzi izateagatik dagokion asignazioaren kopurua bakarrik ordainduko zaizkio udalkide horri.

**38. artikulua.- Gastu-espedienteak.**

1.- **“Kontratu txikien”** espediente guztietan Unitate kudeatzaileak honako agiri hauek jaso beharko ditu betiere:

a) Kontratu horren beharra justifikatzen duen txostena edo memoria.
b) Kostu osoa bilduko duen aurrekontua.
c) Kontratazioko arau orokorren aplikazioa saihestearren kontratuaren xedea itxuraldatzen ari ez dela justifikatzea.
d) Kontratistak banaka nahiz elkarrekin aurreko kopuru horiek gainditzen dituzten kontratu txiki gehiago izenpetu ez dituela justifikatzea.

Gainera, gastuaren zenbatekoa 10.000,00 €-tik gorakoa duten espedienteen kasuan, honako hauek jaso beharko dira:

e) Gutxienez 3 lizitatzaileren eskaintzak.

2.- Gainerako kontratazio-espedienteen kasuan, honako agiri hauek jaso beharko dira betiere:

a) Proiektua, planoak eta memoria.
b) Kostu osoa bilduko duen aurrekontua. Urbanizazio obrarik exekutatu behar izanez gero, hauen kostua ebaluatuko da.
c) Baldintzen Plegua.
d) Adjudikatutako gastua hasteko eta amaitzeko aurreikusitako egunak.
e) Amortizazioa, zenbatetsitako bizitza erabilgarria arrazoituz.
f) Etorkizuneko ekitaldietako funtzionamendu eta artapen gastuen zenbatespena. Kontu-hartzailetzak kopuru horiei buruzko txostena emango du, hurrengo urteetan estaltzeko aukera aztertzearren.

g) Aurrekontu-aplikazioari buruzko proposamena.
i) Jarduketak etorkizuneko ekitaldietarako inbertsio konpromisorik baldin badakar, Kontu-hartzailetzak aldeko txostena eman beharko du hurrengo artikuluak ezartzen duena betetzeari buruz.

j) VI kapituluan barne hartutako proiektuak —material inbentariagarriaren eskuraketak izan ezik— Zerbitzu kudeatzaileek PERT edo proiektua burutzeko egutegia aurkeztu beharko dute, honako gutxienezko datuok adieraziz:
   - ✔ Proiektuaren enkargu eta amaiera datak.
   - ✔ Proiektuaren onespen data.
   - ✔ Adjudikazio data.
   - ✔ Obraren hasiera data.
   - ✔ Lehen ziurtapenaren data.
   - ✔ Gastua exekutatzeko erritmoa.
   - ✔ Obra emateko data.

3.- Bi urtean edo gehiagoan burutuko diren gastu arrunten kasurako (batzordeen jarduerak, ikastaroak, hitzarmenak, etab.), aurrekontuen ekitaldi bakoitzari inputa dakiokeen gastuaren zenbatekoa agerrarazi beharko da haiek onesteko udal-erabakian.

4.- Gastuen espedienteak onesteko azken eguna 2019. urteko abenduaren 10a ezartzen da, baita probedorei materialak eskatzeko muga ere.

5.- Obren eta inbertsioen kasuan, baldin eta haien zuzendaritza fakultatiboak edo dagozkien departamentu teknikoek egiaztatzen badute kostuen desbideraketak daudela edo hasieran onetsitako proiektua aldatu beharra dagoela, eta horrek adjudikazioko aurrekontuari buruz %5,00(e)tik gorako bariazio ekonomikoa errepresentatzen badu eta era berean 10.000,00 €-tik gorako intzidentzia kuantitatiboa badu, berehala eman beharko zaio desbideratze horren berri adjudikazioa baimendu zuen organoari,  behin betiko likidazioa edo bukaerako ziurtagiria egin arte itxaron gabe; hori guztia obra edo inbertsio horren kostuaren eta, kasua hala bada, kontratazioko espedientearen aurrekontua eta kontabilitatea erregularizatzeko behar diren prozedurak abian jartzeko xedez.

## IV. KAPITULUA.- FROGATU BEHARREKO ORDAINKETAK ETA KUTXA FINKOKO AURRERAKINAK

**39. artikulua.- Frogatu beharreko ordainketak.**

1.- Kutxa finkoko aurrerakinen kargura ordaindu ezin diren eta burutu aurretik euren egiaztagiririk edukitzeko aukerarik ez duten premiazko eskuraketa edo zerbitzuen kasuan soilik luzatuko dira frogatu beharreko ordainketa-aginduak. Halaber, egokierako arrazoiengatik edo behar bezala akreditatutako beste kausa batzuengatik, beharrezkotzat jotzen denean kredituak arintze aldera. Ordainketa-agindu hauek dagozkien aurrekontu-kredituei aplikatuko zaizkie.

Era berean, justifikatu beharreko eta aplikatu gabeko pagamenduak jaulkiko dira haiek egitea beharrezkoa den kasuetan, baldin eta haien inputazioa aurrekontuetako kontu-sail bat baino gehiagori dagokie eta jaulkitzeko unean ez bada jakiten haien banaketa zehatza; horregatik, aurrekontuz kanpoko izaera izango dute, eta zorduntze bat sorraraziko du 555099 kontuan, eta Diruzaintzako 57. kontuetan abonatuko da.

Aldi berean, gastuak aplikatu beharko diren aurrekontuko kontu-sailetan kreditu-atxikipen bat egin ahalko da, gastuei dagokien horniduraren zenbatekoarekin.

Kantzelazioko unean, 555099 kontua abonatuko da, 57. azpitaldeko kontuen kargura.

2.- Gehienez, justifikatu beharreko 600,00 euroko  kopuruak entregatu ahalko zaizkie Korporazioko kargudun hautapenezkoei eta Depàrtamentuetako Tekniko Arduradunei.

Eskaera Ekonomiako Departamentuko buruari zuzenduriko ofizioaren bitartez egingo da, horretarako dagoen ereduaren arabera, eta haren eraukitzea automatikoa izango da seinalaturiko mugen barruan.

Abantzua, edo dirutan entregatu ahalko da Ekonomiako Departamentuan, edo unitate administratiboen izenean horretarako habilitatua dagoen banku-kontura transferitu ahalko da.

Edozein kasutan ere, Alkatetzako ebazpenaren bidez, zenbateko handiagoko funts-zuzkidurak egin ahalko dira eta/edo Entitateko gainerako pertsonalaren aldekoak eta/edo proposatzen diren habilitatu haiena.

3.- Hiru hilabeteko epean eta, kasu orotan, ekitaldia itxi baino lehen, hartzaileek ordainketaren frogagiriak Kontu-hartzailetzaren eskura jarri beharko dituzte, inbertitu gabeko kopuruak itzuliz.

4.- Funtsak zer xederekin eman ziren, hartarako bakarrik balia daitezke, eta egindako inbestimenduaren jatorrizko agiriekin justifikatu behar dira. Halaber, Bigarren Xedapen Gehigarrian ezarritako baldintzak bete beharko dituzte, eta kontu-ikuskatzailetzak emandako aginduei egokituko zaizkie. Kontuan izango da, betiere, pertsonala funts horien kargura kontratatzeko debekua, bai halaber atxikipen tributarioak atenditzea, kontratazio administratiboa eta subentzioen abonamendua.

5.- Ezingo zaie ezein kasutan "justifikatu beharreko" ordainketa-agindu berririk jaulki, aurrekontuko kontzeptu berberengatik, oraindik beren eskueran justifikatu gabeko funtsak dituzten hartzaileei, baldin eta justifikatzeko gehienezko epea dagozkien kontuak aurkeztu gabe igaro bada.

6.- Hartzailea izango da funtsak zaintzearen erantzule.

**40. artikulua.- Kutxa Finkoko Aurrerakinak.**

1.- Kutxa finkoko aurrerakinen izaeraz, jarraian adierazitako gastuei aurre egiteko, gehienez 1.500,00 euroko fondo hornidurak egin ahal izango dira hilean:

* Konponketak eta kontserbazioa (materiala eta konponketa txikiak), 21 artikulua.
* Material arrunt ez-inbentariagarria (bulego-materiala eta bestelakoak), 220, 221, 222,223,225 y 226. kontzeptuak.
* Dietak, lokomozio gastuak eta bestelako kalte-ordainak, 23 artikulua.

Unitate administratiboetako bakoitzeko arduradunak, Ekonomiako Departamentuari horretarako dagoen ereduaren araberako ofizioa zuzenduz, abantzua eraukitzeko eskatu ahalko du, haren kudeaketa zein pertsonari egozten zaion adieraziz. Haren eraukitzea automatikoa izango da seinalaturiko mugen barruan.

2.- Kasu orotan, Alkateak proposatutako gaituen aldeko funts-hornidurak egin ahalko dira eta haien zenbatekoak ezingo du 3.000,00 euroko zenbatekoa gainditu.

Abantzua edo dirutan entregatu ahalko da Ekonomiako Departamentuan, edo unitate administratiboen izenean horretarako habilitatua dagoen banku-kontura transferitu ahalko da.

3.- Diruzaintzako premiek fondoak birjartzea aholkatzen duten heinean, gaituek kontuak emango dituzte Diruzaintzaren aurrean, honek adostu eta Kontu-hartzailetzara lekualdatuko dituelarik aztertzeko. Kontu horiek Alkatetzak onetsiko ditu.

4.- Ezin izango zaie ezein kasutan ordainketa-agindu berririk luzatu kutxa finkoko aurrerakin gisa, oraindik beren eskueran frogatu gabeko fondoak dituzten hartzaileei.

5.- Aurreko puntuan aurreikusitakoaren kalterik gabe, eta hiruhileko natural bakoitzaren amaiera datarekiko, gaituek egindako erabileren eta fondoen egoeraren berri emango diote Diruzainari.

6.- Kontabilizazioari dagokionez, honako erregela hauek beteko dira:

a) Fondo hornidura ez da aurrekontu-kontabilitatean aplikatuko, aurrekontuz kanpoko eragiketatzat hartzen da Kontabilitate Plan Orokorra aplikatzen denean, eta zordunketa sortaraziko du 558 kontuan, 57 zenbakiko Diruzaintza-kontuetan abonatuz.

   Aldi berean, gastuak aplikatu beharko direneko aurrekontu-partidetan kreditu-atxikipen bat burutzeari ekin ahal izango zaio gastuei dagokien horniduraren zenbatekoaz.

   Atxikipen horrek, 2. puntuan aurreikusitakoaren arabera, ez du dagokion partidaren hasierako kredituaren laurdena gaindituko.

b) Kitapen partziala egiterakoan, segidako fondo birjarpenak egin aurretik, 558 kontuan abonatuko da, 57 azpitaldeko kontuen kargura.

c) 3. puntuan aipatutako kontuak onetsirik, fondoak birjartzeko ordainketa-aginduak luzatuko dira, frogatutako kopuruak dagozkien aurrekontu-kontzeptuei aplikatuz.

   Ordainketa-agindu hauek luzatzerakoan ez dira egindako kreditu-atxikipenak erabiliko, kreditu erabilgarria agortu ez bada edo, ekitaldia aurreratuta egoteagatik edo beste arrazoi batzuengatik, fondoen birjarpena bidezkoa ez bada behintzat; kasu honetan, frogatutako ordainketak hurrenez hurreneko partidei aplikatuko zaizkie, kreditu-atxikipenen kargura.

7.- Funts horien hartzaileak behartuak egongo dira beti abantzua eratu zeneko aurrekontu-ekitaldian zehar jasotakoen aplikazioa justifikatzera; beraz, gutxienez abenduan, horiekin izandako gastuen berri eman beharko dute.

LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

# *III. TITULUA.- SARREREI BURUZKOA*

## I. KAPITULUA - SARRERAREN EXEKUZIOA

**41. artikulua.- Sarreraren exekuzioa.**

1.- Aurrekontu-ekitaldiari bertan onartutako eskubideak egotziko zaizkio, berauen jatorrizko denboraldia edozein izanik ere.
2.- Sarreren Aurrekontuaren kudeaketa honako fase hauetan burutuko da:
* Sarreraren onarpena (SO).
* Sarreraren kobrantza (S).

Gastuei ukitutako sarreren kasuan sarrera-konpromiso finkoaren fasea ere burutu ahal izango da. Sarrera-konpromiso finkoa zera da: edozein Ente edo pertsona publiko edo pribatu gastu jakin bat era garbian edo baldintzapean guztiz edo partzialki finantzatzeko Udalarekin akordio edo hitzarmen batera iristean burutzen den egintza da, era honetan Udal Entitateak hartutako obligazioak betetzen direnean eska dezakeen kobraketarako eskubide bat eragiten delarik.

**42. artikulua.- Eskubide-onarpena (ESO).**

1.- Udalaren aldeko likidazio bat izan dela jakin bezain laster izango da bidezkoa eskubide-onarpena; likidazio horrek Korporazioan bertan, beste Administrazio batean edo partikularretan izan dezake jatorria; hurrengo puntuetako erregelak beteko dira.
2.- Aurretiazko izendapeneko likidazioetan, zuzeneko sarrerakoetan, eskubide onarpena likidazioak onetsitakoan kontabilizatuko da.
3.- Aurretiazko izendapeneko likidazioetan, ordainagiri bidezko sarrerakoetan, eskubidearen onarpena errolda onetsi ondoren kontabilizatuko da.
4.- Autolikidazioetan eta aurretiazko izendapenik gabeko sarreretan, aurkeztu eta beren zenbatekoa sartutakoan.
5.- Beste Entitate batetik beharkizun jakin batzuk betetzearen baldintzapean jaso beharreko dirulaguntza edo transferentzien kasuan, haren konpromisoa erabaki formala hartzen deneko unean bertan jasoko da. Dirulaguntza galdagarria izan dadin ezarritako baldintzak betetzerakoan, eskubidea onartu egingo da.

Departamentuek diru-laguntzak emateari buruzko informazioa dutenean, Udaleko Kontu-hartzailetzari jakinaraziko diote, jarraipen zehatza egiteko xedearekin. Diru-laguntzen justifikazioa departamentuek egingo dute, eta Kontu-hartzailetzari jakinaraziko diote zein idazkiren bidez bidaltzen diren justifikatzeko agiriak.

6.- Estatuko tributuetako eta Udal Finantzaketarako Foru Planeko partaidetzari dagokionez, ekitaldiaren hasieran itundutako konpromiso gisa kontabilizatuko da kontzeptu honengatiko sarreren aurreikuspena. Hiru hilean behin, fondoak jasotzerakoan, ematearen onarpen eta kobrantza kontabilizatuko dira.

7.- Itundutako maileguetan, hauei buruzko Osoko Bilkuraren erabakia hartutakoan kontabilizatuko da konpromisoa. Segidako erabilerak burutzen diren neurrian, eskubide onarpena eta dagozkien kopuruen kobrantza kontabilizatuko dira.
8.- Interesetan eta bestelako errentetan, eskubide onarpena sortzapenaren unean sortaraziko da.

**43. artikulua.- Aldizka kobratzeko tributuak eta prezio publikoak.**

1.- Errenta eta Ordainarazpenetarako Departamentuak aldizka kobratzeko tributuen erroldak landuko ditu, xede horretarako kudeaketa-zerbitzuek haiek uki ditzaketen gorabehera ezagunak jakinaraziko dituztelarik.

2.- Ekitaldiaren hasieran aldizka kobratzeko tributuen egutegi fiskala onetsi eta argitaratuko da, erroldean adierazpen publikoa beren kobrantza hasi aurretiko hamabost egunetan zehar egingo dela konstaraziko delarik.

Era berean, aldizkako izaerako prezio publikoak borondatezko bidean ordaintzeko aldia argitaratuko da.

**44. artikulua.- Gerorapen eta Zatipenak.**

Kontu-hartzaileak bidezko gertatzen diren neurriak hartuko ditu likidazio tributarioen burutzapen puntuala ziurtatzen eta bilketa-funtzioaren emaitzarik onena lortzen saiatzeko.

**45. artikulua.- Kobrantzen kontabilizazioa (S).**

1.- Bilketatik datozen sarrerak, beren aurrekontu-aplikazioa ezagutzen ez den bitartean, aplikatu gabeko Sarrera gisa kontabilizatuko dira. Horren kaltetan izan gabe, fondoak kutxa bakarrean barneratuta egongo dira.

2.- Korporazioak jaso behar dituen sarreren gainontzekoari dagokionez, sarrera-agindu bitartez formalizatuko dira, bidezko gertatzen den aurrekontu-kontzeptuari aplikatua eta Kontu-hartzailetzak fondoak sartu direla jakiten duen unean luzatua.

## II. KAPITULUA - DIRUZAINTZA

**46. artikulua.- Diruzaintza.**

1.- Udalaren eta zuzeneko kudeaketako bere organoen finantza-baliabide guztiek, aurrekontu-eragiketengatik nahiz aurrekontuz kanpokoengatik, osatzen dute Udal Diruzaintza.
2.- Udal Diruzaintza kutxa bakarreko printzipioaren bidez eraenduko da.
3.- Bilketaren zuzendaritza Diruzaintzari dagokio, bilketaren alorrean indarrean dagoen araudiaren aplikazioa eta baloreen kontaketa egiaztatzeko prozedura finkatu beharko duelarik.

4.- Diruzaintzaren erabilgarritasunak eta berauen aldaketak kontu-hartzailetza-kontrolari eta Kontabilitate Publikoaren erregimenari loturik geratzen dira.

**47. artikulua.- Fondoen egoera.**

1.- Udal Entitateak ondorengo kontu mota hauek edukiko ditu:
a) Sarreren eta gastuen operazio-kontuak.
2.- Aldi berean eta Korporazioko Presidenteak bidezkotzat ematen baldin badu, eta udal diruzainaren eskariz, ondorengo kontu mota hauen irekiera itundu ahal izango da:
a) Ordainketa-kontu murriztuak.
b) Gordailuketa eta fidantza-kontuak.
c) Diruzaintzako gerakinen kokapenerako finantza-kontuak.
3.- Kontu-irekiera eta itxieraren xedapena, berauen mugimendua eta beren funtzionaltasunaren finkapena, Presidentearen edota horretarako bere ordeko izendatzen duenaren eskumena izango da, berak ezartzen dituen baldintzetan.
4.- Operazioen ondorioetarako soilik eta Udalen Funtsetan inolako islatzerik izan gabe, honako kontu-mota hauek irekitzen ahalko dira:
a) Kobrantzarako murrizturiko kontuak
b) Eskudiruzko Kutxak
5.- Kobrantzarako Murrizturiko Kontuak kontu korronteen bitartez ireki ahalko dira entitate finantzarioetan, zeinetan ezarriko baitira kobrantzatik datozen funtsak. Aipaturiko kontu horien sinadurak Alkatetzak, Udaleko Diruzaintzak eta Kontuhartzaileak konformatuko dituzte.
Funtsen irteerak txeke izendunaren bidez edo bankuz transferitzeko aginduaren bidez egingo dira, eta Lasarte-Oriako Udalaren titularitatepean dauden beste kontuetara baizik ez dira destinatuko.

6.- Eskudiruzko kutxak irekitzen ahalko dira, Finantzazko Erakundeetako kontu korronteen bitartez, departamentu bakoitzaren izenean, ondoko izen honekin: "Lasarte-Oriako Udala, ................ Departamentua". Aipatutako kontu hauen sinadurak, Alkatetzaren eta Udal Diruzaintzaren baimenarekin, dagokion Departamentuko Presidentearenak eratuko dituzte, bai eta horretarako izendatzen den Teknikariarenak ere.

Udaleko Diruzaintzak departamentu desberdinetara beren obligazioak bete ditzaten transferitzen dituen funtsak bideratu ahal izatea dute helburu, frogatu beharreko ordainketa-aginduen edota kutxa finkoko abantzuen bitartez eta Departamentuaren beraren zerbitzuak eta jarduerak antolatzeagatik finkaturiko tasen kobrantzatik gertatzen diren diru-sarreren bitartez.

Funtsen irteerak txeke izendunaren bidez edo bankuz transferitzeko aginduaren bidez egingo dira, eta Lasarte-Oriako Udalaren titularitatepean dauden beste kontuetara baizik ez dira destinatuko, edota halako gastuak ordaintzeko zeini erantzuteko erauki baitzen kutxa finkoko abantzua.

Kontuak erabiltzeko baimen hori duten pertsonak izango dira aipatutako funtsen erabileraren erantzule, eta horiei buruzko kontuak eman beharko dituzte udaleko diruzaintzaren aurrean.

Kontu hauek kontu-hartzailearen kontrolpean daude eta, kasu orotan ekitaldia bukatzerakoan, departamentu bakoitzak beren egoeraren kontu eman beharko du.

**48. artikulua.- Sartu eta ordaintzeko bideak.**

1.- Udal Entitateen baliabideen bilketaren ekoizkina lehentasunez horretarako hitzartutako kreditu-entitate laguntzaileen bitartez sartuko da.

Diruzaintzaren proposamenez, Udal Entitatearen Presidenteak edozein finantza-entitatea laguntzaile gisa izendatzeko ahalmena izango du, bidezkotzat jotzen duenean.

2.- Udal Entitateak bere obligazioak banku-transferentzien bidez ordainduko ditu, horretarako ezarrita dauden ordainketa bideen gainontzekoa erabiliko delarik definituta dagoen transferentzia-sistema erabiltzea ezinezkoa denean.

**49. artikulua.- Diruzaintzaren Erregistroa.**

Diruzaintzaren erregistro bat prestatuko da, bertan, Udal Entitatean dauden kontu eta kutxa guztiei dagokienez, ondorengo atalak anotatu beharko direlarik:

a) Kontu edo Kutxa mota.
b) Izena.
c) Titulartasuna.
d) Kokalekua eta identifikazioa. Kontuak baldin badira, beren zenbakia, Banku, Finantza edo Kreditu Entitatea eta, hala dagokionean, sukurtsala konstarazi beharko dira.
e) Bere zaintzaren pertsona erantzuleak.
f) Bere mugimenduaz arduratzen diren pertsonak.
g) Berauei buruz ematen diren ebazpenak.
h) Organo eskumendunak ezartzen duen beste edozein.

**50. artikulua.- Diruzaintza-Plana.**

1.- Diruzainari egokituko zaio Diruzaintzaren Hiruhileko Plana lantzea, berau Alkatetzak onetsi beharko duelarik.

2.- Baliabide likidoen kudeaketa errentagarritasun gorena lortzeko irizpidearekin burutuko da, kasu orotan berehalako likidezia ziurtatuz obligazioak beren denbora-mugaegunetan bete ahal izateko.

3.- Aurrekontua gauzatzetik lortzen diren baliabideak betebehar guztiak betetzeko izango dira. Xede jakin batzuei afektaturiko diru-sarrera espezifikoetarako eta aurrekontuz kanpokoetarako, kutxa bakarraren printzipioak aginduko du. Hartara, gastuen aurrekontua gauzatzean, ez da bereiziko baliabideen helburua, hori likidazioan bakarrik jarriko baita agerian.

# *IV. TITULUA.- FINANTZA-ERAGIKETEI BURUZKOA*

**51. artikulua.- Epe ertain eta luzerako eragiketak.**

1.- 0,00ko mugarainoko kreditu-eragiketa ituntzea onesten da.

Era berean, Entitate honek izenpetutako azken kontratuan biltzen diren estipulazioen arabera itundu beharreko kontratu proiektua onetsi egiten da. Udal korporazioak zenbateko hauen araberako kapitalak hartu ahal izango ditu mailegu bidez, hauek dokumentatzeko modua edozein izanik ere, aurrekontuaren kapital-gastuak partez finantzatzeko.

2.- Kredituko operazioaren adjudikazioa gauzatzeko bete beharreko prozedura honako hau izango da:

- ✔ Kontratua prozedura negoziatu baten bidez adjudikatuko da. Alkateak abiatuko du prozedura, eskaintza ekonomikoaren eskaera bidaliz, espresuki bestela erabaki ezean, Lasarte-Oriako udalerrian bulegoa edo sukurtsala daukaten entitate finantzario guztiei.

- ✔ Kontratuaren terminoei buruzko aurretiazko tratuak askatasun osoz egingo dira, hura definitiboki formalizatzera iristeko edo ez.
- ✔ Kontratuko kondizioetatik, ondoren zehazten diren aspektuak dira negoziagai, betiere gaur egun dagoen kontratu-ereduaren kontra ez badoaz eta hauek gainditzen ez badira:

  * Kontratua itunduko den uneko Interes-tasa finkoak edo aldakorrak %3,00(e)ko erreferentzia maximoa izango du.
  * Interes-tasa aldagaia, Euribor+ %1,00(e)ko erreferentzia maximoarekin.
  * Amortizaio-aldia: 15 urte.
  * Irekitzearen komisioa: %0
  * Gabealdia: gehienez 2 urte.
  * Interesen likidazioa: Hiruhilabetetik behin.
  * Aldaketako epealdia: Hiruhilabetetik behin.
  * Biribiltzearen eraginik: Ez dago biribiltzerik.
  * Erabiltzeagatiko komisioa: Komisiorik gabe.
  * Aurrez kitatzeagatiko komisioa: Komisiorik gabe.
  * Mailegua erabiltzeko epea: Aukeratutako gabealdi-epearen parekoa
- ✔ Kontratuko kondizioen gainean enpresarekin adostasunera iritsitakoan, espedientearen ardura duen unitateak kontratazioko organoari zuzenduko dio adjudikatzeko proposamena, Udalarentzat onuragarriena jotzen duen proposamenaren aldekoa. Egindako hautua justifikatzeko, adierazi beharko du zein irizpide maneiatu dituen, zeinek, betiere, aurreko paragrafoan aipatutako aspektu negoziagaiei buruzkoak izan beharko baitute.

3.- Gobernu Batzordeari, eta kasua bada Alkateari, dagokio, Ogasun Batzordearen proposamenez, ondorengo eginkizunak:

- ✔ Mailegu-kontratuaren behin betiko onespena nahiz zorpetze-eragiketen interes-tasa, baldintzak, salbuespenak eta kreditu-eragiketaren gainontzeko ezaugarriak ezartzea, beti ere lehenago ezarritako baldintzak gainditzen ez badituzte.
- ✔ Mailegu-kontratuaren adjudikazioa

4.- Kontratatuleriko maileguaren itzulketaren berme gisa, Aurrekontuen sarreren tronkoaz gain, bai eta egungo eta etorkizuneko ondasun eta eskubide guztien orokor eta subsidiarioaz gain ere, ondorengoak emango dira:

*Aipatutako maileguaren, bere interesen, komisioen, gastuen eta zor zaion guztiaren ondorioz Lasarte-Oriako Udalaren hartzekodun izaerarekin, ondorengo baliabideek sortzen dituzten sarrerak bereziki lotetsi eta kargatzen dira: ITUNDUTAKO ZERGAK*

*Hitzartutako bermearen eraginkortasunerako, entitate adjudikaziodunari izaera errebokaezinez ahalmena ematen zaio korporazioak aipatutako kontratutik eratortzen diren obligazioak kitatzen dituen bitartean, dagokion Entitate edo organismo ordaintzailearen aurrean erabaki hau erakutsi hutsarekin Lasarte-Oriako Udalari aurreko paragrafoan zehaztutako baliabideetan duen partaidetzagatik zor zaizkion kopuruak efektibo egin ahal izan ditzan."*

5.- Alkateak baimena dauka aipatutako eragiketak udalerriaren izenean formalizatzeko.
6.- Aldez aurretik aipaturiko baimenak, kredituaren zifra adieraziko du itun daitekeen gehienezko kopuru gisa, bere zenbatekoa murriztu daitekeelarik gainontzeko baliabideen lehentasunezko aplikazioaren ondorioz, ondorio horretarako egon daitezkeen Diruzaintzako Gerakinen erabilpena barne, kreditu-eragiketak izaera subsidiarioa izango duelarik.

**52. artikulua.- Epe laburrerako eragiketak.**

1.- Gobernu Batzordeak, eta kasua bada Alkateak, Ogasun Batzordearen proposamenez, Diruzaintzaren unean-uneko zailtasunei aurre egin ahal izateko beharrezkoak gertatzen diren finantza-eragiketen formalizazioa onetsi ahal izango du, hauek dokumentatzeko modua edozein izanik ere, hamabi hilabeteko edo gutxiagoko itzulketa-epearekin. Adierazitako eragiketen saldo biziak ezin izango du inolako kasutan Aurrekontuaren %10 gainditu.

2.- Gobernu Batzordeari dagokio epe laburrerako zorpetze-eragiketen interes-tasa, baldintzak, salbuespenak eta gainontzeko ezaugarriak ezartzea, eta Alkateari aipatutako eragiketak, dagokionean, udalerriaren izenean formalizatzea.

**53. artikulua.- Kreditu-eragiketen birfinantzaketa eta ordezkapena.**

Alkateari baimena ematen zaio Ogasun Batzordearen proposamenez aurreko ekitalditan itundutako kreditu-eragiketak birfinantzatu eta/edo ordezkatzeko, merkatuko baldintzen aldaketaren ondorioz finantza-kargan ekonomia lortzea balizko denean, eta era berean, xede berarekin, kreditu-eragiketen itzulketa aurreratuari ekin dakion, beste batzuekin ordezkatu gabe. Kasu hau ematen bada, bidezko diren kredituak gaituko dira dagokion partidetan.

# *V. TITULUA.- OKERREKO SARREREN ITZULKETA ETA ORDAINKETEN ITZULERA*

**54. artikulua.- Sarreren itzulketa.**

Sarreren itzulketak aribideko ekitaldiari aplikatuko zaizkio, dagokion aurrekontu-kontzeptuaren bilketa gutxituz, itzulketa sortarazten duen sarrera zein aurrekonturi aplikatu zitzaion berdin diolarik.

**55. artikulua.- Ordainketa-itzulera.**

a) Ordainketa-agindu negatibo bat formalizatuko da, orain itzultzen den ordainketa kargatu zitzaioneko aurrekontu-partidari aplikatuz.
b) Itxitako ekitaldietatik datozenak: Zuzeneko sarrerari ekingo zaio dagokion sarrera-aginduaren bitartez, indarrean dagoen egituraren 380 kontzeptuari aplikatuz.

# *VI. TITULUA.- AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA*

**56. artikulua.- Aurretiazko eragiketak Gastuen egoera-orrian.**

1.- Ekitaldia amaitzen denean, obligazioaren onarpena dakarten udalen erabaki guztiak "O" fasean beren kontabilitate-adierazpena jaso dutela egiaztatuko da. Partikularki, ekitaldiaren amaieran beren ordainketa agindu gabe daukaten emandako dirulaguntzak "O" fasean kontabilizatu egingo dira, fondoen hartukizun efektiboa beharkizun jakin batzuek betetzearen baldintzapean baldin badago ere.

2.- Kudeaketa zerbitzuek kontratistei ekitaldiaren barruan fakturak aurkez ditzaten eskatuko diete. Horren kaltetan izan gabe, ekitaldiari egozgarri zaizkion kontsumo edo zerbitzuengatiko gastu jakin batzuen egoera-orria egiaztatu egingo da, abenduaren 31n fakturarik ez edukitzeagatik beren obligazio-onarpena formalizatua izan ez denean.

Baldin eta ekitaldiari dagozkion gastuak diren fakturak abenduaren 31z geroztik aurkezten badira, eta zerbitzu kudeatzailearen txostena badago erosketa edo zerbitzua gertatu dela justifikatzen duena, onartutako obligazioak amaitutako ekitaldiari inputatuko zaizkio, betiere onarpen hori hurrengo ekitaldiko otsailaren 28ra bitartean egiten bada.

3.- Ekitaldiaren azken egunean obligazio onartuak betetzeari loturik ez dauden gastu-kredituak deuseztatuta geratuko dira.

12. artikuluak adierazten duen gerakin-txertaketatik eratorritako salbuespenekin soilik.

**57. artikulua.- Aurretiazko eragiketak Sarreren egoera-orrian.**

1.- Abenduaren 31ra bitartean egon diren kobrantza guztiak ixten den Aurrekontuan aplikatu behar dira, xede horrekin Biltzaileari bidezko gertatzen diren aginduak emango zaizkiolarik.

Baldin eta abenduaren 31z geroztik ekitaldiari dagozkion kobratzeko eskubideen berri ematen bazaio Kontu-hartzailetzari, eta justifikatuta geratzen bada baliabide horren sortzapena lehenagotik gertatu dela, eskubidearen onarpena amaitutako ekitaldiari inputatuko zaizkio, betiere onarpen hori hurrengo ekitaldiko otsailaren 28ra bitartean egiten bada.

2.- Baldin eta aurreko artikulua oinarritzat hartuta onartutako obligazioek beharrezkoak badituzte onetsitako eta formalizatu edo xedatu gabeko maileguetatik datozen baliabideak, ekitaldian kontabilizatu ahalko dira eskubide onartuak, behar den zenbatekoan.

**58. artikulua.- Aurrekontuaren itxiera.**

1.- Udalaren Aurrekontuen itxiera eta likidazioa abenduaren 31n burutuko da.

2.- Likidazioaren egiaztagiri diren egoera-orriak, baita gerakin-txertaketaren proposamena ere, ondorengo ekitaldiaren martxoaren 31 baino lehenago burutu beharko dira.

3.- Udalaren Aurrekontuaren likidazioa Alkateak onetsiko du, Kontu-hartzaileak aldez aurretik txosten bat egin ondoren, eta osoko bilkurari jakinaraziko zaio.

**59. artikulua.- Diruzaintzako gerakina.**

Magnitude finantzario bat da, Udalak epe laburrera izango duen likiditate-soberakina adierazten duena. Funts likidoen eta kobrakizun dauden eskubideen baturak osatuko du, horiei pagakizun dauden obligazioak eta kobratzen zailtzat jotzen diren eskubideak kenduko zaizkielarik.

Bilketa zaila edota ezinezkoa duten eskubideen kopuruaren zehaztapena hala era indibidualizatuan nola oroharreko portzentaje baten ezarpenaren bidez burutu ahal izango da. Kasu orotan, bilketa zaila duten sarreratzat hartuko dira 24 hilabetetik gorako antzinatasuna dutenak, eskubidearen edota zordunaren ezaugarri bereziek bestelako kontsiderazioren bat frogatzen dutenean salbu.

Eskubide batek bilketa zaila edo ezinezkoa duela kontsideratzeak ez dakar sistematikoki bere deuseztapena ez eta kontuetan bere baja ere.

Diruzaintzako gerakina positiboa bada, kreditu-aldaketak finantzatzeko iturri izan ahalko da hurrengo ekitaldian.

Baldin eta Diruzaintzako Gerakina positiboa bada eta likidatzen den ekitaldian kreditu faltagatik kontabilizatu ezin izan diren gastuak badaude, egin daitezkeen jarduketa administratiboak alde batera utzita, berariazko aurrekontu-aldaketa bat tramitatuko da, gerakin horrekin finantzatua. Hori, Kontu-hartzailetzak aldez aurretik txostena eginda, alkateak onetsiko du, eta Ogasuneko Batzordeak horren berri jakingo du, ekitaldiaren likidazioarekin batera edo, kasua hala bada, geroago.

Diruzaintzako gerakina negatiboa bada, Kontu-hartzailetzak aldez aurretik txostena eginda, Udalbatzarrari proposamena zuzenduko zaio, oreka finantzarioa lehengoratzeko hartu beharreko neurriei buruz.

# *VII. TITULUA.- KONTROLA ETA FISKALIZAZIOA*

**60. artikulua.- Kontu-hartzailetzako kontrola.**

Funtzio kontu-hartzaile fiskalizatzailearen egikaritza, Fondoen Kontu-hartzailetzaren bidez burutuko da zuzenean.

**61. artikulua.- GASTUEI eta ORDAINKETEI buruzko FISKALIZAZIOAREN FASEAK.**

**A) *GASTUA BAIMENDU eta XEDATU AURREKO FISKALIZAZIOA eta GASTU-OBLIGAZIOA BAINO LEHENAGOKO KONTU-HARTZEA***

1.- Hurrengo atalean araututako aurretiazko fiskalizazio-erregimen mugatuaren kontra joan gabe, gastu bat egitea onesten duten Toki Erakundeko organoen ekintza guztiak aurretiazko fiskalizazio baten mende egongo dira, horien kalifikazioa edozein izanik ere.

Aurretiazko kontu-hartzailetza baten mende dauden ekintzen artean ondoko hauek daude:

a) Eduki ekonomikoa duten administrazio-helegiteak ebazten dituzten ekintzak.
b) Izenpetzen diren Hitzarmenak, eta antzeko izaera duen beste edozein ekintza, baldin eta eduki ekonomikoa badute.

Aurretiazko fiskalizazio hori egiten denean, egiaztatu egingo da ordenamendu juridikoak ezarritako izapideak eta betebeharrak betetzen direla, espedientea osatzen duten agiriak eta txostenak aztertuz.

Gastuak baimentzeko eta xedatzeko faseak ez dira aurretiazko fiskalizazioaren mende egongo, baldin eta ondokoekin loturik badaude:

a) Inbentarioan sartu ezin den materialaren gastuak.
b) Arau honen 38. artikuluan ezarritako gutxienekoak gainditzen ez duten kontratu txikiak.
c) Aldizkako izaera duten gastuak eta ondoz ondoko tartea duten gainerakoak, horien jatorri den ekintzaren edo kontratuaren edo haren aldaketen hasierako aldiari dagokion gastua fiskalizatu baldin bada.
d) 3.005,06 euro baino gutxiagoko gastuak, indarreko araudiarekin bat etorriz kutxa finkoko aurrerapen-sistemaren bitartez gauzatzen direnean.

2.- Aurrekontuaren araudiak aurreikusitakoaren arabera, Udaleko osoko bilkurak aurretiazko ikuskatzea onartzen eta ezartzen du, artikulu honetan landutako aspektuetara mugatuta, aipatutako obligazioen edo gastuen **ikuskatze mugatua** eragin zuten ekintzen, dokumentuen edo txostenen lagin adierazgarriaren gaineko ondoko ikuskatze osoaren bidezko egiaztapenaren kaltetan gabe.

LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

Orokorrean, gastuak eragiten dituzten eduki ekonomikoko ekintza guztien aurretiazko ikuskatzea eta kontu-hartzailetza jarraian adierazitako oinarrizko baldintza hauek egiaztatzera mugatuko dira:

a) Lotura mailan aurrekontu-kreditua izatea, eta aurrekontua egokia izatea. Alde horretatik, kreditua egokitzat joko da, udal diruzaintzaren gain dauden hartu beharreko edo sortutako eta ez preskribatutako obligazioak finantzatzen dituenean, horretarako legalki ezarritako baldintzak beteta.

b) Obligazioak edo gastuak erakunde eskudunak sortzea.
c) Gastua finantzatzeko baliabideak eraginkorki eskuragarri egotea.
d) Obligazioak edo gastuak aurrekontuaren egonkortasuna edo finantza-iraunkortasuna arriskuan ez jartzea.
e) Obligazioari edo gastuari sostengua ematen dioten dokumentuak egokiak izatea eta beharrezko sinadurak eta baldintzak izatea. Alde horretatik, gastuaren obligazioa aitortzeko dokumentazioak zerbitzua, hornidura, inbertsioa edo gastua behar bezala eman dela egiaztatzen duen arduradunaren sinadura eta identifikazioa izango ditu.
f) Konpromisozko kredituen eta urteanitzeko gastuen kasuan, Lurralde Historikoko Tokiko Erakundeen Aurrekontuetarako Foru Araudiak ezarritako mugak eta baldintzak betetzea.

g) Obligazioa edo gastua bere gain hartzen duen aurrekontu-sailak iragankortasun arauak betetzea, bai eta espezialitate- eta espezifikazio-arauak ere, gastuaren izaera funtzionalaren eta ekonomikoaren arabera, bai eta izaera organikoaren arabera ere, kasua balitz.
h) Kudeaketa-prozesuan duten garrantzia dela eta, Udaleko osoko bilkurak erabakitako bestelako aspektuak.

3.- Aurreko atalean ikusitako aspektuez gain, kontratuetatik, hitzarmenetatik eta dirulaguntzetatik, bai eta langileen gastuetatik eta bestelakoetatik ere ondorioztatutako obligazioak edo gastuak sortzen dituen ikuskatze mugatuak jarraian adierazitako aspektuak ere egiaztatuko ditu:

a) Langileen gastuetatik ondorioztatutako obligazioak edo gastuak sortzen dituzten ekintzetan, honako hau egiaztatuko da:

   1. Hutsik dauden lanpostu eta/edo lekuen probetarako deialdi bat onesten duten proposamenetan, bai halaber funtzionarioak edo aldizkako langileak izendatzen dituztenetan, lan-kontratupeko langileak, bien bitarteko langileak edo aldi baterakoak kontratatzen dituztenetan edo funtzionarioak zerbitzu-betekizunean barneratzekoak dituztenetan:

   - Indarreko ekitaldiko Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legeak eta gainontzeko legeria aplikagarriak ezarritako baldintzak eta mugapenak betetzea.
   - Departamentu kudeatzaileak txosten bat egin duenean, eta bertan, egoera horren ezohikotasuna, **premia eta indarreko** legeriak eskatzen duen berehalako izendapena justifikatzen denean.

   - Proposatutako gasturako legez eska daitezkeen baldintzak betetzen direla frogatzen duen Pertsonalburuaren txostena egotea.

     Txosten horrek, besteak beste, ondorengo zehaztasunak bildu beharko ditu:

     ► Udalbatzarrak onetsitako katalogoko lanpostuak eta/edo plantillako plazen barruan jasotako plaza identifikatuta egongo dira.
     ► Langileak berriro hartzeko indarreko tasa-mugak beteko dira, proposamena onetsiz gero berriro hartuko liratekeen langileen saldoari buruzko xehetasunarekin.

     ► Titulazioaren baldintzak plazaren eta/edo lanpostuaren ezaugarrietara egokituko dira eta, hala behar izanez gero, proposatutako pertsona horrek baldintza horiek eta lanpostuak eska ditzakeen gainerako baldintza bereziak betetzen dituela egiaztatuko da.

- ► Kontratua edo izendapena indarreko araudiaren arabera egokituko da, aplikatu beharreko araua eta modalitate berezia zehaztuz.
- ► Ordainsariak indarreko Hitzarmen edo Itunaren arabera egokituko dira.
- ► Publizitatea eta hautapen-prozesuaren emaitza ezagutarazi beharra beteko da, aplikagarri zaion legeria zein den adieraziz.

2. Hileko nominan ordaindu beharreko ordainsariak onesteko proposamenak
   - Pertsonaleko Buruak sinatutako proposamen laburtua egongo da.
   - Aritmetikoki egiaztatuko da, eta horretarako, nominaren koadratze osoa egingo da, aurreko hilean onetsitakoarekin alderatuz, eta egungo hilabeteko nominan izandako aldaketen batura aljebraikoa barneratuz.
3. Nominan izandako aldaketak:
   - Pertsonaleko Departamentuko Teknikari arduradunak egindako txosten horrek, besteak beste, ondorengo zehaztasunak jaso beharko ditu:
     - ► Hilabetean langileek hartutako Alta eta/edo Bajen zerrenda.
     - ► Udalbatzarrak onetsitako plusak (balio-aniztasunak, prestasuna, jaiegunetan lan egitea, gauekotasuna, aparteko orduak, eta abar): Langileari kontzeptu horiengatik hilero bere ohiko hileko soldata baino % 10 gehiagoko zenbatekoak aitortzen baldin bazaizkio, espedientearekin batera ehuneko hori gainditzen duten udal langileen zerrenda egiaztagarria erantsiko zaio, aldaketa horrek berekin dakartzan ordainsari-zehaztasunekin eta horien zenbatekoekin batera.
     - ► Ordainsari aldakorrak: Izaera finkorik edo aldian behingo muga-egunik ez duten ordainsariak aitortzen diren gertaeren kasuan (hobariak, kalte-ordainak...), organo eskudunak hartutako ebazpena edo erabakia gehitu beharko zaio espedienteari, eta ordainsari hori jasotzeko eskubidea aitortu beharko da.
4. Produktibitatea
   - Abenduko nominarekin batera lanpostua betetzearekin eta lanpostuari izendatutako helburuekin zuzenean loturiko xehetasun objektiboen inguruko egiaztagiriak gehituko dira.
   - Urteko absentismoaren nominarekin batera, hori bete izanaren egiaztagiriak eta ondorioztatzen diren ehunekoak gehituko dira.
5. Funtsezkotzat jotzen diren bestelako aspektuak, indarreko legeriaren arabera.

b) Obligazioak sortzen dituzten ekintzetan edo kontratuetatik ondorioztatzen diren gastuetan (obrak, hornidurak, zerbitzuak eta zerbitzu publikoen kudeaketa), espedienteetan ondorengo zehaztasunak eta/edo agiriak agertzen direla egiaztatuko da:

<u>A. GASTUAREN ONESPENA:</u>

- Agiriak, hautaketa-irizpideak eta horien balorazioak zein kontratazioprozedurak Sektore Publikoko kontratuen arloko indarreko legeriara egokitzea.
- Kontratua eta hautatutako prozedura justifikatzea.
- Egin beharreko lanaren Proiektua eta/edo Memoria eta horren Aurrekontua.
- Espedientea aplikatzekoa zaion araudian xedatutakora egokitzeari buruz Idazkaritza nagusiak egindako txostena.
- Aldaketa posibleen legearen arabera, kontratuen beharrezko aurreikuspena.
- Kontratuaren iraupena egiaztatzea eta justifikatzea, luzapenak barne.

- Aurrekontu-ekitaldi bat baino gehiagoren gain gauzatu behar diren kontratuetan, gastuaren sail kudeatzailearen arduradunek kontratuaren beharrezko denboraeta finantza-plangintza gauzatu izana.
- Lanetan, hasi aurreko zuinketa-akta, eta bukatutakoan, azken harrera akta sinatuta eta azken ziurtagiriaren onarpena.
- Euren gauzapena ekitaldi batera baino gehiagora luzatuz gero, baldintza orriek gastuan inplikatutako aurrekontu-ekitaldi bakoitzean eskuragarri dauden kontusailak eta zenbatekoak zehaztea.

B. GASTUAREN KONPROMISOA

- Kontratazio Mahairik eratu ez bada, arauzkoa ez delako, egiaztatu egin beharko da, kudeatzaileak prestatutako txostenaren bidez, espedientean ageri dela zein enpresari esleitzea proposatzen den, eta enpresa horrek aurkeztu dituela eskatutako kaudimen eta gaitasunaren betebeharrak betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak.
- Enpresaburua bere betebehar tributarioetan, Segurantza Sozialarekikoetan eta Udalarekikoetan egunean dagoela egiaztatzen duten agiriak gehituko zaizkio espedienteari.

- Behin betiko bermea, baldintza-agirian horrelakorik aurreikusi ez den kasuan izan ezik.
- Kontratazioko Mahaiak egindako bileren akta sinatuak eta, kasua hala bada, adjudikatzeko proposamena.
- Mahaiak egindako proposamenarekin bat etorriz kontratua esleitzen ez bada, kontratazio-organoaren erabaki arrazoitua egiaztatu beharko da.
- Ezohiko edo neurriz kanpoko prezio-murrizketak dituzten eskaintzak daudela aitortzen denean, egiaztatu egingo da lehiakideei informazioa eskatu zaiela eta dagokion zerbitzu teknikoak horren aldeko txostena egin duela.
- Prozedura negoziatua erabiltzen bada, egiaztatu egingo da lehiaketarako gonbidapena gutxienez 3 enpresari igorri zaiela, ezintasun arrazoituren bat egon ezean. Arau honen 38. artikuluan ezarritako gutxienekoa gainditzen ez duten kontratu txikietarako baldintza bera ezarriko da.

- Ezohiko edo neurriz kanpoko prezio-murrizketak dituzten eskaintzak daudela deklaratzen denean, egiaztatu egingo da lehiakideei informazioa eskatu zaiela eta dagokion zerbitzu teknikoak horren aldeko txostena egin duela.
- Mahaiak egindako proposamenarekin bat etorriz kontratua adjudikatzen ez bada, kontratazio-organoaren erabaki arrazoitua egiaztatu beharko da.

C. GASTU-ALDAKETAK

- Kontratu-aldaketaren justifikazioa
- Egin beharreko aldaketaren Proiektua eta/edo Memoria eta horren Aurrekontua.
- Idazkari nagusiak horri begira prestatutako txostena.

D. OBLIGAZIOA AITORTZEA:

- Dagozkion zerbitzuen adostasuna.
- Enpresa adjudikatarioak egindako faktura. Obra-kontratuetan, obraren jatorrizko Ziurtagiria gehituko da, obra-zuzendariak baimendutako zerrenda baloratuarekin.

E. BERMEA ITZULTZEA EDO ABALA BALIOGABETZEA.

- Kontratuko obligazioak betetzeari buruz eta kontratistari eska dakizkiokeen erantzukizunei buruz Zerbitzuak prestatutako txostena.

c) Diru-laguntzetatik ondorioztatutako obligazioak edo gastuak sortzen dituzten ekintzetan, honako hau egiaztatuko da:

- Diru-laguntzaren lerro hori Udal Batzarrak onetsitako diru-laguntzen plan estrategikoan jasota egongo da.
- Egin beharreko lanaren Proiektua eta/edo Memoria eta horren Aurrekontua.

- Diru-laguntzaren lerroak duen helburua ez da egongo Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuak araututako kontratuetan jasoa.
- Diru-laguntza kudeatuko duen Departamentuak txostena egingo du aukeratutako kontzesio-prozedurari buruz (Norgehiagoka, lehia librea edo hitzarmen nominatiboa) eta horren justifikazioa prestatuko du.
- Organo eskumendunak diru-laguntzak eman izanari buruzko proposamen justifikatua egingo du, aldez aurretik irizpena emanda, bidezkoa izanez gero, eta edonola ere departamentu kudeatzaileko teknikari arduradunak txostena egingo du proposamen hori onetsitako deialdiari egokitzen zaiola adieraziz, bai halaber onuradun guztiek eskatutako betebeharrak betetzen dituztela eta betebehar tributarioetan eta Segurantza Sozialarekikoetan egunean aurkitzen direla. Horrez gain, txostenean egiaztatuko da onuradunek ez dutela Udalak emandako lehenagoko diru-laguntzarik justifikatu edo itzuli beharrik, hori egiteko epea igaro ondoren.

- Hala egokituz gero, diru-laguntza kudeatuko duen departamentuak txostena prestatuko du horren justifikazioari buruz eta justifikazioa egiaztatuko du. Onuradunak justifikatu egingo du diruak horretarako erabiliko direla, deialdiaren oinarrietan edo hitzarmenean ezarritakoarekin bat etorriz eta diru-laguntzen inguruko legeriarekin bat etorriz.
- Funtsezkotzat jotzen diren bestelako aspektuak, diru-laguntzen arloko indarreko legeriaren arabera.

Eta gainera, hala egokituz gero, espedienteetan ondorengo agiriak eta/edo zehaztasunak ageri direla egiaztatuko da:

<u>A. NORGEHIAGOKAKO ETA LEHIA LIBREKO ERREGIMENETAN:</u>

- Oinarriak aldez aurretik onetsi, argitaratu eta fiskalizatu egingo dira, edo bestela, onetsi nahi diren oinarri berezien zirriborro bat gehituko da espedientean, eta horrelako kasuetan, deialdia egiteko ezinbesteko baldintza izango da oinarriak behin betiko onestea.

- Oinarri arautzaileei buruz txosten bat egingo du Idazkaritzak edo, bestela, Oinarri horien gainean sinatuko du, oinarriak idatzita dauden hitzekin bere adostasuna adierazteko.

<u>B. ZUZENEKO DIRU-LAGUNTZA NOMINATIBOEN ESPEDIENTEETAN:</u>

- Diru-laguntza izendunaren txostenean, prozedura-aukera konkurrentzia lehiakorraren salbuespen gisa justifikatzea.

d) Hitzarmenetatik ondorioztatutako obligazioak edo gastuak sortzen dituzten ekintzetan, honako hau egiaztatuko da:

- Espedientea kudeatuko duen departamentuko teknikari arduradunak txostena egingo du izenpetu beharreko hitzarmenaren egokitasuna justifikatuz.
- Txosten juridiko bat egingo da Hitzarmenaren edukiari buruz.
- Beste alderdia bere betebehar tributarioetan, Segurantza Sozialarekikoetan eta Udalarekikoetan egunean aurkitzen dela dioten egiaztagiriak, baldin eta Udalaren kontura betebehar ekonomikorik badu, dirutan nahiz espezietan.

d) Betebeharrak sortzen dituzten ekintzetan edo Ondasun Partikularren Errentamenduak eragindako gastuetan, ondoko hauek egiaztatuko dira:

- Ondasunaren titulartasuna jabearen izenean dagoela egiaztatzen duen erregistroko agiria.

- Errentamenduaren prezioari buruz adituak egindako balorazioa.
- Espedientea kudeatuko duen departamentuko teknikari arduradunak txostena egingo du izenpetu beharreko errentamenduaren egokitasuna justifikatuz.

- Klausula administratibo partikularren agiria, departamentu kudeatzaileak sinatua eta, zuzeneko eskurapena edo negoziatua denean, horrez gain, justifikazio-memoria bat zuzeneko errentamenduari buruz, horren adostasun juridikoa jasoz.
- Txosten juridiko bat egingo da kontratuaren edukiari buruz.
- Beste alderdia bere betebehar tributarioetan, Segurantza Sozialarekikoetan eta Udalarekikoetan egunean aurkitzen dela dioten egiaztagiriak, baldin eta Udalaren kontura betebehar ekonomikorik badu, dirutan nahiz espezietan.
- Errentatzaileak faktura aurkeztu duela.

e) Obligazioak edo Inbertsioetatik ondorioztatzen diren gastuak sortzen dituzten ekintzetan, aldez aurretik eta materialki, hurrengoa egiaztatuko da:
- Obrak, zerbitzuak edo eskurapenak benetan funts publikoek finantzaturik egin direla.

- Dagokion kontratuaren edukiarekin bat datozela (eginkizun hori langile teknikoen laguntzarekin egin ahal izango da, beharrezkoa dela jotzen bada).

Inbertsioaren zenbatekoa 50.000,00 €-koa edo gehiagokoa bada, BEZa kanpo, organo kudeatzaileek Kontu-hartzailetzari eskatu beharko diote egiaztapen hori egin dezala, inbertsioari harrera egin baino 20 egun lehenago. Eskaera horri begira, kontu-hartzailetzako organoak edo hark bere ordezko izendatzen duenak parte hartu beharko du obra, zerbitzua edo eskurapena errezibitzeko ekitaldian.

Aktan adieraziko da inbertsioaren egiaztapen materialaren emaitza, eta obrari, zerbitzuari edo eskurapenari errezepzioa egiteko ekitaldian parte hartzen duten guztiek izenpetuko dute, eta gutxienez, gastua kudeatuko duen departamentuko teknikari arduradunak, kontu-hartzaileak edo horiek beren ordezko izendatzen dituzten pertsonek eta adjudikatarioaren ordezkari batek ere parte hartu beharko dute, eta, hala egokituz gero, hautemandako hutsegiteak, horiek konpontzeko hartu beharreko neurriak eta harrera-ekitaldiko gertaera eta xehetasun garrantzitsuenak jasoko dituzte.

Akta horretan edo hori zabaltzen duen txostenean, lehiakideek, banaka edo taldeka, bidezkoak iruditzen zaizkien iritziak adierazi ahalko dituzte.

Gainerako kasuetan, bertaratuek sinatutako adostasun-aktaren bidez justifikatuko da inbertsioaren egiaztapena, eta edonola ere, gastua kudeatuko duen departamentuko teknikari arduraduna eta adjudikatarioaren ordezkari bat izango dira horiek, edo bestela departamentuko teknikari buruak prestatutako ziurtagiri baten bitartez egingo da.

f) Bestelako gastuak:
- Kutxako aurrerakinerako gehienezko gastu posiblea arautuko duen akordioa izatea.
- 18.000,00€ko edo gehiagoko ondare-erreklamazioetan, Euskadiko Batzorde Juridiko Aholkulariaren irizpena izatea.
- Bestelako funtsezko baldintzak, obligazioaren edo gastuaren arabera.

4. - Artikulu honen 2. zenbakiak aipatzen duen fiskalizazio mugatuaren mendeko betebeharrak edo gastuak beste fiskalizazio oso baten xede izan daitezke gerora, aipatutako fiskalizazio horren jatorri diren ekintza, agiri edo espedienteen lagin adierazgarri baten gainean egina, laginketa edo kontu-ikuskaritzako teknikak aplikatuz, kasu bakoitzean aplikagarri diren xedapenekin bat datozela egiaztatzeko eta kredituen kudeaketan legezkotasuna zein mailataraino bete den erabakitzeko.

Fiskalizazioa laginketa bitartez egina izan denean, zirkunstantzia hau txostenean espresuki konstarazi beharko da.

**B) *PAGAMENDUAREN KONTU-HARTZE FORMALA:***

1.- Pagatzeko aginduaren kontu-hartze formala Entitate Lokaleko Diruzaintzaren kontura pagamenduak egitea agintzen duten ekintzen gainean burutuko da.

2.- Kontu-hartze horren xedea pagatzeko aginduak egiaztatzea izango da:

- Organo eskumendunak xedatuko ditu horrelakoak.
- Obligazioa aitortzeko ekintzarekin bat etorriko dira.
- Diruzaintzako funtsak xedatzeko planarekin bat etorriko dira

**C) *PAGAMENDUAREN KONTU-HARTZE MATERIALA:***

1.- Pagamenduaren kontu-hartze materiala pagatzeko aginduen gainean burutuko da.

2.- Kontu-hartze horren xedea hauek egiaztatzea izango da:

- Organoak pagamendu hori gauzatzeko duen eskumena.
- Hartzailearen identitate zuzena.
- Behar bezala aitortutako zenbatekoa

**62. artikulua.- La FUNCIÓN INTERVENTORA sobre DERECHOS e INGRESOS.**

1.- Orokorki, edukin ekonomikoen gainean egingo den aldez aurretiko fiskalizazioa, kontabilitatean egingo den ohartemate bidez ordezkatuko da, eta geroan egingo diren egiaztatze ekintzen bidez, eta horretarako, laginketa edo kontu-ikuskaritza teknikak erabiliko dira.

2.- Hala ere, Aurretiazko Fiskalizazioa egin beharko da hurrengo kontzeptu hauengatik:

a) Sarrerako konpromisoa sortzen duten eragiketak direnean.
b) Ondarezko ondasunen salmenta edo zergapetzea, hirigintzako hitzarmenak eta /edo ekintzak egitetik sortutako sarrerak barne.
c) Jabari publikoko ondasunen gaineko emakidak
d) Ondare Ondasunen Zesioa.
e) Edozein motatako kreditu eragiketak hitzartzen direnean.

3.- Aurreko apartatuan jasotako alderdiez gain, kontratu, hitzarmen eta diru-laguntza edo beste batzuetatik datozen eskubideak edo diru-sarrerak sortzen dituzten ekintzen fiskalizazio mugatuak ondorengo alderdi hauek egiaztatuko ditu, aurrekoez gain:

a) **Ondarezko ondasunen errentamendutik** datozen eskubide edo diru-sarrerak sortzen dituzten ekintzetan, hauxe egiaztatuko da:
   - Ondasun hori udaleko inbentarioan ondarezko ondasun gisa inskribatuta dagoela dioen ziurtagiria.
   - Errentamenduaren prezioari buruz adituak egindako balorazioa.
   - Espedientea kudeatuko duen departamentuko teknikari arduradunak txostena egingo du izenpetu beharreko errentamenduaren egokitasuna justifikatuz.
   - Espedientea kudeatuko duen departamentuko teknikari arduradunak txostena egingo du izenpetu beharreko errentamenduaren eta legez aurreikusitako zirkunstantzia sozialen egokitasuna justifikatuz, errentagarritasun sozialaren lehentasunari dagokionez, horrelakorik egonez gero.
   - Txosten juridiko bat egingo da kontratuaren edukiari buruz.
   - Beste aldea bere betebehar tributarioetan, Segurantza Sozialarekikoetan eta Udalarekikoetan egunean aurkitzen dela dioten egiaztagiriak, baldin eta Udalaren kontura betebehar ekonomikorik badu, dirutan nahiz espezietan.
   - Legez ezarritako publizitatearen eta lehiaren eskakizunak bete direla.

b) Prekarioan erabiltzeko lagapenetatik datozen diru-sarrerak edo eskubideak sortzen dituzten ekintzetan, berriz, hauxe egiaztatuko da:
   - Ondasun hori udaleko inbentarioan ondarezko ondasun gisa inskribatuta dagoela dioen ziurtagiria.
   - Higiezinaren egoerari buruz adituak egindako balorazioa.
   - Lagapena egingo zaion subjektua beste administrazio edo entitate publiko bat izatea edo irabazi-asmorik ez duen entitate pribatua izatea.
   - Lagapeneko hitzarmen horrek ezarriko du zein helburu zehatzetarako erabili behar duen ondasun hori entitate edo instituzio onuradunak.

● Lagapeneko hitzarmenak ezarriko du zein izango den lagapenaren epe zehatza, bai eta higiezinaren gastuen eta mantentze-lanen banaketa ere lagapenak irauten duen bitartean.

● Hori kudeatuko duen departamentuaren txostenak bere iritzia eman behar du ondasunak izango duen helburu publikoari edo interes sozialari buruz, baita lagapenaren benetako prekariotasuna betetzeari buruz ere.
● Txosten juridiko bat egingo da lagapenaren edukiari buruz.

**63. artikulua.- Organo kontu-hartzailearen prerrogatibak.**

Kontu-hartzailetzako kontrolaren egikaritzaren ondorioetarako beroni loturikotzat hartzen da, beharrezkotzat jotzen diren aurrekari guztiak biltzeko, liburu, agiri eta kontuen azterketa eta egiaztaketa burutzeko, kontaketak eta birkontaketak egiaztatzeko, eta beharrezkotzat jotzen dituen txosten tekniko eta aholkuak eskatzeko aukera.

**64. artikulua.- Adostasunezko fiskalizazioa.**

Organo kontu-hartzaileak bere adostasuna adieraziko du, sinatutako diligentzia baten bitartez, horren arrazoia eman beharrik izan gabe, baldin eta funtzio kontu-hartzaileak bere baitan bilduko dituen gaiak egiaztatu ondoren fiskalizazioaren edo kontu-hartzearen xede den espedientea legearekin bat badator.

**65. artikulua.- Erreparoekin fiskalizatzea eta desadostasunak tramitatzea.**

1.- Bere funtzioaren egikaritzan Kontu-hartzaileak bere ezadostasuna adierazten badu aztertutako egintza, agiri edo espedienteen funtsa edo formari dagokionez, bere erreparoak idatzi bidez formulatu beharko ditu erabakia edo ebazpena hartu aurretik.
2.- Erreparoa gastuen erabilera, obligazioen onarpena edo ordainketa-aginduari buruzkoa baldin bada, espedientearen tramitazioa eten egingo da hura konpontzen den bitartean, ondorengo kasu hauetan:

a) Kredituaren askieztasunean oinarritzen denean edota proposaturikoa egokia ez denean.
b) Ordainketa-aginduak sortarazi zituzten egintzak fiskalizatuak izan ez direnean.
c) Espedientean funtsezko beharkizun edo tramiteak adierazten ez diren kasuetan. Beti ere:
    * Gastu hori onesteko eskumenik ez duen organo bati proposatzen zaionean.
    * Obligazioaren onarpena justifikatzen duten agirien artean irregulartasun larriak hautematen direnean edo hartzaileak duen eskubidea behar hainbat egiaztatzen ez denean.

    * Ekintza baliogabetzea eragin dezaketen eskakizunak edo tramiteak aipatu ez direnean, edo kudeaketa administratiboekin jarraituz gero Entitate Lokalaren Diruzaintzari edo hirugarrengo bati kalte ekonomikoak eragin diezazkiokeenean.
d) Erreparoa obra, eskuraketa eta zerbitzuen egiaztaketa materialen ondorio denean.

3. - Erreparo hori zuzentzen zaion organoak onartzen duenean, hautemandako hutsegiteak zuzendu egin beharko ditu eta jarduerak berriro bidali beharko dizkio organo kontu-hartzaileari, 15 eguneko epearen barruan.
4.- Erreparoak ukitzen duen organoa beronekin ados ez dagoenean, bere desadostasuna arrazoituko duen txostena egingo du, eta desadostasunari buruzko ebazpena eskatuko du. Ebazpen hori exekutagarria izango da, eta hori egitea dagokio:

a) Korporazioaren Osoko Bilkurari erreparoak ondorengo hauei buruzkoak direnean:
    * Kredituaren askieztasunean oinarritzen denean.
    * Bere eskumeneko obligazio edo gastuei buruzkoak direnean.
b) Alkateari gainontzeko kasuetan.

5. - Kentzea alkate-presidenteari dagokion eragozpenen izapidetzeari dagokionez, honek bere irizpidearen arabera konpontzeko beharrezkotzat jotzen dituen txostenak bildu ahal izango ditu. Alde horretatik, etete-ondorioak ez dituzten arauen betearazpenari buruzko kontu-hartzailetzaren iritziak, ez dira nagusituko kudeaketa-erakundeen iritzien aurrean, ez eta alkatepresidenteak finantza-babesa esleituta duen Administrazioaren arloko kontrol-erakunde eskudunari eska dakizkiokeen txostenen aurrean ere.

6. -Erakunde kontu-hartzaileak eutsitako irizpidea jarraitu ezean, bere arduradun teknikoaren edo zuzendariaren bidez, erakunde kudeatzailea arduratuko da, erakunde kontuhartzailearen oharra ikusita eta aztertuta, hori hartu dela zehazki jakinarazteaz, akordioa hartzeko ebazpenean.

7. - Espedientean hautemandako akatsak funtsezkotzat jotzen ez diren eskakizunak edo tramiteak edota Ogasun Lokalak arautzen dituen Legearen testu bateratuko 216.2 artikuluan jasotako gainerakoak ez betetzeagatik egin direnean, Kontu-hartzailetzak aldeko txostena egin ahalko du, baina hutsegite horiek espedientea onetsi aurretik zuzentzearen baldintzapean geratuko da ekintza horren eraginkortasuna. Organo kudeatzaileak organo kontu-hartzaileari igorriko dizkio akats hori zuzendu izana justifikatuko duten agiriak.

8.- Erakunde kontu-hartzaileak egokitzat jotako behaketa osagarriak egin aha l izangoditu, horiek dagozkien espedienteen izapidetzean inolako etendura-eraginik izan gabe. Gainera, behaketa osagarri horiei dagokienez, ez da desadostasun planteamendua egin beharko.

9. -Urtero, Kontu Orokorraren espedientearen izapidetzearekin batera, eta barne-kontroleko testu honetan bildutako baldintzetan, Kontu-hartzailetzako organoak txostena helaraziko dio osoko bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez erakundeko presidenteak hartutako ebazpen guztien inguruan; halaber, diru-sarreren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio.

Txostena, Herri Kontuen Euskal Epaitegiari eta indarreko legeriak aurreikusitako gainontzeko erakundeei bidaliko zaie, eta horri toki-erakundeko presidenteak eta udalbatzaren osoko bilkurak adierazitako eragozpenen kontra hartutako ebazpen eta hitzarmen guztiak erantsiko zaizkio; bai eta diru-sarreren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena ere. Dokumentazio horrez gain, tokiko korporazioaren justifikazio-txostenak aurkeztu beharko dira, hala badagokio.

## XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena: Ezdeusak edo hondarrak deklaratutako efektuak zuzenean besterendu ahalko dira, enkantera atera beharrik gabe, baldin eta alkateak horrela erabakitzen badu eta haren zenbateko kalkulatua ez bada 601,01 eurotik gorakoa.

Bigarrena: Fakturazioko obligazioak erregelatzen dituen 61/2004 DEKRETU FORAL ekainaren 15ekoak ezarritakoaren bertutez, hornitzaileek egiten dituzten operazio bakoitzeko nahitaez jaulki eta entregatu behar dituzten fakturek honako datu hauek jaso behar dituzte:

a) Zenbakia eta, hala badagokio, seriea. Serie bakoitzaren barruan fakturen zenbakiak elkarren segidan joango dira.
b) Fakturaren data.
c) Izena eta deiturak edo sozietate izen osoa, bai faktura egitera behartutakoarenak bai eta eragiketen hartzailearenak.
d) Faktura egitera behartutakoak eragiketa egiteko erabili duen identifikazio fiskaleko zenbakia, dela Espainiako Administrazioak emana, dela Europako Batasuneko beste estatu bateko administrazioak emana.
e) Helbidea, bai faktura egitera behartutakoarena eta bai eragiketen hartzailearena.

f) Eragiketen deskripzioa, beren oinarri ezargarria abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legea egokitzekoak 78. eta 79. artikuluetan definitutako eran zehazteko beharrezkoak diren datu guztiak, eta haren zenbatekoa. Eragiketa horien zergarik gabeko prezio unitarioa ere jarriko da, bai eta prezio unitario horretan sartu gabe geratu den edozein deskontu edo beherapen ere.

g) Eragiketei aplikatutako zerga tasa edo, hala bada, zerga tasak.
h) Bidezkoa denean jasanarazten den zerga kuota, bereizita adieraziko dena.
i) Dokumentatzen diren eragiketak zein egunetan egin diren edo, bestela, ordainketa aurreratua noiz jaso den, data hori beti ere faktura egiten den egunarekin bat ez badator.

Faktura berean dokumentatzen diren eragiketei oinarri ezargarrian dagokien zatia honako kasuotan adierazi beharko da bereizita:

* Dokumentatzen diren eragiketen artean, batzuk Balio Erantsiaren gaineko Zergatik salbuetsita edo lotu gabe daudenean, eta beste batzuek zirkunstantzia horiek betetzen ez dituztenean.
* Aipatzen diren eragiketak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren tasa bati baino gehiagori lotuta daudenean.

Nolanahi ere, txartel zenbakidunak edo, horien ezean, makina erregistratzaileek jaulkitako tiketak baliatu ahalko dira honako operazio hauen sinestamenduen ordez:

✔ Xehekako salmentak, are entregatutako produktuen fabrikatzaile edo elaboratzaileek egindakoak.

✔ Anbulantziaz egindako zerbitzuak edo salmentak.
✔ Kontsumitzaileari etxera egindako zerbitzuak edo salmentak.
✔ Pertsonen garraioa.
✔ Ostalaritzako eta sukaldaritzako hornidura, jatetxeek, tabernek, kafetegiek, txokolategiek, hortxategiek eta tankerako establezimenduek emana.
✔ Momentuan bertan kontsumitzeko edari edo janarien hornidura, lehenago aipatutako establezimenduek emanak.
✔ Dantza-salak eta diskotekak.
✔ Telefono-zerbitzuak.
✔ Ile-apaindegi eta edergintzako institutuen zerbitzuak.
✔ Kirol-instalazioen erabilera.
✔ Argazkien errebelatua eta estudio fotografikoak.
✔ Ibilgailuak aparkatzeko zerbitzuak.
✔ Bideoklubeko zerbitzuak.

Txartel edo tiketek, betiere, honako datu hauek jaso beharko dituzte:

a) Zenbakia eta, hala badagokio, seriea
b) Tiketa eta kopia egitera behartutakoaren identifikazio fiskaleko zenbakia eta, orobat, izen-deiturak edo sozietate izen osoa.
c) Aplikatu den zerga tasa edo «BEZa barne» espresioa.
d) Kontraprestazio osoa.

Hirugarrena: Fakturak edo ordezko agiriak egiteko epea. Fakturak edo ordezko agiriak hilabeteko epean egin beharko dira eragiketa egiten den unetik aurrera kontatuta.

Laugarrena. Aurrekontuaren egokitzapen teknikoak.

Finantza eta Aurrekontuetako zuzendari nagusiari baimena ematen zaio aurrekontuan bidezko egokitzapen teknikoak egiteko, horiek berrantolaketa administratiboen ondorioz beharrezkoak direnean edo haien xedea sarrerak eta gastuak kontabilitatean egoki egoztea denean. Behar diren aurrekontu partidak sortuko ditu horretarako.

Bosgarrena. Saldoak araztea.

Ogasun eta Finantza Departamentuari dagokio kontuetan sortutako saldoak zuzentzea eta araztea, betiere benetan exijigarri edo gauzagarri diren kreditu edo zorrak kontabilitatean jasota gera daitezen.

## AMAIERAKO XEDAPENAK

Lehena: Aurrekontuaren Exekuziorako Udal Arau honetan aurreikusita ez dagoen gainerantzekoan, indarrean dagoen legerian ezarritakoa aplikatuko da.

Bigarrena: Honako oinarri hauek interpretatzeko eskumena duen organoa Korporazioko presidentea da, betiere idazkariak edo kontu-ikuskatzaileak aldez aurretik txostena eginda, bakoitzaren eskumenen arabera.

Hirugarrena: Transkribatutako Aurrekontuaren Exekuziorako Udal Araua behin betirakotzat hartuko da eta Korporazioak Osoko Bilkuran onesten baldin badu aplikatu egingo da, eta Aurrekontuaren Indarraldian zehar eraenduko du bakarrik.

KONTU-HARTZAILEAK ALKATEAK IDAZKARIAK

LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

# I. ERANSKINA: EGITURA ORGANIKOA

| *Depart.* | *Sekz.* | *Izendapena* | *Aurrekontu Arduraduna* |
|---|---|---|---|
| 02 | | ADMINISTRAZIOA | |
| | 01 | Gobernu Organuak | Alkateak edo Asesor(a) de Gabinete |
| | 02 | Idazkaritza Nagusia | Idazkaritza Nagusiaren Buruzagiak. |
| | 03 | Barne Erregimena | Barne Erregimenaren Buruzagiak edo, horrelakorik ezean, Idazkariak. |
| | 04 | Udaltzaingoa | Udaltzaingoaren Buruzagiak. |
| | 05 | Informatikako Zerbitzuak | Informatikako Zerbitzuen Buruzagiak. |
| | 06 | Herritarren Parte-Hartzea | Herritarren Parte-Hartzearen Buruzagiak edo, horrelakorik ezean, Idazkaritza Nagusiaren AOTk. |
| 03 | | EKONOMIA ETA ONDAREA | |
| | 01 | Kontu-ikuskatzailetza, Ogasuna eta Ondarea | Kontu-ikuskatzailetza, Ogasuna eta Ondarearen Buruzagiak. |
| | 02 | Diruzaintza | Diruzaintzaren Buruzagiak. |
| 04 | | KULTURA ETA HEZKUNTZA | |
| | 01 | Kultura | Kulturaren Buruzagiak. |
| | 02 | Hezkuntza | Hezkuntzaren Buruzagiak. |
| 05 | | GAZTERIA, JAIAK ETA KIROLAK | |
| | 01 | Jaiak | Jaien Buruzagiak. |
| | 02 | Gazteria | Gazteriaren Buruzagiak. |
| | 03 | Kirolak | Kirolen Buruzagiak. |
| 06 | | EUSKARA | EUSKARAren Buruzagiak. |
| 07 | | ZERBITZU SOZIALAK, BERDINTASUNA, KOOPERAZIOA, OSASUNA ETA SOZIO-EKONOMIA | |
| | 01 | Zerbitzu Sozialak | Zerbitzu Sozialen Buruzagiak. |
| | 02 | Sozio-ekonomia | Sozio-ekonomiaren Buruzagiak. |
| 08 | | HIRIGINTZA, INGURUGIROA ETA OSASUNA | |
| | 01 | Ingurugiroa eta Osasuna | Ingurugiroa eta Osasunaren Buruzagiak. |
| | 02 | Hirigintza | Hirigintzaren Buruzagiak. |
| 09 | | ZERBITZU PUBLIKOAK | ZERBITZU PUBLIKOen Buruzagiak eta, bere kasuan, Argiteri Publikoaren arduraduna. |

LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

## II. ERANSKINA: EGITURA PROGRAMATIKOA

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 1 | | | | OINARRIZKO ZERBITZU PUBLIKOAK. |
| | 13 | | | Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna. |
| | | 130 | | Segurtasunaren eta babes zibilaren administrazio orokorra. |
| | | 132 | | Segurtasuna eta ordena publikoa. |
| | | 133 | | Zirkulazioaren eta aparkalekuen antolamendua. |
| | | 134 | | Hiri-mugikortasuna. |
| | | 135 | | Babes zibila. |
| | | 136 | | Prebentzio eta su-hiltzaile zerbitzua eta sorospena. |
| | 15 | | | Etxebizitza eta hirigintza. |
| | | 150 | | Etxebizitzaren eta hirigintzaren administrazio orokorra. |
| | | 151 | | Hirigintza: plangintza, kudeaketa, exekuzioa eta hirigintza-diziplina. |
| | | 152 | | Etxebizitza. |
| | | | 152.1 | Babes publikoko etxebizitzaren sustapena eta kudeaketa. |
| | | | 152.2 | Eraikuntzen kontserbazioa eta birgaitzea. |
| | | | 152.3 | Etxebizitza alokatzeko laguntzak. |
| | | | 152.9 | Etxebizitzaren administrazio orokorra. |
| | | 153 | | Bide publikoak. |
| | | | 153.1 | Biztanle guneetarako sarbideak. |
| | | | 153.2 | Bide publikoen zolaketa. |
| | | | 153.3 | Hiri altzariak . |
| | | | 153.4 | Zerbitzuak mantentzea. |
| | 16 | | | Komunitate-ongizatea. |
| | | 160 | | Estolderia. |
| | | 161 | | Edateko uraren etxez etxeko hornikuntza. |
| | | 162 | | Hondakinak batu, kudeatu eta tratatzea. |
| | | | 162.1 | Hondakinen bilketa. |
| | | | 162.2 | Hiri-hondakin solidoen kudeaketa. |
| | | | 162.3 | Hondakinen tratamendua. |
| | | 163 | | Bideak garbitzea. |
| | | 164 | | Hilerria eta hileta-zerbitzuak. |
| | | 165 | | Kale-argiteria. |
| | | 166 | | Hondakin-uren ebakuazioa eta tratamendua. |
| | 17 | | | Ingurumena. |
| | | 170 | | Ingurumenaren administrazio orokorra. |
| | | 171 | | Parkeak eta lorategiak. |
| | | 172 | | Ingurumenaren babesa eta hobekuntza. |
| | | | 172.1 | Hiriguneetako hots-, argi- eta atmosfera-kutsaduraren aurkako babesa. |
| | | | 172.9 | Ingurumenaren babesa eta hobekuntza. |
| | | 173 | | Hondartzak. |
| 2 | | | | BABES ETA SUSTAPEN SOZIALEKO JARDUKETAK. |
| | 21 | | | Erretiro pentsioak. |
| | | 211 | | Erretiro pentsioak. |
| | 22 | | | Enplegatuen aldeko beste prestazio ekonomiko batzuk. |
| | | 221 | | Enplegatuen aldeko beste prestazio ekonomiko batzuk. |
| | 23 | | | Gizarte-zerbitzuak eta gizarte-sustapena. |
| | | 230 | | Gizarte zerbitzuen arloko administrazio orokorra. |
| | | | 230.1 | Beharrizan sozialeko egoerak ebaluatze eta berri ematea. |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | 230.2 | Lankidetza eta garapenerako laguntza (GKE). |
| | | 230.9 | Gizarte zerbitzuen arloko administrazio orokorra. |
| | 231 | | Lehen mailako gizarte-laguntza. |
| | | 231.1 | Ingurunean Mantentzeko Zerbitzuak. |
| | | 231.2 | Promozioa, parte-hartzea eta gizatetzea. |
| | | 231.21 | Genero-berdintasunaren sustapena. |
| | | 231.22 | Promozioa, parte-hartzea eta gizatetzea. |
| | | 231.4 | Ostatu emateko Zerbitzuak. |
| | | 231.41 | Apartamentu tutelatuak. |
| | | 231.49 | Zaharren egoitzak. |
| 24 | | | Enpleguaren sustapena. |
| | 241 | | Enpleguaren sustapena. |
| | | 241.1 | Enplegu zerbitzuen arloko administrazio orokorra. |
| | | 241.2 | Enplegu programak. |
| 3 | | | LEHENTASUNEZKO ONDASUN PUBLIKOEN EKOIZPENA. |
| 31 | | | Osasuna. |
| | 311 | | Osasungarritasun publikoaren babesa. |
| | 312 | | Ospitaleak, laguntza-zerbitzuak eta osasun-zentroak. |
| 32 | | | Hezkuntza. |
| | 320 | | Hezkuntzaren arloko administrazio orokorra. |
| | 321 | | Haur eta lehen hezkuntzako ikastetxeak sortzea. |
| | 322 | | Bigarren hezkuntzako ikastetxeak sortzea. |
| | 323 | | Haur eta lehen hezkuntzako ikastetxeen eta hezkuntza bereziko ikastetxeen funtzionamendua. |
| | | 323.1 | Haur eta lehen hezkuntzako ikastetxeen administrazio orokorra. |
| | | 323.2 | Haur hezkuntzako ikastetxeak. |
| | | 323.3 | Lehen hezkuntzako ikastetxeak. |
| | | 323.31 | Zumaburu Ikastetxea. |
| | | 323.32 | Sasoeta Ikastetxea. |
| | | 323.33 | Pablo Garaikoetxe Ikastetxea. |
| | | 323.34 | Landaberri Ikastetxea. |
| | 324 | | Bigarren hezkuntzako ikastetxeen funtzionamendua. |
| | 325 | | Derrigorrezko eskolatzea betetzen dela zaintzea. |
| | 326 | | Hezkuntzako zerbitzu osagarriak. |
| | | 326.1 | Hezkuntzako zerbitzu osagarriak. |
| | | 326.2 | Musika eskola. |
| | | 326.3 | Helduen Heziketa Iraunkorra. |
| | | 326.7 | Eskola Jantokia. |
| | 327 | | Herritarren bizikidetza sustatzea. |
| 33 | | | Kultura. |
| | 330 | | Kulturaren arloko administrazio orokorra. |
| | 332 | | Liburutegi eta agiritegiak. |
| | | 332.1 | Liburutegi publikoak. |
| | | 332.2 | Agiritegiak. |
| | 333 | | Kultura-ekipamenduak eta museoak. |
| | | 333.1 | Kultur-Ekipamenduak: Kultur-Etxea. |
| | | 333.9 | Bestelako Kultur-Ekipamenduak. |
| | 334 | | Kulturaren sustapena. |
| | | 334.1 | Kulturaren sustapena. |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | 334.2 | Kultur programazioa. |
| | | 334.21 | Ikus-entzunezkoa. |
| | | 334.22 | Arte Eszenikoak. |
| | | 334.23 | Musika Programazioa. |
| | | 334.29 | Bestelako Kultur programazioa. |
| | 335 | | Euskara. |
| | | 335.1 | Euskara. |
| | | 335.2 | Euskaltegia. |
| | 336 | | Ondare historiko-artistikoaren babesa eta kudeaketa. |
| | 337 | | Astialdia betetzeko instalazioak (jarduerak barne). |
| | | 337.1 | Jubilatuen elkartea. |
| | | 337.11 | Jubilatuen elkartea:Sustapen-jokaerak. |
| | | 337.12 | Jubilatuen etxea (Eraikina). |
| | | 337.2 | Gazteria. |
| | | 337.21 | Gazteria. |
| | | 337.22 | Gazteleku (Eraikina). |
| | | 337.9 | Bestelako Instalazioak. |
| | 338 | | Herri-jaiak eta ospakizunak. |
| 34 | | | Kirola. |
| | 340 | | Kirolaren arloko administrazio orokorra. |
| | 341 | | Kirola sustatzea eta bultzatzea. |
| | 342 | | Kirol instalazioak. |
| | | 342.1 | Kirol instalazioak: Polikiroldegia. |
| | | 342.2 | Kirol instalazioak: Mitxelin. |
| | | 342.9 | Bestelako Kirol instalazioak. |
| 4 | | | JARDUKETA EKONOMIKOAK. |
| 41 | | | Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza. |
| | 410 | | Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako administrazio orokorra. |
| | 412 | | Nekazaritza eta abeltzaintzako egituren eta ekoizpen-sistemen hobekuntzak. |
| | 414 | | Landa garapena. |
| | 415 | | Arrantza-baliabideen babesa eta garapena. |
| | 419 | | Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako beste jarduketa batzuk. |
| 42 | | | Industria eta energia. |
| | 420 | | Industriaren eta energiaren administrazio orokorra. |
| | 422 | | Industria. |
| | 423 | | Meatzaritza. |
| | 425 | | Energia. |
| 43 | | | Merkataritza, turismoa eta enpresa txiki eta ertainak. |
| | 430 | | Merkataritza, turismo eta enpresa txiki eta ertainen administrazio orokorra. |
| | 431 | | Merkataritza. |
| | | 431.1 | Azokak. |
| | | 431.2 | Merkatuak, hornidura-azokak eta lonjak. |
| | | 431.3 | Kale-merkataritza. |
| | | 431.4 | Abere hiltegia. |
| | | 431.9 | Tokiko merkataritza. |
| | 432 | | Informazio turistikoa eta turismoaren sustapena. |
| | 433 | | Enpresa-garapena. |
| | 439 | | Beste jarduketa sektorial batzuk. |

| | | | |
|---|---|---|---|
| 44 | | | Garraio publikoa. |
| | 440 | | Garraioaren arloko administrazio orokorra. |
| | 441 | | Bidaiarien garraioa. |
| | | 441.1 | Bidaiarien taldekako hiri-garraioa. |
| | | 441.2 | Beste bidaiari-garraio mota batzuk. |
| | 442 | | Garraio-azpiegiturak. |
| | 443 | | Salgaien garraioa. |
| 45 | | | Azpiegiturak. |
| | 450 | | Azpiegituren arloko administrazio orokorra. |
| | 452 | | Baliabide hidraulikoak. |
| | 453 | | Errepideak. |
| | 454 | | Auzo-bideak. |
| | 459 | | Beste azpiegitura batzuk. |
| 46 | | | Ikerketa, garapena eta berrikuntza. |
| | 462 | | Zerbitzu publikoekin zerikusia duten ikerketa eta azterlanak. |
| | 463 | | Ikerkuntza zientifikoa, teknikoa eta aplikatua. |
| 49 | | | Beste jarduketa ekonomiko batzuk. |
| | 491 | | Informazioaren gizartea. |
| | 492 | | Ezagutzaren kudeaketa. |
| | 493 | | Kontsumitzaile eta erabiltzaileen babesa. |
| 9 | | | JARDUKETA OROKORRAK. |
| 91 | | | Gobernu-organoak. |
| | 912 | | Gobernu-organoak. |
| 92 | | | Zerbitzu orokorrak. |
| | 920 | | Administrazio orokorra. |
| | | 920.1 | Administrazio orokorra. |
| | | 920.2 | Idazkaritza orokorra. |
| | | 920.3 | Zerbitzu Informatikoak. |
| | | 920.4 | Eraikin Publikoak. |
| | 922 | | Erakunde lokalen koordinazioa eta antolakuntza instituzionala. |
| | 923 | | Oinarrizko informazioa eta informazio estatistikoa. |
| | | 923.1 | Biztanleen udal erroldaren kudeaketa. |
| | 924 | | Herritarren parte-hartzea. |
| | 925 | | Herritarrenganako arreta. |
| | 926 | | Barne komunikazioa. |
| | 929 | | Ustekabekoak eta sailkatu gabeko funtzioak. |
| | | 929.1 | Bake epaitegia. |
| | | 929.2 | Erlijioen Erakundeak. |
| | | 929.9 | Ustekabekoak eta sailkatu gabeko funtzioak. |
| 93 | | | Finantza- eta zerga-administrazioa. |
| | 931 | | Politika ekonomikoa eta fiskala. |
| | 932 | | Tributu-sistemaren kudeaketa. |
| | | 932.1 | Tributu-sistemaren kudeaketa. |
| | | 932.2 | Zerga-bilketa zerbitzua. |
| | 933 | | Ondarearen kudeaketa. |
| | | 933.1 | Ondasun patrimonialaren kudeaketa. |
| | | 933.2 | Ondarezko Eraikinak. |
| | 934 | | Zorraren eta diruzaintzaren kudeaketa. |
| 94 | | | Beste administrazio publiko batzuei eginiko transferentziak. |
| | 941 | | Autonomia-erkidegoari eginiko transferentziak. |

| | |
|---|---|
| 942 | Foru aldundiari, mankomunitateei eta partzuergoei eginiko transferentziak. |
| 943 | Beste erakunde lokal batzuei eginiko transferentziak. |
| 944 | Estatuaren Administrazio Orokorrari eginiko transferentziak. |
| 0 | ZOR PUBLIKOA. |
| 01 | Zor publikoa. |
| 011 | Zor publikoa. |

LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

# 2. AURREKONTUAREN AZALPEN-MEMORIA

## 2.1 AURREKONTUAREN PROIEKTUAREN EDUKIA

Aurtengo ekitaldiko aurrekontuaren zenbatekoa 28.162.013,79€-koa da.

Aurkezten dugun aurrekontuak alboko grafikoan ikus daiteke zer bilakaera izan duen.




| | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|---|
| SARRERAK | 22.399.149,83 | 23.700.575,92 | 25.981.142,88 | 25.184.831,91 | 28.162.013,79 |
| GASTUAK | 20.748.547,86 | 23.777.471,63 | 22.790.458,59 | 25.184.831,91 | 28.155.993,99 |

Jakina denez, Aurrekontuak Entitatearen 2019. urteko ekitaldiko diru-sarrera eta gastuen aurreikuspena modu sistematikoan jaso behar du, eta, horrez gain, plangintza ekonomikorako oinarrizko dokumentua da.

Halaber, erregulazio-araudiak ezartzen dizkion helburuak betetzen ditu, hain zuzen ere jarduera finantzarioen gardentasuna bermatzeko eta horren fiskalizazioa eta kontrola ahalbidetzeko

Aurrekontuarekin batera, Udaleko langile-plantilla onartzea tramitatzen da, bai halaber lanpostuen eta aipatu Aurrekontuari dagozkion Exekuzio Oinarrien arteko erlazioa.

Diru-sarrera eta Gastuen Egoerak orekaturik ageri dira eta ezarritako egonkortasun-helburua betetzen da. Inbertsioak kreditura jotakoak dira, hain justu ere hirigintzako aprobetxamenduak, udal ondareko besterentzea eta kapital-transferentziak gauzatzean lortzen diren diru-sarrerekin.

Horren guztiaren ondorioz, aurrekontuen egonkortasunari dagokionez, 6.940,57(e)ko SUPERABITA sortuko da.

### 2.1.1 AURREKONTUEN PROIEKTUA GAURKO EGOERA EKONOMIKOAN

Bizi dugun egoera ekonomikoa astiro hobetuz badoa ere, hobekuntza hori ez da modu berean helarazten herritar guztiengana, prekaritatezko egoerak mantentzen baitira, administrazioaren arreta berezia eskatzen dutenak, eta horixe islatzen da aurrekontu hauetan. Botere publikook mantendu behar dugun politika sozialak dependentziazko egoeretatik irteten lagundu behar die pertsona desabantailatuenei eta azken “krisiak" sistematik kanporatu dituenei, bereziki enplegu-merkatutik kanporatuei. Inbertsio publikoek aberastasuna eta enplegua sortuko dituen motor ekonomikoa ere izan behar dute. Politika publikoek berekin ekarri behar dute herritar guztien bizi-baldintzak hobetzea, politika sozial distributiboak garatuz, pertsona guztiei aukera-berdintasuna bermatuko dietenak eta gure herriko ehundura ekonomikoa hobetzea ahalbidetuko dutenak, gure enpresei erakargarri egingo zaizkien kondizioak sorraraztearen alde eginez.

Herritarrek maiuskulazko politikan zuten konfiantza errekuperatuko duen jardun-ildoa mantendu behar dugu, kudeaketa garden eta efiziente baten bidez lasarteoriatarren bizitza hobera eralda daitekeela frogatuz. Are gehiago kontuan izaten baditugu goragoko instantzietatik udalon autonomiari ezarri dizkiguten mugak: aurrekontuen egonkortasuna ezin saihestuzko paradigma gisa sakralizatzea, egoera eta horren ondorioak edozein direla ere, eta udalen ahalmenari eta autonomiari aurrez aurre erasotzea, udalei kontratazio-ahalmena izugarri zailduz beren erantzukizunei aurre egiteko. Horrek guztiak murriztu egin du udalon erantzuteko ahalmena; izan ere, gure egoera ekonomikoa edozein dela ere, beste instituzio batzuen kudeaketa arduragabeen pairatzaile izan behar dugu, nahiz eta erakusten ari garen hobekien saiatu garen administrazioak garela diru publikoaren kudeaketan efizienteago izateko orduan.

Udaleko kudeaketa herritarrei hurbiltzeko gobernu honek duen bokazioa jasotzen saiatzen dira aurrekontu hauek, herritarren patriketatik ateratzen diren baliabideak zertan gastatzen diren azalduz informazio zabalagoa eta osatuagoa emanez. Gardenagoak izatea bilatuz, gure kudeaketa hobeto kontrolatzeko, eta lasarteoriatarrei partaidetza handiagoa emanez, zuzenean eragiten dieten erabakietan aktibokiago parte hartzeko modua izan dezaten.

Joko-eremu horretan aurkitzen gara, eta horrekintxe eman behar diegu erantzuna lasarteoriatarren premiei; erantzuna inori ematekotan, gure herritarrei eman behar diegu, eta haien aurrean kontu eman beharko dugu. Garai hauetan ausartak izan behar dugu eta pauso bat aurrera eman, kudeatzeko eta erantzuteko dugun gaitasuna hobetuz, geure buruekin zorrotzagoak izanez eta udalon kobrantza-gaitasunaren osagarri izango diren kanpoko baliabideak lortuz, beste gainontzean aurre egiteko kostu handiagokoak geratuko litzaizkigukeen inbertsioei ekiteko aukera emango digutenak.

## 2.1.2 UDAL-POLITIKAREN JARDUN-ILDOAK

Aurrekontu hauen helburua gobernu-talde honen programa amaitzea da, politikaren balioa areagotzeko modu bat baita herritarrekin hartutako konpromisoak betetzea. Baina, era berean, oposizioko taldeekin akordio posible guztietara heltzen ahaleginduz, zeren gobernu ona herritar guztientzat dena baita, eta ez haien parte batentzat dena. Horregatik, egungo udal-gobernuaren programaren berezko neurriez gain, talde horiekin adostutakoak ere sartzen dira. Hau da udalaren 2019ko aurrekontuen jarduera-ildoak markatzen dituen eremua

Aurkezten ditugun aurrekontuak gure udalaren kudeatzeko ahalmenari egokituak dira, urteotan frogatu izan dugunez, bai eta gaur egungo egoera ekonomikoari eta kobrantzazkoari egokituak ere. Inbertsioek garrantzitsuak izaten jarraitzen dute, arindu beharrekoak diren arazoei aurre eginez, baina gainerako arloak alboratu gabe. Aurrera egingo badugu, anbiziotsuak izan behar dugu, eta horregatik aurkezten ditugu aurrekontu hauek, garrantzizko erronkei aurre egiteko bidea emango digutenak.

Hirugarren urtez segidan, baliabide ekonomikoak lortzeko kudeaketa efiziente bati esker, aspaldidanik atzeratuta zeuden inbertsio garrantzitsuei ekin ahalko diegu aurten. Horregatik, inbertsioek politika munizipalaren ardatz bat izaten jarraituko dute, gure herritarren eskariei erantzuna emateko, eta aurtengo ekitaldian 5,9 milioi eurotik gorakoa izango da. Kudeaketa honi esker, lehenbiziko aldiz sartu ahal izan dira parte-hartzezko prozesu batean hautatutako proiektuak gauzatzeko kontu-sailak. Hirigintzaren, Obren eta Ingurumenaren arloan aurtengo ekitaldirako aurreikusitako interbentzio garrantzitsuenak oso lotuak daude irisgarritasuna hobetzeari, eta hauexek dira:

- Basaundi bailara berrurbanizatzea.
- Jaizkibel plazako etxabeak eraistea eta berrurbanizatzea
- Atsobakarko kirol-ekipamendu berria (futbol-zelaia, errugbi-zelaia eta atletismo-pistak).
- Baratze ekologikoak sortzea.

Zerbitzu Publikoetan ahalegin handia egingo da eraikin munizipalen efizientzia energetikoa eta kalitatea hobetzeko. Horrez gain, garrantzizko kontu-sailak mantentzen dira eskoletan eraberritzeak egiteko, hala nola Sasoetan eta Landaberrin.

Inbertsioen artean, Atsobakarko kirol-ekipamendu berriaren eraikuntza mantentzen dugu. Horren barruan, futbolean eta errugbian entrenatzeko zelai bat eta atletismoko pista berriak sortzea aurreikusten da. Kiroldegi berriaren eraikuntzari ekiteko lehen urratsa da —jadanik abian da haren ideia-lehiaketa—, gaur egun Michelingo kirolgunean dauden atletismo-pistak lekualdatzeari esker. Eta hori egiten dugu Usurbilgo Udalak proiektu horren gainean mantentzen duen paralisia gorabehera, konbentzituta baikaude inbertsio hori egitea beharrezkoa dela Lasarte-Oriako eta Buruntzaldeko kirol-ekipamenduak hobetzeko.

Hirigintzan estudio eta proiektuetarako kontu-sail garrantzitsu bat mantentzen da eta, horri esker, etorkizunean ekin ahalko diogu Lasarte-Oriarako kiroldegi berri bat eraikitzeko proiektuari atletismoko pistak lekualdatzearekin, hori baita Lasarte-Oriako herritarren eskari nagusietako bat.

Herritarren parte-hartzearen arloan, deszentralizazioa hobetzeko ahaleginaren barruan, gaur egungo auzo-elkarteak sendotzera bideratutako diru-laguntzen lerroa nabarmenduko dugu, bai halaber mantendu egingo dela Herritarrentzako Bulego Mugikorra, urte osoan zehar udalerriko 8 auzotan barrena ibiliko dena udala herritarrei hurbiltzeko, haien proposamenak, kexak eta iradokizunak jasoz.

Sozioekonomian, enpresa berrientzako laguntzek kontzeptu berri bat izango dute, luzaroan langabezian dauden 55 urtetik gorako pertsonei sostengu emateko.

Gobernu-Kontseiluak 2018ko abenduaren 18an hartutako erabakiaren bidez, Eusko Jaurlaritzako zuzeneko diru-laguntza bat eman dio Lasarte-Oriako Udalari Basaundi Bailara eraberritzeko

Laguntzaren gehienezko zenbatekoa 2.390.000,00 eurokoa da, lau urtetan banatua 2018tik 2021era.

Diru-laguntza hurrengo jarduketa hauetarako destinatu behar da, zenbateko hauekin:

*Udalerriko Basaundi Bailaran 16 ataritan banatuta 151 etxebizitza eta 29 lokal barne dituzten eraikinen multzoa zaharberritzea, zenbaki hauekin identifikatuak: 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 13, 14, 15 eta 16.
Zenbatekoa: 2.031.500,00 €.

* Prestakuntzako eta enpleguko, laguntza eta ekintzailetzako plan bat garatzea, IKT teknologiak garatzea, eta "Hurbiltasuna kudeatzeko bulego teknikoa" garatzea eta ezartzea.
Zenbatekoa: 358.500,00 €

## 2.1.3 KONTABILITATEKO ETA AURREKONTUKO EGOERA

- Kredituak kudeatzeko zein aurrekontua exekutatzeko operazioetarako, Gastu eta Sarreren Aurrekontuko Kontabilitateak ondorengo hauei buruzko informazio bereizia eskaintzen du:
  - Ekitaldi bakoitzeko Aurrekontu Orokorrei buruzko informazioa, bai eta aurreko Ekitaldietako Aurrekontu likidatuen ondoriozko Kreditu Txertatuei buruzkoa ere.
  - Ondorengo Ekitaldietako Aurrekontuei buruzko informazioa.
  - Itxitako Aurrekontuen Gastu eta Sarreren Gerakinen Operazioei buruzko informazioa.
- Aurrekontuko gastu egituraren helburu nagusia da gastuak gehiago xehatzea aurrekontuan, udal zerbitzuen kostuen kalkulua ahalbidetuko duen garapen mailan kontabilizatu daitezen.

  Kodifikazio hau itxia da, eta erakunde lokalek nahitaez jarraitu behar dituzte bertan zehazten diren gastu-arloak, gastu-politikak, programa-taldeak eta programak. Programei eta azpiprogramei dagokienez, ordea, halakoak irekitzat jotzen dira, baldin eta ez badira jasotzen kode honetan.

- ➢ Departamentu bakoitzak dagozkion gastuak eta sarrerak kontrolatuko ditu. Hori dela-eta, programa jakin baten egoera zehatz-mehatz ezagutu nahi dugunean, programa horri dagokion departamentura joko dugu, hark behar dugun informazioa eman diezagun.
- ➢ Zerbitzuen kostuen distribuzioa horretarako konfiguratu duen aplikazioaren bitartez egingo da.

- ➢ Aurreko ekitaldietan bezalaxe, finkatutako planak era koherente eta eraginkorrez burutzea ahalbidetuko duten prozedura administratibo arinagoak instrumentalizatzen saiatuko gara, partiden binkulazio juridikoa mantenduz egungo mailarekin, gestio-tresna arina, malgua eta egokia dela frogatu baita.

- ➢ Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorrean definituriko kontu-taularekin bat etorriz, kontabilitate publikoa partida biko sisteman oinarritzen da, eta, beste batzuen artean, helburu hauek azpimarra ditzakegu:
  - ✱ Udal-entitatearen balantzea burutzea: udal-ondarearen eraketa eta egoera nahiz horren aldaketak adierazten dira.
  - ✱ Emaitzak ondare ekonomikoaren ikuspuntutik finkatzea.
  - ✱ Emaitza analitikoak finkatzea: zerbitzuen kostua eta errendimendua adierazten dira.

  - ✱ Politikari nahiz kudeaketari dagozkien erabakiak hartu ahal izateko behar den informazio ekonomiko eta finantzarioa ematea.
  - ✱ Ibilgetu material, immaterial eta finantzarioaren inbentario eta kontrola nahiz zorpetzearen kontrola ahalmentzea.
- ➢ Aurrekontuz kanpoko kontabilitateak Aurrekontuen exekuzioaren operazio lagungarri independenteak ukitzen dituzten ekonomia-kontabilitateko operazioak islatuko ditu, hala nola: Gordailuak, Atxikipenak, eta abar, bai eta haien aurrekontu-izaerak Aurrekontuaren Kontabilitatean erregistratzea ahalbidetzen ez duten beste operazioak ere. Ondareen kontabilitatean bakarrik islatzen dira eta, duten aurrekontuz kanpoko izaeragatik, inoiz ez aurrekontuen kontabilitatean.

## 2.1.4 MARKO FINANTZARIOA

Udalak aurrekontuen efikaziaren, efizientziaren eta estabilitatearen alde hartu duen konpromisoa irmoa eta deliberatua da. Baina, zein da gaur egungo egoera?

Ohiko indikadore sozioekonomiko gehienen arabera, Lasarte-Oriak solbentziazko egoera ekonomikoa ageri du, likiditatekoa, eta posizio orekatua.

Azterketa horretatik, honako ezaugarriak nabarmendu ditzakegu:

- ➤ Ohiko Diru-sarreren exekuzioa aurreikuspenetatik gora dago.
- ➤ Politika Fiskalaren alorrean jarduketa-marjina dago, izan ere nahiko baxua da oraingo araudiak onartzen duen udalaren erabilerari dagokion ibilbide fiskala, eta presio fiskal moderatuarekin biltzen da.
- ➤ Gastu arruntean eusteko ahalegina egin da.
- ➤ Aurrezki eta zorpetze adierazleak maila egokian daude.

Horrek guztiak aukera ematen du pentsatzeko Udala egokiera onean dela Inbertsio Planari atxikitako erronkei aurre egiteko, datozen ekitaldietan bultzatu nahi direnak alegia.

Baieztapen hori egitera garamatzaten elementu giltzarriak honako hauek dira:

- ➢ Diziplina ona izan da aurrekontuetan, zeinetan kontrol zorrotza eramaten baita.
- ➢ Gastu-politikak gure infrastrukturak hedatzera eta hobetzera, ongizate sozialera eta politika kulturaletara orientatu dira.
- ➢ Zorpetze-maila moderatua izan da.
- ➢ Diruzaintza indartsu dago.
- ➢ Diziplina fiskala eta kobrantzakoa efikaza izan da.

Aurrekontuaren proiektuak, 2019. urterako aurreikusten duen marko finantzarioa hurrengo hau da:

| ADIERAZLEAK | MARKO FINANTZARIOA |
|---|---|
| BABES FINANTZARIOAREN ADIERAZLEAK | |
| SARRERA ARRUNTA (1) | 23.209.022,22 |
| GASTU ARRUNT EZ FINANTZARIOA (2) | 20.098.500,72 |
| AURREZPEN GORDIN ABSOLUTUA (1)-(2) | 3.110.521,50 |
| AURREZPEN GORDIN ERLATIBOA | 0,13 |
| KARGA FINANTZARIOAK (4) | 343.608,64 |
| LEGEZKO ZORDUNTZE-MAILA (4)/(1) | 0,01 |
| AURREZPEN NETO ABSOLUTUA (1)-(2)-(4) | 2.766.912,86 |
| AURREZPEN NETO ERLATIBOA (1)-(2)-(4)/(1) | 0,12 |
| ZORPETZEKO MARJINA | 0,89 |
| MARGEN DE ENDEUDAMIENTO | 2.766.912,86 |
| ZORDUNTZEA | 0,00 |
| ZORRAREN AMORTIZAZIOA | 342.497,31 |
| ZOR BIZIA | 342.565,82 |
| ZOR BIZI ERLATIBOA | 0,01 |
| GASTUAREN ADIERAZLEAK | |
| PERTSONALEKO GASTUAK | 0,33 |
| AZPIKONTRATAZIOAK | 0,23 |
| FUNTZIONAMENDUKO GASTUAK | 0,82 |
| INBESTIMENDUEN ADIERAZLEAK | |
| FINANTZ. AFEKTATURIK GABEKO INBEST. NETOA | 2.068.871,16 |
| FINANTZ. AFEKT. GABEKO INBEST. NETO ERLATIBOA | 1,13 |
| INBESTIMENDU NETO TOTALA | 3.519.710,02 |
| INBESTIMENDU NETO TOTAL ERLATIBOA | 1,92 |
| FINANTZ. AFEKT. GABEKO INBESTIM. MAILA | 0,07 |
| INBESTIMENDU-MAILA TOTALA | 0,13 |
| KAPITAL-TRANSFERENTZIAREN DEPENDENTZIA | 0,41 |
| MAILEGUEN DEPENDENTZIA | 0,00 |
| SARREREN ADIERAZLEAK | |
| PRESIO FISKALA | 483,34 |
| TRANSFERENTZIA ARRUNTEN DEPENDENTZIA | 0,60 |
| SARRERA EZ PERIODIKO ABSOLUTUAK | 1.157.675,35 |
| SARRERA EZ PERIODIKO ERLATIBOAK | 4,99% |

Marko honetan, ezin dugu alboratu ezen udalaren gastu eta sarreren politikari buruzko epe ertainerako perspektibak hausnarketa sakona eskatzen duela. Herritarrei eskaintzen ari gatzaizkien zerbitzuen kopuruaren gehitze progresiboak eta horien kostuen igotze geldiezinak horrela eskatzen dute. Hausnartu beharra dago eskainiko ditugun zerbitzuen ereduari buruz, horien kostuei eta finantzazioari buruz, dagoen demandari buruz, onuradunei buruz, dugun ahalmen fiskalari buruz eta administrazioen artean eskumenak banatzeari buruz. Ez da posible izango ematen diren zerbitzuen kopurua mugarik gabe gehituz joatea eta kontrolik gabeko gastu-politikak praktikara eramatea. Aldez aurretik determinatu beharra daukagu ixteko eredu bat eta haren finantzazio establea.

Helburua da kalitatezko zerbitzuak bermatzea, hala presenteon nola etorkizunean. Horretarako, ordea, berrordenatu egin behar ditugu zenbait zerbitzu, beren prestazioa, efizientzia eta biabilitatea hobetzearen mesedetan.

## 2.1.5 ONDAREAREN EGOERA

Aginduzkoa gertatzen da behar bezala eguneratu eta baloratutako udal-inbentariorik ez dagoela

## 2.1.6 LANTZEKO IRIZPIDEAK

Aurrekontuaren proiektua arlo bakoitzeko lehendakariek formulatutako proposamenetan bildutako informazioa abiapuntutzat hartuta landu da.

Zeregin hori errazteko, ondoren zerrendatzen diren baliabideak jarri dira arlo bakoitzean ardura duten taldeen eskura: zerbitzuak sortzeko edo aldatzeko erabakiak, bai eta beharrezkoak gertatzen diren aurrekariak ere; aurreko urteko aurrekontuaren exekuzioari buruzko informazioa; segidako tratuen obligazioak, nola legeak ezarrita, hala onartutako konpromisoen indarrez; eta, edonola ere, aurreko ekitaldian izandako etekinaren edo tarifa eta kuotak gehitzearen arabera estimatutako sarrerak.

Proposamen horiek gastuaren izaera ekonomikoaren arabera ordenatu dira, inbertsioko jarduera eta gastu arrunteko jarduera bereiziz. Proposatzaileekin egindako bilera batzuen ostean, lehentasunak ezarri dira, premia sozialaren arabera, betiere aurreikusitako sarreren mugen barruan.

## 2.1.7 AURREKONTUAREN HELBURUA

Aurrekontua, Korporazioaren jarduera ekonomikoaren programa gisa, baliabideen optimizaziora bideratzen da, gastu arrunta kontrolatuz, arrazionalizatuz eta eutsiz. Alde horretatik, komeniko da konponente estruktural handiagoa duten gastu-kapituluen euspenean neurri handiagoan intziditzeko aukera aztertzea, errazago gerta dadin ziklo ekonomikoari estekatua ez dagoen defizita intentsitate handiagoz murriztea.

Helburu orokor horren barruan, baliabide arruntak inbertsiorantz bideratu nahi dira, azpiegiturak hobetzeko eta sortzeko eta administratuen ongizatea handitzeko.

Horrekin batera, lortu nahi dugun bigarren helburua udalerria barrutik hobeto hezurmamitzea eta bertako bizilagunen eta erabiltzaileen bizi-kalitatea hobetzea da.

Azken ekitaldi hauetan zehar jarri ditugun helburu desberdinetatik portzentaia handi bat betetzea lortu dugu, ordaintzeko eta sarreretako prozesuaren arintasun handiagoari eta gastuaren eta obratzeko eskubideen sorreran izandako arrazionalizazio handiagoari dagokionez. Kudeaketaren planifikazio hobean aurrerapauso handiak egin dira.

Zerbitzuak hobetzea eta modernizatzea lortzeko hartu dugun konpromiso irmoa da. Konpromisu horren oinarrian dagoen konbikzioa da gastua kontrolatzeko eta arrazionalizatzeko politika funtsezkoa dela udalerriaren garapen sozioekonomikorako.

LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

# 2.2 SARREREN AURREKONTUAREN MEMORIA

28.162.013,79 euroko esleipena dauka sarreren aurrekontuak.

Zenbateko hori gastuen egoera-orrikoaren baino haundiagoa da eta aurreko ekitaldiaren aldean %11,82 gehitzea dakar eta honela banaturik dago:

A) Operazio Arruntak: 23.209.022,22€. Operazio hauek guztizkoaren %82,41a dira eta %6,33(e)ko gehitzea dakarte.

B) Kapitaleko Operazioak: 4.952.991,57€. Operazio hauek guztizkoaren %17,59a dira eta %47,50(e)ko gehitzea dakarte.

Azken ekitaldiotan, sarreren egoerak honako bilakaera izan du:




Diru-sarrera arrunten eta kapitalezkoen arteko desglosamenduari dagokionez, bilakaera honako hau izan da:




Aurrekontuen proiektua osatzen duten baliakizunen iturrien konfigurazioa alboko grafikoan ikus dezakegu.




Egoera hori hainbat faktorek generatzen dute, eta horietxek xehatuko ditugu segidan:

- ➢ Ariketa honetarako Aurrekontuak, 2019. urtean, hobekuntza arinean kokatzen dira baina baldintza finantzario murriztaile batzuekin oraindik.
- ➢ Ildo estrategikoak onarturiko Ordenantza Fiskaletan zehaztuta geratu ziren, eta orain, beraz, finantza-koadro batez osatu dira, non inbertsioak, funtsean, ondorengo baliabide baliabide propioekin finantziatzen diren:
  - * Aurrezpen arruntatik: 1.968.871,16 €
  - * Besterentzetik: 3.041.265,59 €
  - * Dirulaguntzetik: 480.738,86 €
  - * Kreditu-operazioetatik: 0,00 €
  - * Kuota eta Hirigintza-aprobetxamendutik : 460.875,12 €
- ➢ Sarrerak estimatzeko, zuhurtziaren irizpidea aplikatzen jarraitzen dugu, horrek bermatzen baitu denbora guztian aurrekontuaren exekuzio erreala, arrazionala eta establea.
- ➢ Lehenbiziko hiru kapituluen baturak, hau da, funtsean udalaren autonomia finantzarioa adierazten dutenenak, urtealdian baliakizun munizipal arrunten %39,16 generatzen dute eta guztiaren %32,27.




- ➢ Zergapekoen kopurua handitu izana, eraikuntza eta urbanizazio berriak gauzatu baitira azken urteotan.
- ➢ Hirigintzaren plangintzak pixkanaka garatzen jarraitzen du, baina nolabaiteko segurtasun-gabezia dago hark sorrarazten dituen baliakizunetan, nahiz eta promotoreak hura gauzatzearen alde agertu diren.
- ➢ Zerbitzu munizipalak erabiltzen dituzten eta gune publikoak okupatzen dituzten erabiltzaileen kopurua zertxobait gehitzea.

Honako kontsiderazio hauek azpimarratu beharko dugu:

➢ Herritarrenganako presio fiskalak, zerga eta tasen terminoetan banatuta, hurrengo eboluzio hau izan du urteetan zehar. Ikus daitekeenez, zergen bidezko zuzeneko karga gero eta garrantzi handiagoa hartuz doa, eta gaindituz doa tasek errepresentatzen duten zeharbidezko karga. Horrek intzidentzia fiskal progresistagoa islatzen du.




Herritarrenganako presio fiskalak 483,34 €-koa da. Iaz, 399,34€-koa izan zen eta 2017(e)ko urtean 534,45€-koa, eta horrek Gipuzkoako udalen bataz bestekoaren (627,00€) azpitik kokatzen gaitu eta gure populazio-estratuaren batezbestekoaren azpitik (617,00€).




➢ Lehen esandakoa kontuan hartuz, zuzeneko zergei buruzko 1. kapituluaren igoera gertatu da (%3,25).

Kapitulu honen barruan, nabarmentzekoak dira honako zertzelada hauek:

* landa-ondasun higiezinen gaineko zergaren zenbatekoak gehiketa izan du, (%1,23), zerga-egokitzearen ondorioz.
* hiri-ondasun higiezinen gaineko zergatik lortuko diren zenbatekoaren gehiketa izango dugu, (%3,59), udalaren finantzazioaren funtsezko irudi bihurtzen baita, azken araudi-egokitzearen ondorioz.
* Beste aldetik, trakzio mekanikoko ibilgaiuen gaineko zergagatik %2,05 inguruko igoera lortuko dugu ibilgailuen parke lokala zertxobait gehituko delarik.

* gainbalioaren zergagatik %7,85 inguruko hazkundea espero dugu, ondare transmizioen igoeragatik. Nolanahi ere, ohartarazi beharra dago tributu horren araudia berriki egokitu dela, zergari lotua deklaratuz lursailen balio-gehitzea gertatzen ez denean, horren ondorioak oraindik asentatu gabe daudelarik. Beraz, atal honetan aurreikusitako diru-sarreraren zenbatekoa tentuz eta kontuz hartu beharra dago

* Halaber, jarduera ekonomikoen gaineko zergagatik %3,65 inguruko igoera lortuko dugu kuoten bilakaeragatik.

Zuzeneko zergek, %14,54(e)ko errepresentatibitatearekin, jaitsi egin diote aurrekontuan duten pisua.

➢ Eraikuntzen zergako sarrerei buruzko 2. kapitulua , aurreko ekitaldietan ohartarazi izan dugun moduan, oso lotua dago koiuntura lokalaren garapenarekin. Ekitaldian, 152 eraikin berritarako lizentziak eskatzea espero ditugu.

Gisa horretan, ikus dezakegu nola kapitulu honek %20,77 hazkundea izan duen.

➢ 3. kapitulua, tasei eta bestelako sarrerei dagokiena, aurrekontuen egituran bigarren mailan dago garrantzi aldetik, eta, sarreren %14,99(e)kin, pisu espezifiko txikiagoa izatera igaro da. Iazko ekitaldiaren aldean %3,76(e)ko igoera globala gertatu da.

Lehen aipatutako arrazoiez gain, bilakaera hori esplikatzeko, azken urtean salbuetsi eta hobaridun deklaratutako zergapekoen kopuruak izan duen gorakada handiaren efektua ere batu behar zaio. Azken urtean talde hau (+6) zergadunengan haunditu da.

Nabarmendu beharra dago, 2013. urtean ordenantza berriaren erregulazioa onetsi zenez geroztik, onuradunen kopurua 261 gehitu dela.

Kapitulu honen barruan, nabarmentzekoak dira honako zertzelada hauek:

* zabor bilketaren Tasak gehiketa izan du, (%6,82), hondakin urbanoak eliminatzeko ezarrita dagoen prozesuak berekin ekarriko dituen kostuen ondorioz eta, gutxi gora behera,100 erabiltzaile gehiago.
* Hilerritik lortuko diren tasaren murrizketa izango dugu, (%-7,10), zerbitzuen kopuruaren murrizketagatik.
* Ur-Horniduratik lortuko diren tasaren gehiketa izango dugu, (%3,24), erabiltzaile eta kontsumo kopuruaren gehiketagatik.
* Beste aldetik, estolderi zerbitzuaren tasagatik %1,10 inguruko igoera lortzeko asmoa dugu, tarifen igoeragatik.
* Kirol-instalazioetatik lortuko diren tasaren gehiketa izango dugu, (%2,96), erabiltzaileen kopuruaren gehiketagatik.
* Gaztedi arloko Jarduerei dagokien tasagatik lortzekoak diren diru-sarrerek %-22,69 inguruko murrizketa ageri dute, erabiltzaileen kopuruaren arabera eta egingo diren ikuskizunak dohainik izategatik.
* Euskaltegian ematen diren zerbitzuei dagokionez, lortuko diren sarreren gehiketa (%1,54) izango dugu, matrikulen kopuruaren arabera.

* Musika eskolari dagokion tasagatik lortzekoak diren diru-sarrerek %6,95 inguruko igoera ageri dute, matrikulen kopuruaren arabera.
* Bide publikoa okupatzeagatik dagozkion tasek aldaketa garrantzitsuak aurkesten dituzte. Kiosko eta bestelako okupazioei dagokion tasak %-1,89 inguruko murrizketa izango du, tramitatzea espero ditugun espediente kopuruaren jaitsieragatik.

* Mahai eta aulkiei buruko tasak %5,89 inguruko igoera izango du, tramitatuko diren okupazioak haundiagoak izango direla espero dugulako.

* Beste aldetik, postuak eta barrakak jartzeko lizentziei dagozkien tasak %202,94 inguruko gehiketa izango du, eskatzaileak gutxitu izanaren ondorioz eta San Pedroko ferialekuko instalazioen okupaziorako tarifaren aplikazioa.
* Kalez kaleko merkatuari dagozkion tasaren aurreikusitako dirusarrerak %-4,83 inguruko murrizketa izango du, espero den okupazioen arabera.
* Irekitzeko edo jarduerako lizentziei dagozkien tasak %-58,66 inguruko murrizketa izango du, tramitatiko diren dosier urbanistikoen arabera.
* Hirigintza-lizentziei dagozkien tasak %-19,22 inguruko murrizketa izango du, tramitatiko diren dosier urbanistikoen arabera.
* Etxean laguntzeko zerbitzuei dagozkien tasaren aurreikusitako dirusarrerak %0,09 inguruko gehiketa izango du, espero den erabiltzaileen arabera.
* Etxebizitza Tutelatuei dagokien tasagatik lortzekoak diren diru-sarrerek %0,77 inguruko igoera ageri dute, erabiltzaileen kopuruaren eta haien egoera ekonomikoaren arabera.
* Jarduera kulturalei dagokien tasagatik lortzekoak diren diru-sarrerek %-7,91 inguruko murrizketa ageri dute, erabiltzaileen kopuruaren arabera.
* Udal Liburutegiari dagokion tasagatik lortzekoak diren diru-sarrerek %-4,17 inguruko murrizketa ageri dute, bazkideen kopuruaren arabera.
* Genero-berdintasunaren sustatzeko hiri-zentroko tasak %9,22 inguruko gehiketa izango du, erabiltzaile-kopuruaren arabera.

➢ Transferentzia arrunten 4. kapitulua da garrantzi handienekoa, ezen-eta aurrekontuko baliabideen totalaren %49,17 eta baliabide arrunten %59,66 metatzen baitu. Lehenago ere adierazi dugunez, Udalak Finantzatzeko Foru-Funtseak %6,56 gehikuntza txiki bat izan du. Guztiarekin, kapitulua gehitu egin da %7,27.

Nabarmentzekoa da beste erakunde batzuetatik datozen diru-sarrerekiko dugun dependentzia-maila handia. Gure dependentzia %59,66ekoa da. Iazko ekitaldian %60,22koa izan zen, eta 2017. urtean %57,89Horrek, beraz, gure dependentzia-maila Gipuzkoako udalen batez bestekoaren (%53,60 €) gainetik kokatzen du, eta gure populazio-estratu berekoen batez bestekoaren (%54,80 €) gainetik.

**TRANSFERENTZIA ARRUNTEKIKO MENPEKOTASUNA**




| | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|---|
| Lasarte-Oria | 56,91 | 58,94 | 57,89 | 60,22 | 59,66 |
| POPULAZIO-ESTRATUA | 52,60 | 53,30 | 54,80 | | |
| GIPUZKOA | 52,00 | 52,60 | 53,60 | | |

➢ 5. kapitulua kontu finantzarioen errendimenduetatik eta udal ondaren errentetatik nahiz lur azpiko garajeen kontzesio eta aprobetxamendu administratiboetatik etorritako sarreretan oinarritzen da.

➢ 6. kapituluan ageri diren ohiz kanpoko diru-sarrerei dagokienez, nabarmentzekoak da Zabaleta-Berrin eta Zatarainen babes ofizialeko etxebizitzerako geratzen zaizkigun azken udal-lursailen besterentzea. Ohartarazi beharra dago diru-sarrera hori koiunturazkoa dela, eta jadanik erakusten duela baliabide ondareen agortzearen bezperan gaudela.

Kapitulu horrek %412,88ko gehitzea agertzen du, iazko ekitaldiaren aldean, bere nolakotasun koiunturalagatik. Izan duen bilakaera eta Gipuzkoako udalerrien eta populazio-estratu berekoen batez bestekoarekiko konparazioa hauxe da:




| | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|---|
| Lasarte-Oria | 5,59 | 5,02 | 4,57 | 3,25 | 4,99 |
| POPULAZIO-ESTRATUA | 6,50 | 6,60 | 6,00 | | |
| GIPUZKOA | 7,00 | 7,00 | 6,30 | | |

- 7. kapituluko diru-sarreren aurreikuspena, 1.450.838,86€ delarik, argi erakusten du zeinen baliabide dituzten gainerako administrazio publikoek inbestimenduak sustatzeko.

  Gure inbertsioak finantzatzeko kanpoko baliabideen dependentzia %41,22-koa da. Iaz, %83,94-koa izan zen eta 2017(e)ko urtean %37,62-koa. Bere bilakaera honako hau izan da:




| | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|---|
| Lasarte-Oria | 9,58 | 45,74 | 37,62 | 83,94 | 41,22 |
| POPULAZIO-ESTRATUA | 35,40 | 27,80 | 22,70 | | |
| GIPUZKOA | 28,60 | 23,90 | 16,30 | | |

- Kapitaleko operazioen barruan, ez dago mailegurik ituntzeko aurreikuspena.

Legezko zorpetze mailaren adierazlea %1,48-koa da. Iaz, %1,56-koa izan zen eta 2017(e)ko urtean %2,47-koa, eta horrek Gipuzkoako udalen batezbestekoaren (%3,10 ) azpitik kokatzen gaitu, baita ere gure populazio-estratuaren batezbestekoaren azpitik (%5,00). Azken urteetako bilakaera honako hau izan da:




Sarreren egoera-orriaren proiektua prestatzeko, ondoko faktore hauek hartu dira kontuan:

* Aurreko ekitaldietako kobrantzaren bilakaera.

Errolda Fiskalaren kobrantza mailaren azken adierazlea %97,90-koa izan zen eta horrek Gipuzkoako udalen batezbestekoaren (%94,60) gainetik kokatzen gaitu eta gure populazio-estratuaren batezbestekoaren (%94,60) gainetik. Bere bilakaera honako hau izan da:




| | 2015 | 2016 | 2017 |
|---|---|---|---|
| Lasarte-Oria | 95,70 | 96,80 | 97,90 |
| POPULAZIO ESTRATUA | 93,60 | 94,50 | 94,60 |
| GIPUZKOA | 94,00 | 94,10 | 94,60 |

* Karga-tasen aldaketa.

Baliabide ekonomikoak lortzeko zerga-ahalmena mugatua da. Adierazle hau %63,00-an dago eta horrek Gipuzkoako udalen batezbestekoaren (%79,00) azpitik kokatzen gaitu eta gure populazio-estratuaren batezbestekoaren (%74,00) azpitik. Bere bilakaera honako hau izan da:

LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

**ZERGA-HALMENA**



| | 2015 | 2016 | 2017 |
|---|---|---|---|
| Lasarte-Oria | 68,00 | 69,00 | 63,00 |
| POPULAZIO-ESTRATUA | 76,00 | 77,00 | 74,00 |
| GIPUZKOA | 79,00 | 79,00 | 79,00 |

* Arau-aldakuntzak.
* Errolda fiskalen aldaketa.
* Aurreikusitako kudeaketaren hobekuntza.
* Foru Aldundiak ezarritako xedapenak.
* Hainbat organismoren diru-laguntzak.
* Maileguak ituntzea.

LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

# 2.2.1. SARREREN AURREIKUSPENA

Dokumentu honetan biltzen diren kontzeptuei buruzko datu ekonomiko guztiek euroak adierazten dituzte:

## 2.2.1.1 I. KAPITULUA ZUZENEKO ZERGAK

4.095.126,13 euroko kreditu totala aurreikusten da

Kreditu horrek aurrekontuaren % 14,54 errepresentazen du. Azken ekitaldiotan izandako bilakaera, alboko koadroan ikus dezakegu.
3,25(e)ko gehitzea aurreikusten dugu, Ibilgailuen gaineko zergak izan duen igoera oinarritua.




Kapitulu honen barruan honako kontsiderazio hauek nabarmenduko ditugu:

| 2-0301-112XX Ondasun Inmobiliarioen gaineko Zerga | **2.279.463,64** |
|---|---|

Azken erroladaren Zergapekoen kopurua 14.104(e)koa izan da.

Zerga honen diru-sarrera %3,59 igotzea espero dugu.

| 2-0301-11301-93100 Trakzio mekanikoko ibilgaiuen gaineko zerga (Cod. 249) | **1.294.662,09** |
|---|---|

Herriko aurreikusitako ibilgailu kopurua 10.993(e)koa izango da. Kopuru honek gehitze bat izan du aurreko ekitaldiari buruz.

Nahiz eta CO2 gutxi aireratzeagatik hobariak eta familia ugariagatiko onuradunak dituzten ibilgailuak dauzkaten zergapekoen kopurua gehitu, zerga horren bidez lortuko ditugun sarrerak %2,05 igotzea espero dugu.

| 2-0301-11401-93100 Gainbalioaren gaineko Zerga | **145.071,64** |
|---|---|

Etxebizitzak, lokalak, garajeak eta industriako, merkataritzako edo zerbitzuetako establezimenduak saltzeagatik aurreikusitako transmisioen arabera.

Zerga honen diru-sarrera %7,85 igotzea espero dugu.

| 2-0301-13001-93100 Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga | **375.928,76** |
|---|---|

Bi kuota-mota biltzen ditu udalarenak eta probintzia- edo estatu-mailakoak. Kuotaren bilakaera garrantzitsuaz afektaturik izan da geldialdi ekonomikoaren ondorioz.

Hala ere, zerga honen diru-sarrera %3,65 igotzea espero dugu.

| **GUZTIRA 2.2.1.1 I. KAPITULUA ZUZENEKO ZERGAK** | **4.095.126,13** |
|---|---|

## 2.2.1.2 2. KAPITULUA - ZEHARBIDEZKO ZERGAK.

771.302,30 euroko kreditu totala aurreikusten da




Kreditu Horrek aurrekontuaren %2,74 errepresentazen du. Azken ekitaldiotan izandako bilakaera, alboko koadroan ikus dezakegu.
%20,77 igoera hartzen dugu kontuan. Kontsignazioa aurtengo ekitaldian udal-barrutian gauzatuko diren proiektuen kostuan oinarritzen da.

Kapitulu honen barruan honako kontsiderazio hauek nabarmenduko ditugu:

2-0802-28201-15100 EIOZ **771.302,30**

Udalerriaren barrutian obrak egitearen gaineko zerga ezartzetik lortuko diren diru-sarrerak aurreikusten dira eta 152 eraikin berri eraikitzea aurreikusten dugu.
Zerga honen diru-sarrera %20,77 igotzea espero dugu.

| | Etxeb Txalet Garaj. | BOE zb. |
|---|---|---|
| > A.I.U. A-35 Zabaleta-Berri | 30 | |
| > A.I.U. A-36 Zatarain | 52 | |
| > Vaguada Goiegi | 66 | |
| > Otros/Bestelakorik | | |
| > Obras Ordinarias / Obra arruntak | | |
| **GUZTIRA** | **152** | **0** |

**GUZTIRA 2.2.1.2 2. KAPITULUA - ZEHARBIDEZKO ZERGAK. 771.302,30**

## 2.2.1.3 3. KAPITULUA - TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK

4.221.377,20 euroko kreditu totala aurreikusten da




Kreditu Horrek aurrekontuaren %14,99 errepresentazen du. Azken ekitaldiotan izandako bilakaera, alboko koadroan ikus dezakegu.
%3,76 gehitzea aurreikusten dugu.

Nabarmentzekoa da kapitulu honi zuzenean eragiten diola ahalmen ekonomiko mugatuak dituzten zergapekoentzako salbuespen eta hobarien ordenantzaren aplikazioak; haien kopuruak ondorengo bilakaera izango du. Horrek berekin ekarriko duen ondorioa da tasa batzuetan sarrera gutxiago lortuko direla, tasak gehitu diren arren.

| | 2.013 | 2.014 | 2.015 | 2.016 | 2.017 | 2.018 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Salbuetsiak | 8 | 174 | 192 | 265 | 262 | 261 |
| %75ko hob. | 0 | 11 | 8 | 8 | 12 | 20 |
| %50ko hob. | 24 | 27 | 15 | 16 | 14 | 14 |
| %25ko hob. | 5 | 5 | 3 | 4 | 4 | 3 |
| GUZTIRA | **37** | **217** | **218** | **293** | **292** | **298** |

Kapitulu honen barruan honako kontsiderazio hauek nabarmenduko ditugu:

### 2.2.1.3.1. Tasak eta salmentak

Tasak eta salmentak kontzeptuak 3.957.084,89 euroko sarrerak aurreikusten dira.

Zenbateko horrek totalaren %14,05 errepresentazen du. Sarreren aurreikuspena iazko ekitaldikoa baino %2,23 haundiagoa da.

1) SALMENTAK

2-0X0X-30001 SALMENTAK **788,80**

Kultura Departamentuak editaturiko 22 argitalpen besterentzea, baita Euskara Departamentuak editaturiko 50 argitalpen besterentzea jasotzen du.

Tasa honen diru-sarrera %-13,89 jaistea espero dugu.

SALMENTEN TOTALA **788,80**

2) ZERBITZUAK EMATEAGATIKO EDO JARDUERAK EGITEAGATIKO TASAK

*A) ZERBITZUAK EMATEAGATIKO TASAK:*

Ondoko hauek bereizten ditugu:

2-0301-31001-16210 ZABOR BILKETA **923.069,56**

Zergapekoen kopurua 9.037(e)koa da. Kopuru honek gehitze bat izan du aurreko ekitaldiari buruz.

Udal-zergak pagatu beharretik salbuetsita dauden edo hobaria duten zergapekoen kopurua gehitzeatik ere, Tasa horren bidez lortutako sarrerak %6,82 igo dira.

2-0301-31002-16600 ESTOLDERI ZERBITZUA **965.322,26**

Kontzeptu honengatiko aurreikuspena ur-erroldaren sarreren %97aren gainean %150,75(e)ko tarifa aplikatuz lortzen da.

Tasa honen diru-sarrera %1,10 igotzea espero dugu.

2-0301-31003-16400 HILERRIKO ZERBITZUA **14.498,86**

Aurreikusitako zerbitzuen kopurua 40(e)koa da. Kopuru honek murrizketa izan du aurreko ekitaldiari buruz.

Tasa honen diru-sarrera %-7,10 jaistea espero dugu.

| 2-0204-31004-13200 AGIRIAK EGITEA UDALTZAINGOA | 2.055,30 |
|---|---|

Trafikoko Istripuen atestatuen 39 jaulkitzearen ondorioz aurreikusitako diru-sarrerak jasotzen ditu.

Tasa honen diru-sarrera %-20,80 jaistea espero dugu.

| 2-0801-31004-31100 AGIRIAK EGITEA OSASUNA | 166,00 |
|---|---|

Txakur arriskutsuak edukitzeagatik 20 dokumentu jaulkitzearen ondorioz jasoko diren diru-sarrerak aurreikusten ditu.

Tasa honen diru-sarrera %1,22 igotzea espero dugu.

| 2-0802-31004-15100 AGIRIAK EGITEA | 7.124,80 |
|---|---|

Hirigintzaren arloan 6 espediente tramitatzearen ondorioz aurreikusitako diru-sarrerak jasotzen ditu.

Tasa honen diru-sarrera %1,50 igotzea espero dugu.

| 2-0301-31009-16100 UR HORNIDURA | 673.026,87 |
|---|---|

Tasa honen diru-sarrera %3,24 igotzea espero dugu.

Aldaketa hau justifikatzen da zergadunen zenbakiaren arabera eta indarreko tarifen arabera.

| 2-0503-31010-34210 KIROLERAKO INSTALAZIOAK | 597.667,47 |
|---|---|

Diru-sarreren aurreikuspena daukagun abonuengatik eta hainbat kurtso eta jarduera antolatzeagatik aplikatutako tasan funtsatzen da

Tasa honen diru-sarrera %2,96 igotzea espero dugu.

| 2-0401-31011-32620 MUSIKA ESKOLA | 92.873,96 |
|---|---|

Aurreikusitako ikasleen kopurua 249(e)koa da. Kopuru honek gehitze bat izan du aurreko ekitaldiari buruz. Matrikulazioaren guztizko estimazioa 355tan zenbatesten da.

Tasa honen diru-sarrera %6,95 igotzea espero dugu.

| 2-0600-31011-33520 UDALAREN EUSKALTEGIA | 53.008,61 |
|---|---|

Aurreikusitako ikasleen kopurua 130(e)koa da. Kopuru honek murrizketa izan du aurreko ekitaldiari buruz.

Tasa honen diru-sarrera %1,54 igotzea espero dugu.

| 2-0701-31015-23110 ETZEZ ETXEKO LAGUNTZA ETA BESTE ZERBITZUAK | 67.365,00 |
|---|---|

75 erabiltzaile-kopuru aurreikusitakoari zuzendutako Etxe-Laguntzako Planaren barruko asistentziengatiko sarrerak aurreikusten ditu.

Tasa honen diru-sarrera %0,09 igotzea espero dugu.

| 2-0401-31016-33400 ZERBITZU KULTURALAK | 80.096,25 |
|---|---|

Kreditu hau departamentuak garatu nahi dituen jarduera desberdinen arabera esleitzen da. Ekitaldi honetan, 102 programak edo ikuskizunak burutu nahi ditugu, eta 8.442 ikusle inguruan espero ditugu. Beste aldetik, 67 ikaslerekiko Dantza eta Ballet ikastaroaz gain 9 bat ikastaro antolatzea gauzatu nahi ditugu eta 99 partehartzaile espero ditugu.

Tasa honen diru-sarrera %-7,91 jaistea espero dugu.

| 2-0701-31022-23141 BABES-ETXEETAKO EGONALDIA | 44.023,68 |
|---|---|

Sarrera hauek 12 erabiltzaileen ahalmen ekonomikoaren arabera estimatzen dira.

Tasa honen diru-sarrera %0,77 igotzea espero dugu.

| 2-0701-31023-23121 GENERO BERDINTASUNAREN SUSTAPENEKO ZENTRO ZIBIKOA | 7.290,72 |
|---|---|

Departamentuak garatu asmo dituen jarduera desberdinen arabera, non 7 ikastaro antolatzea aurreikusten baita eta 183 erabiltzaile inguru parte har dezatela.

Tasa honen diru-sarrera %9,22 igotzea espero dugu.

| 2-0401-31099-33210 LIBURUTEGIA | 335,37 |
|---|---|

Kontzeptu honengatik izatea espero diren diru-sarrerek bazkide berrien txartelak egiteagatik aplikaturiko tasan dute oinarria. 240 bazkide-berriak lortzea aurreikusten da.

Tasa honen diru-sarrera %-4,17 jaistea espero dugu.

| 2-0501-31099-33800 FESTETAKO JARDUERAK | 462,00 |
|---|---|

Kontzeptu horrengatik izango ditugun diru-sarreren aurreikuspena festa-ekitaldi 1 antolatzeagatik aplikatutako tasan funtsatzen da.

Tasa honen diru-sarrera %-50,62 jaistea espero dugu.

| 2-0502-31099-33721 GAZTERIAKO JARDUERAK | 719,10 |
|---|---|

Diru-sarreren aurreikuspena hainbat jarduera antolatzeagatik aplikatutako tasan funtsatzen da. 10 ikastaro egitea aurreikusten dira

Tasa honen diru-sarrera %-22,69 jaistea espero dugu.

| 2-0600-31099-33530 UDAKO TXOKOAK | 21.883,50 |
|---|---|

Diru-sarreren aurreikuspena Udako Txokoak antolatzeagatik aplikatutako tasan funtsatzen da.

Aurreikusitako Matrikulazioen kopurua 94(e)koa da. Kopuru honek murrizketa izan du aurreko ekitaldiari buruz.

Tasa honen diru-sarrera %-56,45 jaistea espero dugu.

| 2-0701-31099-23110 ZERBITZU SOZIALETAKO JARDUERAK | 10.608,95 |
|---|---|

Kontzeptu honengatik izango diren diru-sarrerek ingurunean mantentzeko programagatik eta egunez artatzeko zerbitzutik aplikaturiko tasan dute oinarria, zeinek 14 eta 18 erabiltzaile inguru parte hartzea aurreikusten dute, hurrenez hurren.

Tasa honen diru-sarrera %21,03 igotzea espero dugu.

| ZERBITZUAK EMATEAGATIKO TASEN A) GUZTIRA: | **3.561.598,26** |
|---|---|

*<u>B) JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO TASAK</u>*

Hurrengo xehetasunen arabera:

| 2-0802-31101-15100 IREKITZEKO LIZENTZIA | 3.896,55 |
|---|---|

Sektore ekonomikoaren mugikortasunean (batez ere, hirugarren sektorearenean) eta udalerriko hedapen-eremuetan gerta daitezkeen alta berrietan oinarritzen da. Ekitaldiaren zehar komunikatu babekoen 10 lizentzia eman daitezela itxaroten da, 0 lizentzi ikustatzeko bisita duten jarduera komunikatuenak eta 33 lizentzi ikustatzeko bisita gabeko jarduera komunikatuenak; guztira 43 lizentziak eragiten duena.

Tasa honen diru-sarrera %-58,66 jaistea espero dugu.

| 2-0301-31102-44120 AUTO-TAXIEN ETA GAINERAKO IBILGAILU ALOKAIRUKOEN LIZENTZIA | 111,20 |
|---|---|

Aurreikusitako sarrerak ibilgailua aldatzeagatiko estimaturiko 2 lizentzitan oinarritzen da batik bat.

Tasa honen diru-sarrera %1,55 igotzea espero dugu.

| JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO TASEN B) TOTALA | **4.007,75** |
|---|---|

LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

*C) JABETZA INMOBILIARIOAREN GAINEKO TASAK*

Sarreren aurreikuspena ondokoa da

| 2-0802-31201-15100 HIRIGINTZA-LIZENTZIA | 24.483,55 |
|---|---|

Emandako lizentziak luzatzeagatiko likidazioak biltzen ditu, bai halaber etxebizitzak, lokalak edo garajeak lehenengoz okupatzeko lizentziei buruzkoak. Ekitaldiaren zehar lehendik emandako lizentziak luzatzearen 0 lizentzi eman daitezela itxaroten da eta lehen okupazioko 12 lizentziarenak; guztira 12 lizentziak eragiten duena.

Tasa honen diru-sarrera %-58,66 jaistea espero dugu.

| JABETZA INMOBILIARIOAREN GAINEKO TASEN C) GLOBALA | **24.483,55** |
|---|---|

| *ZERBITZUAK EMATEAGATIKO EDO JARDUERAK EGITEAGATIKO TASEN GLOBALA* | **3.590.089,56** |
|---|---|

## 3) DOMINIO PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBOAGATIKO EDO APROBETXAMENDU BEREZIAGATIKO TASAK

*B) JARDUERA EKONOMIKOARI ONURA DAKARKIOTENAK EDO ERAGITEN DIOTENAK*

Ondoko hauek bereizten ditugu:

| 2-0301-32102-93100 BIDE PUBLIKOA OKUPATZEAGATIK (KIOSKOAK, ...) | 11.887,59 |
|---|---|

Hainbat produktu saltzeko xedez partikularrei bide publikoa lagatzeagatik lortzea espero diren sarrerak biltzen. 19 lizentziatan oinarritzen da 62 erkustokiko unitateak jartzeko.

Tasa honen diru-sarrera %-1,89 jaistea espero dugu.

| 2-0301-32104-93100 MAHAI ETA AULKIETAKO OKUPAZIOA | 48.112,91 |
|---|---|

Estimazioa egiteko, gaur egun indarrean dauden kontzesioak (1194), hartzen dira oinarritzat, terraza finkoak instalatzeko baimenak barne.

Tasa honen diru-sarrera %5,89 igotzea espero dugu.

| 2-0301-32105-33800 POSTU ETA BARRAKEKIN OKUPATZEA | 12.149,92 |
|---|---|

Batik bat, San Pedroetako azokan okupatuko den lurzorua hartzen du aintzat; hitzartu gabeko salguneak jartzeagatik ezarriko den arabera estimatua.

Tasa honen diru-sarrera %202,94 igotzea espero dugu.

| 2-0301-32109-93100 HORNIKUNTZAKO ENPRESEN OKUPAZIOA | 138.360,07 |
|---|---|

Energia-hornidurarako dominio publikoa okupatzearen kariaz gas eta elektrizitatetik lortzea espero diren sarrerak biltzen ditu.

Tasa honen diru-sarrera %0,85 igotzea espero dugu.

| 2-0301-32110-43130 KALEZ KALEKO MERKATUAREN OKUPAZIOA | 63.721,40 |
|---|---|

Erribera kalea eta Okendok azoken 51 lizentzien zenbatekoak jasotzen ditu.

Tasa honen diru-sarrera %-4,83 jaistea espero dugu.

| JARDUERA EKONOMIKOARI ONURA DAKARKIOTENEN EDO ERAGITEN | **274.231,89** |
|---|---|

*C) ONDASUN HIGIEZINEN JARDUENARENTZAT ONURAGARRIAK DIRENAK EDO ERAGITEN DIOTENAK*

Ondoko hauek bereizten ditugu:

| 2-0301-32201-93100 IBILGAILUEN SARRERA ESPALOI ETA IBIETAN ZEHAR | **91.974,64** |
|---|---|

Gaur egun dagoen errolda hartzen da oinarri. 302 lizentzi emanda daude eta 1.202,96 m² erreserbaturik.

Tasa honen diru-sarrera %11,23 igotzea espero dugu.

| JARDUERA IMMOBILIARIOARI ONURA DAKARKIOTENEN EDO ERAGITEN | **91.974,64** |
|---|---|

| *GLOBAL DOMINIO PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBOAGATIKO EDO APROBETXAMENDU BEREZIAGATIKO TASAK* | **366.206,53** |
|---|---|

| **2.2.1.3.1 Tasak eta salmenten TOTALA** | **3.957.084,89** |
|---|---|

### 2.2.1.3.2. Zerbitzuagatiko Prezio publikoak

Sarrera horiek azken urte hauetan izan duten bilakaera oinarritzat harturik, kreditu hau estimatzen da: 23.779,70 €

Zenbateko horrek totalaren %0,08 errepresentatzen du, eta %0,1ko jaitsiera dakar iazko ekitaldiaren aldean.

| 2-0401-34001-33310 INSTALAZ. ERABILPENARENGATIKO PREZ. PUBL. KULTURA | **10.064,40** |
|---|---|

Kultur Etxeko instalazioetako erabileraren erreserbak egiteagatiko sarreren aurreikuspena biltzen du, urteko 120 ordu inguru.

Prezio Publiko honen diru-sarrera %-8,05 jaistea espero dugu.

| 2-0502-34001-33722 INSTALAZ. ERABILPENARENGATIKO PREZ. PUBL. GAZTEDIA | **100,90** |
|---|---|

Gaztelekuko instalazioetako erabileraren erreserbak egiteagatiko sarreren aurreikuspena biltzen du, urteko 2 ordu inguru.

Prezio Publiko honen diru-sarrera %-3,63 jaistea espero dugu.

| 2-0503-34001-34210 KIROL INSTALAZ. ERABILPENARENGATIKO PREZ. PUBL. | **607,00** |
|---|---|

Kirol instalazioetako erabileraren erreserbak egiteagatiko sarreren aurreikuspena biltzen du, urteko 40 ordu inguru.

Prezio Publiko honen diru-sarrera %70,75 igotzea espero dugu.

| 2-0600-34001-33510 INSTALAZ. ERABILPENARENGATIKO PREZ. PUBL. | **95,50** |
|---|---|

Udal euskaltegiko instalazioetako erabileraren erreserbak egiteagatiko sarreren aurreikuspena biltzen du.

| 2-0701-34001-23090 ZERBITZU SOZIALAK-JARDUERENGATIKO PREZIO PUBLIKOA | **286,50** |
|---|---|

Villa Mirentxuko instalazioetako erabileraren erreserbak egiteagatiko sarreren aurreikuspena biltzen du, urteko 6 ordu inguru.

Prezio Publiko honen diru-sarrera %1,49 igotzea espero dugu.

| 2-0600-34002-33510 EUSKARA-JARDUERENGATIKO PREZIO PUBLIKOA | **9.360,00** |
|---|---|

Hainbat jarduera antolatzeagatik izango diren sarreren aurreikuspena jasotzen du (Udaltop,…)

Prezio Publiko honen diru-sarrera %6,67 igotzea espero dugu.

| 2-0701-34002-33711 3. ADINEKO-JARDUERENGATIKO PREZIO PUBLIKOAK. | **3.200,00** |
|---|---|

3. adinekoen programaren ekintzak: kanpoko jarduera bat egitea espero dugu eta 400 erabiltzaile inguruen parte hartzea.

Prezio Publiko honen diru-sarrera %0,00 jaistea espero dugu.

| 2-0301-34099-93100 PREZIO PUBLIKOAK. ZERB. OROKORRAK | 50,00 |
|---|---|

Udalak bere ekipamendua eta materiala alokatzeagatik izango dituen sarreren aurreikuspena jasotzen du.

Prezio Publiko honen diru-sarrera %0,00 jaistea espero dugu.

| 2-0401-34099-33210 BIBLIOTEKARENGATIKO PREZIO PUBLIKOA | 15,40 |
|---|---|

Liburutegiko instalazioetako fotokopiak egiteagatiko sarreren aurreikuspena biltzen du.

Prezio Publiko honen diru-sarrera %-76,81 jaistea espero dugu.

| **2.2.1.3.2. Zerbitzuagatiko Prezio publikoen TOTALA** | **23.779,70** |
|---|---|

### 2.2.1.3.3. Zuzenbide publikoko bestelako sarrerak

Sarrera horiek azken urte hauetan izan duten bilakaera oinarritzat harturik, kreditu hau estimatzen da: 240.512,61 €

Zenbateko horrek totalaren %0,85 errepresentatzen du, eta %38,3 igoera dakar iazko ekitaldiaren aldean.

| 2-0301-38001-93100 ERAGIKETA ARRUNTEN ITZULKETAK | 1.000,00 |
|---|---|

Oro har, Aurreko ekitaldian zor ez zirelarik ordaindutako kopuruak itzultzeko egindako sarrerak, eragiketa arruntei dagozkienak.

Kontzeptu honen diru-sarrera %0,00 jaistea espero dugu.

| 2-0204-39101-13300 ISUNAK | 133.771,30 |
|---|---|

Diru-sarrerak tramitatzekoak diren 1.498 espediente inguru oinarritzat hartuta aurreikusten dira.

Kontzeptu honen diru-sarrera %107,72 igotzea espero dugu.

| 2-0301-39102-93100 ZIGORRAK | 555,48 |
|---|---|

Diru-sarrerak tramitatzekoak diren espediente bat inguru oinarritzat hartuta aurreikusten dira.

Kontzeptu honen diru-sarrera %100,98 igotzea espero dugu.

| 2-0302-39201-93220 EXEKUTIBOKO ETA PREMIAENDU ARR. ERREKAR | 34.844,60 |
|---|---|

Zorrak borondatezko epean ez ordaintzeagatik ezarritako premiamenduzko errekargutik eratorritako sarrerak kontuan hartzen ditu.

Kontzeptu honen diru-sarrera %-9,06 jaistea espero dugu.

| 2-0302-39301-93220 BERANDUTZAKO INTERESAK | 10,00 |
|---|---|

Kontzeptu honen diru-sarrera %0,00 jaistea espero dugu.

LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

| 2-0301-39601-93100 TELEFONIAKO ENPRESEN KONPENTSAZIOAK | 63.010,90 |
|---|---|

Honen barruan sartzen dira telefonia finkoko konpainiek dominio publikoa okupatzeagatik espero ditugun diru-sarrerak.

Kontzeptu honen diru-sarrera %6,41 igotzea espero dugu.

| 2-0301-39901-92990 BESTELAKO ZENBAIT SARRERA | 5.420,33 |
|---|---|

Kontzeptu honen diru-sarrera %-37,62 jaistea espero dugu.

| 2-0503-39901-34100 KIROL-INSTALAZIOETAKO BESTELAKO SARRERAK | 1.800,00 |
|---|---|

Kontzeptu horrengatik izango ditugun diru-sarreren aurreikuspena hainbat kirol jarduera antolatzeagatik aplikatutako tasan funtsatzen da.

Kontzeptu honen diru-sarrera %-5,26 jaistea espero dugu.

| 2-0301-39902-92990 PARTIKULARREN KONTURAKO EXEKUZ. | 100,00 |
|---|---|

Onuradun jakin eta partikular bat zuzenean afektatzen duten obrengatik lortutako kopuruak biltzen ditu, bai halaber horiek dominio publikoko ondasunetan sortzen dituzten kalteen kobrantza.

Kontzeptu honen diru-sarrera %0,00 jaistea espero dugu.

| **2.2.1.3.3. Zuzenbide publikoko bestelako sarreren TOTALA** | **240.512,61** |
|---|---|

| **GUZTIRA 2.2.1.3 3. KAPITULUA - TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK** | **4.221.377,20** |
|---|---|

## 2.2.1.4 4. KAPITULUA - TRANSFERENTZIA ARRUNTAK

13.847.163,61 euroko kreditu totala aurreikusten da

Aurrekontu totalaren barruan pisurik handieneko 2.kapitulua da, aurrekontuaren %49,17rekin. Izaera arrunteko sarreren artean, %59,66 errepresentatzen du. Azken ekitaldiotan izandako bilakaera, alboko koadroan ikus dezakegu.

%7,27(e)ko handitzea aurreikusten dugu Foru Aldundiaren ekarpena gutxitzearen kariaz, bere gain hartu baitu zahar-etxearen zerbitzua.




Kapitulu honen barruan honako kontsiderazio hauek nabarmenduko ditugu:

| 2-0301-40001-93100 ITUNDU GABEKO ZERGETAKO PARTAIDETZA | 21.279,16 |
|---|---|

Itundu gabeko zergetako partaidetzaren estimazioa biltzen du, sarrera horiek azken urtean izan duten bilakaera oinarritzat hartuz. Azken likidazioaren emaitzak saldo negatiboa eman du Udalaren kontra, eta aurtengo ekitaldian konpentsatuko da saldo hori.

Kontzeptu honen diru-sarrera %3,84 igotzea espero dugu.

| 2-0701-40002-23121 ESTATUKO TRANSFERENTZIAK | 3.958,88 |
|---|---|

Azken urteko hitzarmenetan oinarrituriko sarrera estimatuak

| | | |
|---|---|---|
| > Zerbitzu sozialak.- ondoko transferentziak kontsignatzen ditu: | | 3.958,88 |
| * Geeroren itun bortizkeria | 3.958,88 | |

| **ESTATUAREN DIRU-LAGUNTZAK. OSOA** | **25.238,04** |
|---|---|

| 2-XXXX-410 EUSKO JAURLARITZAREN TRANSFERENTZIAK | | | | 485.966,70 |
|---|---|---|---|---|
| Azken urteko hitzarmenetan oinarrituriko sarrera estimatuak | | | | |
| > Kultur sustapena.- honako programa hauek biltzen ditu: | | | 97.527,16 | |
| Kontzeptu honen diru sarrera %11,34 igotzea espero dugu. | | | | |
| • Liburutegia.- Ondorengo dirulaguntzak biltzen ditu: | | 8.975,87 | | |
| * Obra bibliografikoak erosteko | 6.283,21 | | | |
| * Haurrek irakur dezaten animatzeko programa bat garatzeko | 2.692,66 | | | |
| • Musika Eskola.- Ondorengo dirulaguntzak biltzen ditu: | | 86.120,22 | | |
| * Musika Eskola: Hezkuntza Sailak emandako dirulaguntza | 86.120,22 | | | |
| • Bestelako programak.- Ondorengo dirulaguntzak biltzen ditu: | | 2.431,07 | | |
| * Kale Antzerkia Bultzatzeko programa: Kultura Sailak emandako dirulaguntza | 2.431,07 | | | |
| > Heziketa.- honako programa hauek biltzen ditu: | | | 1.324,85 | |
| Kontzeptu honen diru sarrera %1,00 igotzea espero dugu. | | | | |
| * Heziketa 21 : garapen jasangarria sustatzeko dirulaguntzak | | 1.324,85 | | |
| > Kirolak.- honako programa hauek barne hartzen ditu: | | | 1.400,00 | |
| * XXXXX | | 1.400,00 | | |
| > Euskara.- Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia martxan jartzeko subentzioa estimatzen du. | | | 20.000,00 | |
| Kontzeptu honen diru sarrera %-28,05 jaistea espero dugu. | | | | |
| * EBPN programa martxan jartzeko | | 20.000,00 | | |
| > Zerbitzu sozialak.- ondoko transferentziak kontsignatzen ditu: | | | 159.394,76 | |
| #¡DIV/0! | | | | |
| * Gizarte Emergentziako laguntzak | | 159.394,76 | | |
| > Kontsumo eta Merkataritza.- honako programa hauek biltzen ditu | | | 42.233,05 | |
| * Herriko bulegotik antolatzen diren jardueren kostuak ordaintzera xedaturiko programa | | 14.933,05 | | |
| * Hiri merkataritzaren lankidetza, dinamizaz HIRIGUNE 2017-2018 | | 27.300,00 | | |
| > Ingurumena.- honako programa hauek biltzen ditu: | | | 5.000,00 | |
| * Zarataren zonakako plana | | 5.000,00 | | |
